

berria

Igandea

2021-1-17

XIX. urtea, 5.458. zenbakia

1,80€



Trumpen aldia garbitzeko unea

Trumpismoaren aroak utzitako orbanak garbitzea egokituko zaio Joe Bideni. Heldu den asteazkenean ekingo dio AEBetako presidente demokratik lau urteko agintaldiari.

2

BERRIA



Inkesta. Euskal kulturaren erronka kolektiboari buruzko iritzia eman dute zazpi sortzailek, BERRIAk galdetuta **Iritzia.** Ane Garcia



33

Pedro Azpiazu

«Hazkundera sustatu nahi badugu, ez da koherentea kontrako norabidea hartzea»

Elkarrizketa • 10

Aurrekontuak

Jaurlaritza eta Elkarrekin Podemos ez dira ados jarri aurrekontuetan

12

Alemania

Armin Laschet aukeratu dute CDU alderdiko buru, Angela Merkel ordezkatzeko

18

Himalaismoa

Nepalgo mendizale talde batek K2 mendia igo du neguan, lehenengoz

32

TRUMPISMOA UZTEKO GARAIA

Buruzagi errepublikanoak lau urteotan hartutako erabakiak iraultzea izango da Joe Bidenen legealdiko lanik neketsuenetako bat. Baina ez bakarra. Pandemiaren aurkako neurriak hartu eta errepublikanoekiko zubiak eraikitzen ahalegintzeaz gain, etxean duen zatiketa ere leundu beharko du.

Trumpen aldeko kartel bat uretan, Kapitolioko atarian.

GAMAL DIAB / EFE

Arantxa Elizegi Egilegor

Logela hankaz gora utzi eta, etxeko guztiekin haserre, atea kolpe batez itxita joaten den nerabearen antzera amaituko du legealdia Donald Trumpek. Hark lau urtean hartutako erabakieta-ko asko iraultzea edo, ahal den heinean, konpontzea egokituko zaio Joe Biden buruzagi demokratari. Bai nazioartean, Iranekiko akordio nuklearra edo Europako Batasunarekiko harremanak kasurako, bai etxean, pandemiarekin esaterako. Bere alde ditu Ordezkarien Ganberako eta Senatuko gehiengoak –Senatuan 50na senatari ditu alderdi bakoitzak, baina, berdinketa kasuetan azken hitza presidenteordeak duenez, demokratik gailen-

duko lirateke–, eta horrek asko erraztuko dio lana. Baina bidea ez da zailtasunik gabekoa izango.

Gobernuaren eraketan bertan egon da lehen aldaketa. Trump ez bezala, *stablishment*-eko kideez inguratu da Biden. Senatari eta presidenteorde karguan egin dituen urteetan ezagututako jendea da gehienbat. Zenbaitek kritikatu diote Barack Obamaren hirugarren legealdia ote den berea, presidente ohiak abian jarritako proiektuetako asko berreskuratu edo indartuko dituela iragarri baitu buruzagi demokratik, besteak beste, *Obamacare* delakoa. Ez dator bat Delawareko senatari den Christopher A. Coons: «Batzuek diote, mesprexuz, hau Obama 2.0 gobernua izango dela. Baina hori ezinezkoa da. Ezin dugu atzera egin 2016ra. Lau urte hauek dena aldatu dute. Beste garairi batean gaude, eta gobernu-

bera ere desberdina da. Uste dut administrazio honek baduela gaitasuna AEBak nahaste honetatik ateratzeko».

Dagoeneko 23,4 milioi kutsatu eta ia 400.000 hildako eragin dituen pandemiari aurre egitea izango da administrazio berri horren lehentasun nagusia. Bidenen bozatarako kanpainako zutabe nagusia izan da COVID-19aren aurkako borroka, krisi ekonomikoarekin batera. Hala ere, hark, aurreko gobernuak ez bezala, osasuna lehenetsiko duela iragarri du, eta prest agertu da beste itxialdi bat agintzeko, horrekin kutsatzeak murriztuko badira. Horrekin lotuta zenbait neurri iragarri ditu: batzorde bat osatzea, testen eta txertoen egoizpena eta banaketa kontrolatuko dituen; maskaren derrigorrezko erabilera bultzatzea; Gaixotasunen Kontrolerako eta Prebentzio-

rako Zentroak egiten dituen osasun publikoaren azterketak ugartzea; eta OME Osasunaren Mundu Erakundearekiko elkarlana itzultzea.

Pandemiari aurre egiteko baliabideen artean da *Obamacare* deritzona, zeinak osasun arreta

Bideni mezu zuzen bat helarazi zion BLM mugimenduak bozak irabazi eta berehala: «Zerbait nahi dugu gure botoen truke»

bermatzen dien aseguru pribatu-rik ez duten hainbati. Demokratik bi ganberetan duten gehien-goarekin, erraz zabaldu ahal izango dute osasun arreta Medicaid sistema onartua ez duten estatuetako baliabide gutxiko herriarregana iristeko, eta aseguru etxean diru laguntzak handitu ahalko dituzte. Aldiz, Bidenen proposamenetan nagusi izan zen

aseguru publiko baten sorrera ia ezinezkotzat jotzen dute haren gertukoek, horrek Senatuaren bi herenen babesa behar baitu. Horrekin batera, bazterrean geratu da ezkerreko demokratik, Bernie Sanders senataria buru, defendatzen duten osasun arreta publiko, zeinak aseguru pribatuak desagerraraztea aurreikusten zuen. Proposamenak moderatuen kritikak eragin zituen hasieratik, Biden bera tartean.

Hain zuzen ere, alderdi barruko zatiketa hori, ezkertiarren eta moderatuen artekoa, leuntzea izango da Bidenen beste erronketako bat. 2016an Hillary Clinton hautagai zenean ez bezala, Bidenen kanpaina bultzatu dute progresistek 2020an, baina baita ohararazi ere presidente berria estu hartuko dutela behin hura

irabazteko, eta gero, politikak egiteko garaian, bazterrean uzten dituzte».

Ezin da gutxietsi progresisten indarra. Azaroko bozen ostean, haienak dira Ordezkarien Ganberako 435 eserlekuetatik 94 –duela lau urte baino 16 gehiago–, eta Senatuan ere ordezkaritza bat esku-ratu dute. Haien ahalmenaren jakitun, Bidenek aurreratu du bultzatuko dituela haien zenbait proposamen; esaterako, doako koronabirus probak egitea eta etxegabetzeak atzeratzea pandemiak irauten duen bitartean. Baina beste egitasmo batzuen kasuan, aurka agertu da buruzagi demokrata; esaterako, Poliziarentzako funtsak murrizteko eskarian.

Black Lives Matter

Biden ez legoke Etxe Zurira sartzeko puntuan BLM Black Lives Matter mugimenduaren bultzadatik gabe. Afro-amerikarren %93k egin zuten hautagai demokraten alde, eta Georgian mobilizazio gaitasun izugarria erakutsi zuten, Senatuko gehiengo Bidenen aldera iraulita. Estatu horretan, 800.000 hautesle berri bildu ditu demokraten inguruan Stacey Abrams politikari eta abokatuak. Abrams izan zen Bidenek hautagai izan zituen izenetako bat presidenteordegaia aukeratzeko lanetan aritu zenean. Baina Abrams progresista da, eta egungo Polizia sistema aldatzearen aldekoa, Kamala Harris presidenteorde hautatua eta Biden bera ez bezala.

Mapping Police Violence atariaren arabera, AEBetako Poliziak 1.127 pertsona hil zituen iaz, horietatik %28 afro-amerikarrak, nahiz eta azken horiek biztanleen %13 soilik izan. Datu horiek eta iaz Poliziak hildako Rayshard Brooks-en, George Floyd-en eta Breonna Taylorren kasuek komunitatearen haserre eragin zuten, eta BLM mugimenduaren eskari nagusiak bilakatu direnak sendotu: Poliziaren funtsak murriztea eta zurien eta afro-amerikarren arteko arrakala etetea –pandemiak 1,6 aldiz afro-amerikar gehiago hil ditu–.

«Hamarkadetan, afro-amerikarrok ahalaginak eta bi egin ditugu herri honen alde, eta jaso dugun erantzuna izan da gure bizitzek ez dutela balio. Ez dugu nahikoa esker oneko mezuekin. Administrazio honek lanean hasi behar du, eta gurekin duen zorra kitatzen», ohartarazi du Mary Hooksek, BLM mugimenduaren Atlantako ordezkariek. Presidente hautatuari mezu zuzen bat helarazi zion mugimenduak hark bozak



Joe Biden presidentea hautatua. ALYSSA POINTER / EFE

irabazi eta berehala: «Zerbait nahi dugu gure botoaren truke».

Mugimenduko kideek Bidenekin biltzeko asmoa dute hark kargua hartu ostean, eta, badakiten arren ez duela egungo egoera egun batetik bestera irauliko, ez dute itxaropena galdu. «Admi-

Alderdi Demokratikoa progresistak bezainbat indartu dira Alderdi Errepublikanoan eskuin muturrekoak

nistrazio honek ohartu behar du afro-amerikarrok kanporatu dugula Trump Etxe Zuritik. Hori ez da doakoa», dio Hooksek.

Harris presidenteorde aukeratzeko bera komunitate afro-amerikarri egindako keinu bat izan da, baina, askoren iritziz, ez nahikoa. «BLM mugimendua ez da presio talde handi bat, Erriflean Aldeko Elkarteak izan daitekeen

moduan, baina horrek ez du esan nahi pisurik ez duenik», azaldu du Todd Boydek, Kaliforniako Hegoaldeko Unibertsitateko irakaslea. Boydek argi du Bidenek bozak irabazi baditu afro-amerikarrek Trump kargutik kendu nahi zutelako irabazi dituela, eta ez hautagai demokrataren ideietatik gertu sentitzen zirelako. Hain justu, progresisten aldeko joera izan du hasieratik BLMk, eta haiekin egin zuten aliantza iazko urrian, «presio talde bat» sortzeko helburuarekin. *Herritarren gutuna* izenburupean biltzen ditu blokeak bere eskari nagusiak: guztientzako doako osasun arreta; hamasei milioi lagunentzako enplegu programa bat; arriskuengatik kalteordaina oinarritzeko langileentzat, atzera begirako eragina izango duena; eta Polizia finantzatzeko

erabiltzen den dirua heziketara eta gizarte zerbitzuetara bideratzea. Ocasio-Cortez bera eta Ilhan Omar ordezkariek demokrazia bloke horretako kideetako bi.

Oposizioa

Garaile izendatu ostean eskaintako lehen hitzaldian, zera esan zuen presidente hautatua: «Ez gara etsaiak. Estatubatuarra gara. Zauriak sendatzeko garaia da». Zer gertatzen da, baina, guztiak iritzi berekoak ez badira? Bozetan «iruzurra» izan zen ideia oso zabaldua dago oraindik, eta sustrai sakonak ditu. Argi geratu zen urtarrilaren 6an, Trumpen milaka jarraitzaile indarrez Kaptolioan sartu zirenean; baita aurretik ere, ehun ordezkarik baino gehiagok hainbat estatutako emaitzen aurka jo zutenean.

Hauteskunde hauek agerian utzi dute gizartearen banaketa, familia bereko kideek elkarri hitza ukatzea ere eragin duena, eta lau urteok azaleratu dutena. Egoera horren atzean daude gobernuak bultzatutako politikak eta, batez ere, bi alderdi nagusien arteko ezinikusiak. «Hor egin behar dugun galdera hau da: zenbateraino da ezinikusi hori benetako? Eta zenbateraino ari dira alderdiak gezurretan euren politikak aurrera ateratzen izateko, nahiz eta horrek adiskidetzeko bideak itxi? Izan ere, gihienetan, helburu politikoak gizartearen beharren aurretik jartzen dituzte alderdiek, azken horiek euren nahiak lortzeko manipulatu». Trumpen aurkako *impeachment* prozesua hasteko Ordezkarien Ganberako bozketan ikusi da ez dela ezinezkoa elkarlana. Orain arte buruzagi errepublikanoaren erabakiak zalantzan jarri ez dituzten hamar ordezkarik bozkatu dute hura auzipetzearen alde.

Azken hamarkadetan, Alderdi Demokratikoa progresistak bezainbat indartu dira Alderdi Errepublikanoan eskuin muturrekoak. Hala, garai batean aldea moderatuak, une jakin baten bada ere, akordioak lortzeko gai baziren, gaur ia ezinezko bilakatu da halakorik gertatzea. Bidenek lan handia egin beharko du bi bloke gotortetako testuingurua iraultzeko, eta batetik besterako zubiak eraikitzeko. Pandemiak eman diezaioke horretarako aukera bat, baldin eta errepublikanoentzat onargarriak eta progresistentzat balekoak izan daitezkeen neurriak bultzatzeko gai bada. Aurrean lau urte luze ditu Bidenek kanpainan egin zituen promesak betetzen ahalegintzeko.

Ekonomia suspertzeko eta desberdinkeria murrizteko berehalako eta egiturazko neurriak hartu beharko ditu AEBetako administrazio berriak. Bizkor ibili beharko du.

Tarte mugatua Bidenentzat

Irene Lasa

Osasun krisi batean daude AEBak pandemiarekin, eta krisi ekonomiko larrian; eta zer esanik ez: krisi politikoa ere agerikoa da. Milaka hildako eta gaixo, milioika langabe, eta matxinada saioak... Elkar elikatzen duten krisi horiei berehalako erantzun bat ematea derrigorrezkoa du Bidenen administrazioak.

Baina eskatuko zaio hori baino zerbait gehiago ere: herrialdeko desberdinkeria izugarria benetan murriztuko duten neurri ekonomikoak hartzea; izan ere, desberdinkeria eta milioika estatubatuarrek ikuspegi ekonomikotik pairatzen duten segurtasun falta dira, hein handi batean, krision muineko funtsezko arazoak.

Desberdinkeria murrizteko, hori bai, aldaketek sakonekoak izan beharko dute. Baina halakotarako, aukeraz gain, denbora behar izaten da. Eta Joe Bidenek, nahiz eta pandemia ostean ekonomiaren hazkunde indartsua espero den, ez du denbora gehiegi ekonomia eta enplegua gutxieneko maila batzuetara bideratzeko, eta politika horiek errotzeko, gero ezabatzen horren errazak izan ez daitezten.

Bi urteren buruan *midterm* direlakoak iritsiko zaizkio, Ordezkarrien Ganbera eta Senatuaren

heren bat aukeratzeko hauteskundeak. Ordurako AEBetako herritarrek euren poltsikoetan hobekuntzarik antzematen ez badute, gerta daiteke demokratek erabakiguneetan gehiengoak galtzea, eta Bidenen talde ekonomikoa edozertarako maingutituko litzateke. Itxi egin daiteke Bidenentzat Georgiako bi senatari demokraten garaipenarekin urtarril hasieran zabaldu zaien aukera tarte estua.

Donald Trump garaitzea ez zen gutxi demokratentzat, baina Senatuaren gehiengo irabazteak izugarri zabalzen dio Bideni bultza ditzakeen neurri politikoen eta ekonomikoen zerranda, nahiz eta gehiengo hori oso estua izan –50na senatari dituzte demokratek eta errepublikanoek, eta, berdinketa egonik, Kamala Harris presidenteordeak erabakitzen du—. Izan ere, berez Kongresuarena (bi ganberena) da zerga lege-

dia eta gastu federala ezartzeko eskumena. Hori gabe, zaila zukeen taxuzko ezer egitea ikuspegi ekonomikotik, Barack Obamari gertatu zitzaion bezala. Eta demokratek ez lukete nahi jokaleku horretan egon bi urteren buruan.

Gastu federala handitzeko bidea errazten diete, gainera, intres tasa txikiak, eta hori azpimarratzen aritu da egunotan presidente hautatua, teoriarik defizitak gorrotatzen dituzten errepubli-

kanoen diskurtsoa aurretik isilarazi nahian.

Eta, hala ere, asko kostako zaio Bidenen taldeari bere programako zenbait neurri aurrera eramatea. Kapitolioan jokatu da borroka hori ere. Senatuan, berez, 60 boto behar baitira legeak onartzeko. Dena den, badago haiek gehiengo soilarekin ateratzeko modua: adiskidetze aurrekontuen bidea, zeina filibusterismoa –araudiaz baliatuta jarduera nahita trabatzea– gainginduzko sortu zen. Hori bai, bide hori soilik gai jakin batzuetarako erabil daiteke, baldintza jakin batzuetan, urtean aldi gutxi batzuetan.

Analista batzuen arabera, eta berak ere esan du berebizikoa dela lehenbailehen zerbait egitea, Bidenek ezinbestekoa izango du berehalako neurri batzuk hartzea. Eta urte bukaeran irits daitezke, neurri handinahienak au-



Kapitolioko kupula.
Kongresua jokaleku
inportantea izango du
Bidenek. M. REYNOLDS / EFE

Donald Trumpek bere muga zergekin piztutako gerrak apaldu egingo dira, ziurrenez, Bidenen administrazioarekin, baina horrek ez du esan nahi harremanak aurreko egoerara itzuliko direnik.

Merkataritzan, atzera-bueltarik ez

IL

Ia mundu guztiarekin harremanak gaiztotu dituzte Donald Trumpek abiatutako merkataritza gerrek. *America First* (Amerika aurrea) goiburua, muga zergak ezarrazarazi ditu Txinarekin, Europako Batasunarekin... Kanada eta Mexiko bizila-

gunei ere aldarazi zien NAFTA ituna. Izena ere ez zitzaion gustatzen, eta berria jarri zion Trumpek: USMCA da orain.

Bidenekin zenbat aldatuko da hori? Ikusteko dago oraindik. Nahiko argi dago administrazio berriak harreman hobegoak nahi dituela kanpo merkataritzan. Beharbada, tonu atseginago

hori laster antzemango da, Munduko Merkataritza Erakundeak presidente berriaren izendapena desblokeatzen bada. Trumpek betoa jarri zion kontsentsuzko hautagaiari, Nigeriako Ekonomia ministro Ngozi Okonjo-Iwealari.

Tonu aldaketak, hala ere, ez du zertan politika aldaketa sakonik ekarri. Izan ere, herrialdearen

merkataritza defizit itzela hori dago oraindik, eta globalizazioak kalte egin diela sentitzen duten langileak eta enpresak ez dira gutxi AEBetan, ezta bi alderdi handien boto emailen artean ere. Horregatik, ia ezinezkoa da merkataritza harremanak Trump aurreko mailara itzultzea. Hori dela eta, Bidenek Buy America hartu

nahi du goiburua, America Firsteko muga zergak inbertsioarekin ordezkatuz eta tokiko fabrikak eta ikerketa lehenetsiz.

Edonola ere, muga zergen gerra apaltzeko negoziatioetan hasi beharko dute orain Txinarekin; lan neketsua, zalantzarik gabe. Eta Europako Batasunarekin ere izan beharko dute hartu-emanik. Hor, ikusi beharko da zer gertatzen den AEBetako talde teknologikoak zergapetzeko europarren asmoekin.

Hori bai, aditu askoren ustez, Bidenek barne politikan jarriko du arreta, eta hortik kanpoko gaiak mantsoago joango dira.

Bidenen erronkak
Ekonomia

Trumpek AEBetako ekonomian utzitako aztarna

Neurgailuaren arabera, oso desberdina izan daiteke Donald Trumpen eta errepublikanoen lau urteko agintaldiak Bidenen administrazioari utzitako ondareari buruzko iri-

tzia. Adibidez, barne produktu gordinari begira, edo burtsari begira, pandemiaren kalteak alde batera utzita, Trumpen urteetan hazkundera izan da, nahiz eta Obamaren azken lau urteetako baina motelagoa izan. 2017ko zerga jaitsierak izan zuten zerikusirik burtsaren igoeran, eta atzerriko inbertsioaren erakarpenean. Langabezia ere

beherantz zihuan koronabirusaren ezteandaren aurretik, eta orduan hasiak ziren igotzen soldatak.

Baina pandemiak agerian utzi ditu AEBetako ekonomiaren adabaki eskasak, eta argi geratu da hazkundera batez ere gutxi batzuen mesederako zela. Langabezia ziztuan igo denean; erabat babesgabe gelditu diren

estatubatuarren kopurua ere izugarri handitu da. Desberdinkeria handia zen herrialdean, arazoa areagotu egin da, eta orain nabariagoak dira langile estatubatuarrek lehendik ere pairatzen zuten segurtasun ekonomikoaren faltaren ondorioak: milioika lagun osasungintzako aseguru gabe gelditzeko arriskuan, edo langabezia

saririk gabe, eta inolako diru sarrerarik gabe. Etxegabetzeak, janaria lortzeko ilara amaigabeak... Pandemiak gogor jo ditu AEBak, eta gaitza desagertzeko denbora beharko da oraindik. Txertoak ezetik hazkundera ekonomikoa ekarriko duela nahiko argi dago, baina ekonomiari eta, batez ere, lan merkatuari kostako zaie suspertzea.

rrekontuen lege zabal baten barruan, eta baita adiskidetzearen bidea erabiliz ere. Hauek dira bide batetik edo bestetik Bidenek iragarritako neurri batzuk:

Laguntza zuzenak, txekeak eta langabezia

Aste honetan aurkeztu duen pandemiari aurre egiteko 1,9 bilioi dolarreko erreskate planean, Bidenek hirugarren estimulu txeke bat iragarri du, 1.400 dolarreko -Trumpek bi banatu ditu: 1.200 dolarrekoak, apirilean, eta 600ekoak, abenduan-. Langabezia sariak ere luzatu eta zabaldu nahi ditu Bidenek.

Gutxieneko soldata, hamabost dolarrera

Demokraten -zehazki, Bernie Sandersen- aldarrikapen bat bere egin du Bidenen talde ekonomikoak: erreskate planean gutxieneko soldata bikoiztea; orduko 7,25 dolarretik hamabost dolarrera handitzea jaso du. Aldaketa oso sakona izateaz gain, hurrengo presidente batek atzera bota ezin-nekurria litzateke. Agian urte bukaerara itxaron beharko du hor zerbait lortzeko.

Azpiegitura plan erraldoia


Enplegua sortzeko, lan publikoetan gastu handia egiteko asmoa du Bidenek, eta hor, kontraktatun txikiagoa espero daiteke errepublikanoen aldetik.

Zergak


Trumpek 2017an onartutako zerga jaitsierara soilik aberatsenen mesederako izan zela inork gutxi jartzen du zalantzan honezkero AEBetan. Bidenek esana du jaitsierara hori ezabatu nahi duela. Alderdi Demokratan indartsuak dira aberastasunaren gaineko zerga baten aldeko ahotsak.

AEB-AK, LAU ADIERAZLETAN


BPGa per capita




Langabezia tasa



Sarrera desberdinkeria



Pobrezia ratioa



AUS: Australia. **AUT:** Austria. **BEL:** Belgika. **BGR:** Bulgaria. **CAN:** Kanada. **CHE:** Suitza. **CHL:** Txile. **COL:** Kolonbia. **CRI:** Costa Rica. **CZE:** Txekiar Errepublikak. **DEU:** Alemania. **DNK:** Danimarka. **ESP:** Espainia. **EST:** Estonia. **FIN:** Finlandia. **FRA:** Frantzia. **GBR:** Erresuma Batua. **GRC:** Grezia. **HUN:** Hungaria. **IRL:** Irlanda. **ISL:** Islandia. **ISR:** Israel. **ITA:** Italia. **JPN:** Japonia. **KOR:** Hego Korea. **LTU:** Lituania. **LUX:** Luxenburgoa. **LVA:** Letonia. **MEX:** Mexiko. **NLD:** Herbehereak. **NOR:** Norvegia. **NZL:** Zeelanda Berria. **POL:** Polonia. **PRT:** Portugal. **ROU:** Errumania. **RUS:** Errusia. **SVK:** Eslovakia. **SVN:** Eslovenia. **SWE:** Suedia. **TUR:** Turkia. **USA:** Ameriketako Estatu Batuak.

Ander Perez Zala

Hartu-emanan, modu batera esatearren, azkarra, zeharkakoa eta zuhurra izan zen; datorrenaren gose pizgarria, beste modu batera esatearren. Baina, finean, EB Europako Batasuneko estatu kideen artean sortzen ari den eztabaidaren erakusle: batetik, *Politico* atarian, Annegret Kramp-Karrembauer Alemaniako Defentsa ministroa, EBren eta AEBen arteko «aliantza historikoaren» alde egiten; bestetik, Emmanuel Macron, Frantziako presidentea, *Le Grand Continent*-i emandako elkarrizketan talde komunitarioaren «autonomia estrategikoa» defendatzen. Labur esanda, Paris eta Berlin, europar eraikuntzako eta integrazioako protagonista nagusiak berriz ere gogoeta egiten, esango luke batek baino gehiagok; bada, puntu bateraino, arrazoi osoa luke, Joe Bidenen garaipenak, printzipioz, soilik albiste ona behar lukeelako EBrentzat. Are gehiago kontuan harturik Donald Trumpek zer-nolako amesgaiztoak eta buruko minak eragin dizkien buruzagi europar-

Joe Bidenen garaipenak berritu egin du Europako Batasunak AEBekiko harremanari buruz abiatu duen barne eztabaida: etxeko eta kanpoko testuinguruek ahalbidetzen al dute talde komunitarioa independenteagoa bilakatzea atzerrian?

EBk nahi du, baina ez du nahi

reei. Baina hori gertatu den bitartean, Bruselak beste joera bat abiatu du, eta ez edonolako: atzerrian Washingtonetikiko independenteagoa bilakatzearena, eta, barnera begira, batasun handiagoa lortzearena.

Alde horretatik, Trumpen eta Bidenen garaipenak eragindakoa paradoxa bat da, eta era ezin hobean laburbiltzen du datoen urteetan EBk AEBei begira izango duen barne eztabaida: «autonomia estrategikorako» bidea hasita, horretan jarraitu ala atzera egitea. Litekeena da 2016an Hillary

Rodham Clintonek irabazi izan balu talde komunitarioak gogoeta horretarako pausorik eman ez izana, baina Barack Obamaren garaian jada agertu ziren lehen arrakalak Ozeano Atlantikoaren bi aldeetako aliatuen artean; ha-

Sintonia onenak ere ez du ezkutatuko EBk eta AEBek interes kontrajarriak izango dituztela hainbat auzitan

rrerez geroztik hamar urte besterik pasatu ez diren arren, geroz eta oihartzum handiagoa izaten ari da estatu kideek osatzen duten blokeak beste rol eta pisu bat behar duenaren ideia.

Egia da Bidenen administrazioak nazioarteko aliantzak berreskuratu nahi dituela, lankidetzan arreta jarrita, eta, ziurrenik, Etxe Zurian gehiago aipatuko dituztela Europa hitza eta kontinenteko problematikan. Egia da, baita ere, AEBetako presidente hautatuaren atzerri politikak esfortzu kolektiboetarako nahia berretsiko duela, horren adibide izanik Pa-

risko Hitzarmenera, Irango itun nuklearrera eta Osasunaren Mundu Erakundera itzultzea. Eta egia da horrek, aldi berean, ekarriko duela iraganeko joeretara itzultzea, AEBek historikoki nazioartean beren buruari ezarri dioten buruzagi eta gidari izatearen lanetara.

Testuinguru horren aurrean da, egun, EB. Baina zer esan nahi du,

zehazki, hainbatetan aipatu duten «autonomia estrategiko» hori izateak? Bada, ez dago definizio zehatzik, ezta horri begirako helburu eta estrategia definiturik ere, nahiz eta kontzeptua aspaldidanik den estatu kideen hiztegiaren parte. Eta, agian, horixe bera da talde komunitarioak duen arazo: herrialde bakoitzak bere ikuspegia duela, eta, beraz, norbere geografiaren, historiaren eta lehenetsunaren menpe dauden interesak.

Oinarrian, *autonomia estrategikoa* kontzeptua soilik segurtasunaz eta defentsaz aritzeko erabiltzen zen, Trumpek NATOri begira egindako mehatxuek agerian utzi zuten moduan; agintariak BPGaren %2 defentsara bideratzeko exijitu zien Europako bere aliatuei, hori egin ezean, AEBak Mendebaldearen aliantza militarretik aterako zirelakoan.

Azkenean, ez da halakorik gertatu, baina agintarietako batzuk Europako armada bat sortzearen ideia mahaigaineratzen hasi dira, tartean Frantziako presidentea –2022an presidentetzarako bozaz ditu– eta Angela Merkel Alemaniako kantzilerra –irailaren 26an parlamenturako bozaz dituzte, eta Merkel ez da aurkeztuko–. Hori guztia, kontzeptua batez ere atzerri po-



Alemania-Frantzia
ardatzean, jarrera
kontrajarriak daude. EFE

Bidenen erronkak Europako Batasuna

litikari begirakoa delako; Jean-Claude Juncker Europako Batzordeko presidentea ohiak esan zuen bezala, «subiranotasun europarrari» buruzkoa.

Horrek, estatu kide askoren buruhausterako, ekarriko luke EBk kontrol handiagoa izatea euren atzerrikoari buruzko erabakietan, eta, hortaz, subiranotasuna beste arlo batean ere galtzea; alde horretatik, bitxia da Macronen jarrerara, bere herrialdea baita atzerri politikan aktiboena den EBko estatu kidea. Gainera, balio eta estandar komun batzuk finkatzea eskatuko luke, eta talde komunitarioan bertan denek ez dituzte berberak partekatzen.

Edukia zabaldu egin da

Gainera, COVID-19aren pandemiak «autonomia estrategikoa» esanahia eta definizioa handitu ditu, sektore ekonomikora, teknologikora eta osasun arlora zabaltzeraino. Horri gehitu behar zaio EBk munduan duen pisua txikitzen ari dela, batez ere Txinaren gorakadarengatik, baita Indiaren hazkundeak bultzatuta ere. Hor dago eztabaidaren gakoa: AEBen eta Asiako erraldoiaren artean, talde komunitarioak hirugarren poloa izan nahi al du?

Oro har, «autonomia estrategikoa» eduki eta arrazoi geopolitikoak ditu. Washington bera pixkanaka Pekinera begira jartzen ari da atzerri politikan, hein batean bada ere, Asiako erraldoia bere aurkaririk garrantzitsuena bilakatu baita. Errealitate horren erakusle da bi potentziek Ozeano Bareko irlekin dituzten gatazkak, edota Hong Kongi eta Taiwani buruz dituzten talka etengabeak.

Horrek domino efektua eragin du: munduko parte batean arreta handiagoa jartzea beste batzuetan gutxiago jartzea ekarriko du, eta hori da azken aldian Etxe Zuriri gertatu

zaiona; kasurako, Libiako, Mediterraneo ekialdeko eta Karabakh Garaiko gatazketan izan duen ia eraginik eza, interes geroz eta gutxiago dituelako horietan. Aldiz, EBk badu zer aldarrikatzerik, hango egoerek eragina dutelako kontinentean, gertutasunagatik, eta are gehiago kontuan harturik Errusia eta Turkia betetzen ari direla AEBak libre uzten ari diren hutsuneak. Talde komunitarioak nolako harremana du bi estatu horiekin? Txarra.

Noski, hutsune horiek Trumpen erabakien ondorio dira, bai, baina Obamaren garaian abiatu-riko joera baten jarraipena da, eta, printzipioz, Bidenek aldatzeko asmorik ez duena, Txina izango baita bere atzerri politikako protagonista nagusia.

Etxeko arazoei begira, berriz, zeharka bada ere, hautagai demokrataren garaipena bada albiste on bat EBrentzat, eta txar bat Bruselari hainbatetan desafioa bota dioten Polonia eta Hungariarentzat. Trump munduko lehen potentziaren agintean egoteak batez ere Viktor Orban egin dio

mesede, urteotako joera ultrakontserbadorean sakontzeko beste zilegitasun bat izan baitu.

EBn sartzeko baldintzetako batzuk dira «sistema demokratiko sendo bat izatea, sistema judizial independentea eratzea eta zuzenbide estatua errespetatzea». Baina urteok erakutsi dute talde komunitario barruan egonda ere horiek erabat ez errespetatzea posible dela, hala aritu baitira Budapest eta Varsovia azken hamarkadan.

Joera horrek talka egiten du Bidenek atzerrian defendatzeko asmoa duen doktrinarekin: «Balio demokratikoak eta hedabide independenteak» sustatzea. Praktikan, horrek suposatzen du Hungariarekin eta Poloniarekin talka egitea, baina AEBek bi herrialde horiei begira dituzten interesek puntu mugatu baterainoko gatazka aurreikusten dute. Izan ere, bi estatuak Washington-Brusela aliantza mantentzearen aldeko taldean daude EB barneko eztabaidan, estrategikoki NATO indartsu bat komeni zaielako Errusiaren aurka.

Budapesten kasuan, ez da zurraxede komun hori nahikoa izango denik egungo harremanekin segitzeko. Polo-

niarentzat, berriz, litekeena da hala izatea, Mateusz Morawiecki lehen ministroak hainbatetan zerrrendatu baititu bere herrialdearen «mehatxuak», AEBekin erabat bat egiten dutenak: Txina eta Errusia. Segurtasuna izango da estatuen arteko hartu emanaren auzi giltzarrietako bat, besteak beste, AEBek defentsa ekipamendua saltzen baitiote Poloniari.

Zatiketa geografikoa

Talde komunitarioaren kasuan, eta hasierako protagonistetara itzuliz, honako hau izango da auzia Washingtoni begira: Macronentzat, Etxe Zuriko aldetak aukera bat izan behar du Bruselaren «independentzia eraikitzen jarraitzeko, AEBek eta Txinak egiten duten bezala»; Kramp-Karrembaurrentzat, «AEBen gaitasun nuklearrik eta konbentzionalik gabe, Alemaniak eta Europak ezin dute beren burua defendatu. Hori da errealitate krudela». Agian gakoa Merkelek eman zuen

iragan azaroan, Bideni bozen emaitzengatik zoriontzeko bidali zion mezuan: «harreman berrorekatua» beharrezkoa dela. Horrek, ordea, zer esan nahi du, zehazki?

Talde komunitarioan, eztabaidari aurpegi batzuk jartzearen, Frantziako presidentearrekin bat egiten dute Charles Michel Europar Kontseiluko presidentea eta Josep Borrell EBren diplomazia-buruak; beste aldean daude, Kramp-Karrembaurrekin batera, Merkel bera eta Baltikoko eta Europa erdialdeko eta ekialdeko estatu kideak. Zatiketa, politikoa izateaz gain, geografikoa ere bada.

Horretaz haratago, Trumpen agintaldiak erakutsi du milioika estatubatuarri best axola zaiela talde komunitarioa, estatu kideek dituzten kezkek eta Washington-Brusela aliantzak dituen gorabeherak. AEBak zatituta daude, eta Biden bera ere bai; etxeko kontua den arren, kanpoko erabakietan eragina izango duen auzia da. Eta ez da sekreturik sintonia onenak ere ez duela ezkutatu EBk eta AEBek

interes kontrajarriak izango dituztela hainbat auzitan.

Oraingoz, Bidenen presidentetzaren lehen urteak Bruselaren eta Washingtonen arteko harremana berriz aztertzeko, finkatzeko, definitzeko aukera bat izango dira.



Hungariako Orbanek eta Poloniako Morawieckik aliatu bat galdu dute AEBetan. EFE

Ekialde Hurbilarekiko harremanak gaiztotu egin dira amaitzearen legealdian. Agintari aldaketarekin testuingurua ere irauliko den itxaropena dute askok, Iranek adibidez. Baina baliteke Bidenen lehentasunak bestelakoak izatea.

Bidenek beste alde batera jotzeko zain

Ricard Gonzalez

Txinaren eta Koreako penintsularen ondotik, seguru asko Ekialde Hurbila izango da Trumpen presidentetzaren kanpo politikak arrastorik sakonena utzi duen tokia. Presidente definezin horrek Ekialde Hurbiletik alde egitea erabaki zuen, Barack Obamak hasitako bidean, eta hutsune bat utzi zuen, Putinen Errusiak baliatu duena. Donald Trump, hori bai, gutzi aldatu zuen Iranen inguruko politika, eta lehen baino are gehiago estutu zituen Israelekin, Saudi Arabiarekin eta Egiptorekin Washingtonek dituen aliantzak. Politika horietako asko egiteko ez zegoen AEBetako bi alderdi nagusien adostasuna, eta, beraz, espero izatekoa da Joe Bidenek bidea aldatzea urtarrilean agintea hartzen duenean. Ikusteko dago zenbaterainokoa izango den aldaketa. Lider politiko beterranoak gai hauek izango ditu pil-pilean Ekialde Hurbilean:


Iran

Dударик gabe, Iranen inguruko politikan dituzte desadostasunik handienak Trumppek eta Bidenek. Presidente hautatua berriro atxiki nahi zaio Obamak Teheranekin 2015ean izenpeturiko itun nuklearrari; Trumppek, berriz, 2018an hautsi zuen itun hori ofi-

zialki. Dena dela, Bidenek ez du lan samurrik izango. Izan ere, Irango agintariek iradoki dute kalte-ordainak eskatuko dituztela Trumppek ezarritako zigorrak eragin dizkieten galera ekonomiko itzelengatik. Eta hala iradoki dute, nahiz eta beraiek ere mailaka-mailaka eta ondo kalkulaturik hautsi dituzten itunean hartutako konpromisoak, Trumpen erabakiaren kontrako errepresalia gisa hautsi ere, Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziaren txostenetan diotenez. Islamiar errepublikak askoz ere uranio gehiago du itunak baimendu baino: hitzartu halako hamabi.

Gainera, baliteke AEBetako Senatua, zeina erdibiturik dagoen errepublikanoen eta demokraten artean, itunarekin bat egitearen kontra jartzea, eta beste hainbeste egingo dute eskualde hartan AEBek dituzten aliatuek, hau da, Israelek eta Saudi Arabiak. Horren batera gogoan hartzen bada Iranek presidentetzarako hautakundeak egingo dituela 2021. urtearen erdialdean, eta erregimen hartako sektore atzerakoiei ez zaiela interesatzen lehengo ituna onartzea –horrek erreformistak hauspotuko dituelako–, bada, oztupo handiak daude ituna berri indarrean egon dadin.

Hain zuzen, gaur egungo presidentea, Hassan Rohani, fakzio moderatuaren liderra, ezin da berriro aurkeztu presidentegai izateko, bete baitu bigarren agintaldia. Ez da erraza iragarpenak egitea, baina litekeena da hurren-



Bidenen erronkak Ekialde Hurbila

go presidentea hitzarmenari errezeloz begiratu dion belatz uzkur bat izatea. Arrazoi horiengatik guztiengatik, baliteke AEBek oraingo zenbait isun ekonomiko kendu baino ez egitea beren politika berrian, eta horrek apur bat baino ez luke lasaituko Irango ekonomia, itolarriak jota baitago lehendik.

Qasem Soleimani jenerala erail zuteneko urteurrena izan da oraintsu, eta, horren harira, asko espekulatu izan da posible dela liskarrak piztea irandarren aldeko milizia xiiten eta AEBek Iraken dituzten tropen artean. Jokaleku hori Trumpen eraso baten emaitza izan liteke, bere ondorengoari eginiko opari pozoitsu baten tankerakoa, edo, bestela, baliteke Teheranen mendeku bat izatea, Soleimaniren hilketagatik, baina horrek zailagoa dirudi. Argi eta garbi, edozein istilu bortitzek pikutara bidal litezake itun nuklearrari buruzko negoziazioak.

Palestinako gatazka

Beharbada, Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroa izango da Trumpen porrota dela-eta kolperik latzena hartu duen munduko buruzagia, Netanyahuaren irudiko Trump baitzen «Israelek Etxe Zurian inoiz izan duen lagunik onena». Dena dela, Bidenek, senatari gisa egin duen ibilbide oparoan, beti bat egin du Washingtonen alde egindako politikarekin, eta ez du babestuko Tel Avivi urtean ematen zaion 2.470 milioi euroko laguntzaz baliatuz Israel estutzea palestinarek zerbaitean amore eman dezan, Bernie Sanders hautagai demokratikaren proposatzen zuen bezala. Hain zuzen, Bidenek oniritzia eman berri die Arabiar Emirerri Batuek eta Bahrainek - Trumpen babespean - Israelekin adosturiko normalizazio itunei.

Biden, hori bai, Trumpen politikaren ertzak leuntzen saiatuko da, eta horrek zenbait gauza ekarriko ditu: Palestinaren Washington ordezkaritza berriz irekitzea; Palestinako instituzioei berriz laguntza ematea, besteak beste makal dabilen agentzia bati, UNRWari; eta bi estaturen konponbidearen parametro klasikoetan oinarritutako negoziazioak babestea. Nolanahi ere, ez dirudi Bidenek asmorik duenik atzera botatzeko Trumpen bi erabaki nagusiak: AEBen embaxada Jerusalemera mugitu izana eta Israeli Golanen gaineko subiranotasuna aitortu izana.

Alegia, lehengo *statu quo* di-

plomatikoa itzuli egingo da nolabait, azken hiru hamarkadetan gatazkari konponbidea aurkitzeko gai izan ez den hori bera. Edonola ere, aintzat hartu behar da Israelen jokaleku politikoa ez dela batere egonkorra - martxoan hauteskundeak egingo dituzte, bi urtean laugarren aldiz -, Palestinako aldean ez atzera ez aurrera dagoela egoera politikoa - azken hauteskundeak 2006an egin ziren -, eta, gainera, Bidenek presazko helburuen zerrenda luze bat izango duela. Hori guztia kontuan hartuta, espero izatekoa da Palestinako gatazka ez duela sartuko kanpo politikaren lehentasunen artean.

Afganistan

Irailaren 11ko erasoan harira AEBek Afganistan inbaditu zutenetik ia hogeitaz gero diren honetan hartuko du kargua Bidenek; hain zuzen, AEBek urte batzuk eman dituzte gerra hori amaitzeko ahaleginean, AEBen historiako gerrarik luzeena baita dagoeneko. Egun, 2.500 soldadu estatubatuar baino gehiago daude Afganistango lurretan, hango armadari laguntzen talibanen aurkako borrokan. Mugimendu fundamentalista horrek eta Trumpen administrazioak akordio bat sinatu zuten iaz: su-etena hitzartu zuten, eta adostu zuten Washingtonen soldaduak erretiraratu zituela Asiako herrialde horretatik datorren maiatzerako.

Hala ere, ez dago argi Biden prest dagoen tratua betetzeko, eta baliteke militarrek erretiratzeko eguna negoziatzen saiatzea. Buruzagi talibanek baztertu egin dute akordioan ezer aldatzea, eta ziurtatu dute tropak Afganistanen mantenduz gero liskarrak piztuko direla berriro. Gainera, ez dago batere garbi zer ekarriko duen talibanak eta Afganistango Gobernu Dohan egiten ari diren negoziatioek; Trumpen administrazioak babesa eman dio prozesu horri, baina hilabeteak dira negoziatioak geldirik daudela, eta bi aldean arteko mesfidantza oso handia da.

Teorian, elkarrizketen helburua erreforma politikoa bat adostea da, mugimendu fundamentalistak modua izan dezan armak lizitu eta herrialdeko bizitza politikoan sartzeko. Horretarako oztipo nagusia erregimen politikoa berriratu izana da; izan ere, talibanek behin eta berriz esaten dute «errepublikan islamiko» bat izan behar duela, eta horrek kezka handia sortzen du sektore laikoan

eta emakume askoren artean, kontuan hartuta talibanek Erdi Aroko irizpideak erabili zituztela boterean egon zirenean. Noraino iritsiko da Bidenek talde horiekin duen konpromisoa?

Siriako eta Libiako gatazkak

Siriako eta Libiako gatazka armatuetan, Bidenek orain arteko ikuspegiari eutsiko dio, eta hala ere egingo du Iraken ere. Irak asaldatu dago oraindik ere, eskualdeko potentzien botere borrokan erdigunea bihurturik. Siriari dagokionez, Bidenek adierazi du iparraldean tropak edukiko dituela orain arte bezala, baina informazio gutxi dago presidente hautatuaren ikuspegiari buruz. Espero izatekoa da Al-Assaden erregimenari jarritako zigor ekonomikoie ere eustea, hura berre-raikitzea zailtzen baitute: hala, Al-Assad amore ematera behartuta, prozesu politikoa serio bat ireki nahiko du Bidenek, trantsizio bat ekar dezakeena. Halaxe adierazi zuen Anthony Blinkenek, Bidenek Estatu idazkari izateko aukeratu duen politikariak, nahiz eta plan utopiko bat dirudien, errealista baino gehiago. Agian, milizia kurduei babes handiagoa ematea izango da aldaketa nagusia, milizia horiek erabakigarriak baitira Estatu Islamikoaren porroterako.

Bidenek, senatari gisa egin duen ibilbide oparoan, bat egin du Washingtonen Israelekin egindako politikarekin

Sirian, agian, milizia kurduei babes handiagoa ematea izango da aldaketa nagusia

Libian, babes handiagoa emango dio Libiako fakzioen arteko negoziatio politikoa, NBKek babesten duen bidean. Herrialde horretan Sirian baino aukera hobea dauka zerbaite egiteko, eta aldaketa txikiren bat eragin lezake Trumpen administrazio politikan. Hark begi onez ikusten zuen Errusia gero eta gehiago sartzeko Libian, eta Arabiar Emirerri Batuek azpizjokoan aritzea Khalifa Hafter jeneral errebeldearen alde. Baliteke Bidenek, Libiako lizotzari habian kapital handirik arrikatu gabe, Washingtoni protagonismo handiagoa ematea gatazka horretan, eta Mosku indargabetzen saiatzea, Ankararekin batuta; Tri-

poliko Gobernuaren aliatua da Ankara, eta Hafterren etsairik okerrean.

Saudi Arabiako ardatz autokratikoa

Trumpen garaiarekin konparatuta, aldaketa nagusietako bat zera izango da, berriz ere giza eskubideak babestea, berriz sartuko baitira Estatu Batuen kanpo politikaren agendan. Hala izango da, noski, horrek «nazioaren interes» garrantzitsuei eragiten ez badie. Dena dela, aldaketa hori berri txarra izango da Egiptoko, Arabiar Emirerri Batuetako eta Saudi Arabiako erregimentzat. Saudi Arabia izan zen Biden garaipenagatik zoriondu zuten azken herrialdeetako bat. Hiru herrialde horiek, diktadura zorrotzak denak ere, eskualdeko ardatz politikoa nagusietako bat dira.

Al-Sisi mariskal egiptotarrak - Trumpen «nire diktadore gustukoena» deitu zion horrek - badu arrisku bat: Estatu Batuek izoztea urtero ematen dioten laguntza eskerga (823 milioi euro baino gehiago). Europako Batasunak Washingtonekin bat egingo balu, agian Kairok neurtu egin beharko luke oposizioaren kontra egiten duen errepresio ezinagotz: milaka atxilotu izan dira, eta milaka hil.

Bere garaian, Biden oso kritikoa mintzatu zen Jamal Khashoggi kazetari saudiarabiarren hilketazela-eta; CIAk oinordeko printzeari egotzi zion agindua eman izana, Mohamed Bin Salmani. Dударik gabe, Saudi Arabiarekiko harremanak hoztu egingo dira, eta baliteke beste hainbeste gertatzea Arabiar Emirerri Batuekin ere; horrek bultzada bat ekar lezake Yemengo gerra negoziatio bidez bukatzeko, baldin eta matxino huthiek malguxeago jokatzen badute. Bidenek ez du batere begi onez ikusi AEBek gerra hori sustatzea - munduko giza hondamendirik handiena eragin du gerra horrek -, Washingtonen egitan estutuko balu, posible litzateke Golkoko herrialdeetan aldaketa aurrerako txikitxo batzuk izatea, baina hori baino ez.

Bidenentzat, pandemia kontrolatzea eta AEBetako ekonomia suspertzea izango da helburu nagusia. Oro har, kanpo politika neurritsu bat egingo du, eta ez du izango kanpo politikoa handirik eskatzen duen asmo handinahirik. Azken batean, ez du inor engainatuko, zentroko plataforma batean aurkeztu baitzen herritarren aurrean.

«Funtsetarako lehia proiektuena izatea espero dut, Europak esaten duen bezala»

Pedro Azpiazu • Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburua

Espainiako Gobernuak Europako funtsen banaketaz argibide gehiago ematea nahiko luke Azpiazuk. 2021ak zerga erreformaz gogoeta egiteko urtea izan behar duela uste du.

Irune Lasa Bilbo

Kopuru handiak darabiltza esku artean Pedro Azpiazu Uriartek (Bilbo, 1957): pandemiaren kalte- ei aurre egin eta ekonomia suspertzeko balio behar duten aurrekontuak, arnasa handia eta aldaketa handiak ekar ditzaketen Europako funtsak... Elkarrizketaren aurretik oposizioko alderdie- tako batekin bilera egin du, aurrekontuei buruz, baina fronte horretan berrietasun gutxi espero daiteke, gobernua Eusko Legebiltzarrean duen gehiengo bide. Europako funtsekin, berriz, Euskadi Next programa osatu berri du Azpiazuren sailak. Proiektuen zerrenda mardula izango du arma nagusia Madrilen, Europa- ko diruak banatzeko zabalduko den frontean.

Lehendabizi ekonomia- ren egoera galdetu behar. Pandemi- an gaude, badirudi hirugarren ola- tua hemen dela. Badago beste atzeraldi baten beldurrik?

Halakoetan maximalismo eta- rako joera izaten da, baina ni zuhur- tasunaren alde egiten dut, eta ez dut zorritarren iragarle izateko asmorik. 2020. urtean ekonomia asko erori da, baina, ziurrenez, erorketa ez da aurretik pentsa- zen genuen bezainbestekoa izan. 2021erako, berriz, %8,6ko haz- kunde aurreikuspen dugu, eta, beraz, ez da konpentsatuko 2020ko erorketa guztia, baina jar- dueraren eta enpleguaren zati handi bat berreskuratuko da. Gero, gauzak okerrago edo hobe- agoak izango diren, osasun egoe- raren eta hartzen diren neurrien

araberakoa izango da. Baina, pentsa dezakegu aurten ekono- mia zati batean berreskuratuko dela, eta 2022an 2019ko tasak be- rreskuratuko direla.

Hurrengo urteak inportanteak izango dira. Egoera hain berezia da, ezen Europak eskua zabaltu baitu defizitak baimenduz. Baina kezka badago noiz itzul daite- keen zorroztasun fiskala, ez dela berdin izango austeritate- rekin lotutako neurriak 2022an badatzo edo 2023an.

Faktore asko daude hor, eta ziu- rrenez gaur Europak ere ez daki zer gertatuko den. Europa jabetu- ta dago finantza krisian ez zuela bere egitekoarekin asmatu, *aus- terizidioarekin* ekonomia batzuk egoera okerragora eraman zitue- la. Orain, ekonomia beste erorketa handia iritsi denean, malgutasunaren alde egin du, defizit publikoarekin eta zorpetze- arekin. Nire ustez, asmatu egin du, baita Euskadiri dagokionez ere, zorpetze ahalmen handia dugula- ko, zor txikiarekin. Horrek orain gasturako aukera ematen digu, arazo handirik gabe zorpetuz. Are gehiago interes tasak horren txi- kiak direnean, eta zorpetzea ho- rren larria ez denean. Momentu- ren batean, ekonomia suspertzen denean, guztiok COVID-19az ahaizten garenean, gehiegizko zorpetzeak birbideratzen hasi be- harko dira. Baina, bideratze ho- rrek, ez dago beste modurik, oso mailakatu eta etorri beharko du; hain zuzen, politika horiek ez dai- tezen kaltegarriak izan. Espero dut Europa buruargia izango dela horretan.

Aurrekontuei buruz, anbizio- tsuak zirela esan zenuen, inoren ezezikorik ez jasotzeko modu- koak.

Pixka bat bilbotarkeria zen hori esatea, baina neurri batean sines- ten dut. Aurrekontu hauetan ahalegin handia egiten da. Aurre- ko urteetan igoerak izan dira, ur- tero 300 milioi euro ingurukoak, ekonomia hazkundeko garaiak izanda ere, Europaren mugak zeudelako gastuari eusteko. Orain, muga horiek gabe, gastua modu garrantzitsuan handituko dugu, uste dugulako gastu handia beharrezkoa dela COVID-19ari aurre egiteko eta jarduera ekono- mikoa bultzatzeko.

ELAk dio gastua egiaz soilik %3 handitzen dela.

Azal diezadala hori nola den... Edonola ere, aurrekontuak beste aurrekontuekin alderatu behar dira. 2021eko aurrekontuak oso- taria eta Y grekoa eta Hegoaldeko Tren Saihesbidea aparte utzita, nik beti diot aparte utzi behar di- rela, esan behar da inbertsioa %6,4 hazten dela, eta hori oso gai garrantzitsua da. Aurrekontu he- dakorrek dira, batera zekenak ez.

Euskadi Next. Mereziz zuen ho-



rren gai inportanteak gardenta- sun handiagoa, adibidez, ze- rrenda osatzerakoan?

Ez dut uste oso bidezkoa denik gardentasun falta leporatzea. Kontu bat dago horren aurretik: nola edo hala ibili gara Euskadi Nexten inguruan eta proiektuen inguruan nola funtzionatu jaki- ten, ziurgabetasun handia dago, inkognita ugari, datu falta... Be- raz, ez zen erraza talde parlamen- tariok eskatzen zutenean gau- zak asko argitzea, ez zirelako ezar- ta. Batzordean agerraldia egin dugu genekien guztia konta- tuz. Bilkura monografiko bat ere izan da, ez zegoenean informazio handirik.

Gainera, asmoa ez da izan soilik zerrenda bat egitea, proiektuak paperean jarri eta dirua lortzea. Izan ere, benetan sinesten badu- gu Europaren diskurtsoa, hau au- kera bat da eraldaketa energeti- korako, digitalerako, sozialerako, parte hartze pribatuarekin ere. Horrek guztiak sendotasuna ematen dielako, solbentzia, gaita- sun eraldatzaile proiektuoi. Hori

izan da lanerako espiritua; urte bukaerarako Espainiari agiri sen- do bat aurkeztea. Jakina, hori guztia plaza publikora batzar mo- dura aterata, ziurrenez ez ginen inora iritsiko. Oraindik ariko gi- nateke lehen proiektuaren lehen puntua eztabaidatzen. Eta, bes- talde, gauza bat argi dago: gober- nuarena da Espainiari agiri bat aurkezteko ardura.

Proiektuen kokapenak eman du zeresanik. Lurraldean arteko orekaz kezka bat azaldu da. Eta proiektuetako asko koka- tzeko daude oraindik.

Herri ikuspegi batekin egin dugu hau, logikoki lurraldean artean oreka jakin bat gordez. Baina Mad- rildik dirua partitzeko kutxa- txoak jartzen hasten bagara, eta bertan ere kutxatxoekin hasten bagara proiektuak banatzeko, ziurrenez, emaitza hutsa izango da, zero. Guztiok malgutasun do- siak behar ditugula uste dut, ore- ka jakin bat bilatzeko bai, baina ez %51-%33-%15 banaketaren ara- bera. Horretarako, baliabideak partituko, badaukagu Finantzen Euskal Kontseilua. Nik uste dut proiektuak onak badira herrial- dearentzat, erakundeak gai izan- go garela ulertzeko hoberena dela



MARISOL RAMIREZ / FOKU

txertoa jarri behar. Gobernuak uste du Europaren politika hori zuzena dela; are gehiago, guk sinesten dugu Europak aurkeztu dituen transformaziorako zazpi diloeetan.

Diru asko eskatu duzue. Kopuru bat dago hor, errekeperazio mekanismoko 5.700 milioi euro, 13.135 milioi euro erakaritzeko. Estimazio bat da, gure us-tez arrazoizkoa, baina ikusi behar harko da gero zein den errealtatea, asko edo gutxi den. Saiatuko gara ahalik eta gehien izan daitez-gen; hori da gure helburua.

Hasieran zalantzan jarri zen Italia eta Espainia gai izan daitezkeen itzelezko laguntza horiek digeritzeko; proiektuak izateko, baldintzak eta epeak betetzeko.

Aurrekoan Sanchez presidentek ere kezka hori agertu zuen administrazioen gaitasunaz. Ez da erraza. Inbertsio bolumena horren inportantea da, ez da erraza epeak bete ditzaketen proiektuak izatea. Guk, administrazio gisa, gauzak erraztuko ditugu, baina aldaketa batzuk egin beharko dira; Madrilen planteatu dira arau aldaketak, eta gure araudietara ere eraman beharko dira, sistema arinagoa izan dadin kontratazio-etarako eta halakoetarako. Ez daitezela baliabideak paralizatu eta epeak galdu kontu administ-ratibo edo legal batengatik. Baina argi dago arrisku bat badagoela, ondo inbertitzea eta epean inbertitzea ez delako erraza. Inbertsio hauek guztiak 2021, 2022 eta 2023an konprometitu behar dira, eta 2026ko abuztura-ko guztiak egon behar dute egin-da. Hori bai, ezagutzen dugu Euro-pa. Beti zazpi urteko planekin hasten dira European, eta gero gauzak luzatu egiten dira.

Lan mardula egin duzue Euskadi Nextekin, baina orain Madril-en izango duzue lana. Beti aipatu duzu inkognita asko daudela banaketaren inguruan. Jakin du-zue zerbait gehiago?

Egunetik egunera ari gara gauza

puntualak jakiten. Niri argitasun askoz handiagoa izatea gustatuko litzaidake. Oraindik ez da Ogasun ministroarekin harremanik izan, eta hark koordinatuko du gaia Madril-en. Ez da bilerarik izan, ez daukagu klaberik. Pixka bat isil-pean ari gara lanean, informazio bila; baina, tamalez, guztiok ber-dina dakigu: gutxi. Eta denbora aurrera doa. Ikusiko dugu egune-tik egunera. Jendea beharko dugu lanean, kudeaketa politikoa be-harko da, indar guztiak erabili be-harko dira. Horretarako gaude.



[Funtsetarako proiektuen zerrendatzea] plaza publikora batzar modura aterata, ez ginen inora iritsiko»

Borroka latza espero daiteke erkidegoen artean, ezta? Ezingo da gigafaktoria bat jarri erkide-go bakoitzean.

Nik benetan espero dut funtseta-rako lehia proiektuena izatea, Euro-pak esaten duen bezala. Proiektu onenentzat eta haiek egiteko gaitasuna duenarentzat izatea baliabideak. Dena den, guztia soi-lik proiektuen bidez, komatxo ar-tean zientifikoki, banatuko dela pentsatzeko bezain xaloak ere ez gara izango. Izango direlako bo-rroak erkidegoen artean, diru kontua delako. Nik espero dut di-rua proiektuetatik kanpoko iriz-pideekin partitzeo tentazioa txi-kiak izatea.

Europako Batasuna ere hor izango delako, zaintzen?

Espero dut Europa hor egotea zaintzeko, hori gustatuko litzai-dake. Guk ez dugulako ezer ezku-tatzeko, eta plan on bat dugulako, proiektu oso lehiakorrek. Nahi-ko genuke europar arauak jarrai-tzea, eta ahal den neurrian inter-ferentzia politikoak ekiditea. Guk proiektuekin egiten dugu apustu.

European izango duzue aterik? Printzipiozate horiek itxita daude

European. Han esan dute ezin di-rela mundu guztiarekin harre-manetan hasi, eta estatuekin ari-ko direla. Baina egia da estatu des-zenralizatueta, erkidegoak gure kasuan, Europako arauak esaten du erakunde deszentrali-zatu horiek erabili egin behar di-rela, proiektuek etorkizun hobea izan dezaten. Guk horri balioa emateko asmoa dugu.

Zergei buruz ere galdetu nahi ni-zun. ELAK dio zerga igoera be-harrezkoa dela, baina aipatu izan duzu ez dela garaia.

Zerga guztiak dute izaera uzkuertzalea, ez baduzu zorpetzearekin konpen-tsaturen gastuaren alde-tik. Eta une honetan hazkundera sustatu nahi badugu, ez dugu kohe-rentea ikusten kontrako norabidea hartzea. Gas-tua handitzeko zorpetzea handi-tzea aukeratu dugu; besteak beste, interes tasa txikiak ikusita.

Nik esan dut ez dela garai egokia zergak igotzeko, baina uste dut ere badela garaia pentsatzen has-teko etorkizunera begira zer egin behar den zergen inguruan. Ari gara proposamen batzuekin bueltaka, Zergen Koordinaziora-ko Organoaren mahai gainean jartzeko eta aztertzeko. Jaurlari-tzaren eta diputazioen artean joango gara ikusten zein diren batzuen eta besteen planteamen-duak.

Beraz, zerga erreforma buruan du oraindik Pedro Azpiakuz.

Uste dut urte honetan gogoeta hori egin behar dugula. 2022an neurriak jartzen hasteko, betiere egoera ekonomikoa zuzendu badea. Izan ere, lehen aipatu du-gun bezala, oso posible da noiz-bait Europa eskatzen hastea aurr-eko defizit mailara itzultzeko, modu mailakatuena bada ere. Eta horrek politika publikoetan mur-ritzaketak eragiterik ez badugu nahi, osagarri bat beharko da zerga erreformatik etor daitezkeen baliabideetatik.

hori, gauzak derrigorrez BPGaren arabera edo koeffizienteka bana-tzea baino. Eskuzabaltasuna be-har da hor.

Alkate batzuek kezka agertu dute Europako diru horiek uda-letara ez direla iritsiko. Diote Euskadi Nextek hiriburuak soi-lik hartzen dituela kontuan.

Mundu guztiak nahi ditu funtsak, baina azter dezagun funtsen mui-na; proiektu eraldatzaileei lotuta-ko funtsak dira, eta horrek jada baldintzatzen du egitasmoen di-mentsioa. Horrek ez du esan nahi diruak ez direnik joango udaleta-ra. Adibidez, funtsak izango dira

etxebizitzaren birgaitze proiektue-tarako, edo zonaldeetarako... Eta baliabide horiek daudenean, go-bernuak jarritako planen arabe-ra, proiektuak aurkezteko aukera izango da. Enpresa ertainekin eta txiki-ekin ere berdin gertatuko da, adibidez, obra publikoaren bitar-tez egongo da bidea, eta prest egon behar dute horretarako.

Badago jendea esaten duena ez direla funts horiek eskatu behar, haiek datozen baldintzengatik eta erreformengatik. Kapitalari Planto mugimendua, esate-rako.

Badago jendea ere dioena ez dela

GERATU ETXEAN! **ANGULAS** OSPATU ETXEAN!

IBAI GUNE - IBAIALDE

ETXEZ ETXEO ZERBITZUA, 500 G-TIK AURRERA

DANBORRADAKO SUSTAPENA
33 € / 100 g
330 € / kg

NON GAUDEN:
 *BRETXAKO AZOKA, PT4. TEL.: 648- 15 75 19
 *URRAKI MERKATARITZA (ZIZURKIL). TEL.: 620-10 73 69
 *LA MAREA ARRANDEGIA (ANTIGUA). TEL.: 943-22 83 43
 *TXARO ARRANDEGIA (EGIA). TEL.: 943-27 77 05

*AGUADO ARRANDEGIA (GROS). TEL.: 943-27 65 76
 *DAVID ARRANDEGIA (AMARA). TEL.: 943-45 55 15
 *MARI CARMEN ALONSO ARRANDEGIA (INTXAURRONGO). TEL.: 655-70 85 79

648 15 75 19
625 24 58 98
687 94 65 28

Jaurlaritza eta Elkarrekin Podemos ez dira ados jarri aurrekontuetan

Koalizioak dio ez dela baldintzarik egon
 • Azpiazuk esan du Elkarrekin Podemosek «bertigo politikoa» izan duela • 97 milioi euroko proposamena zegoen mahaiari

Maidar Galardi F. Agirre

Azken bi egunetan hirutan bildu dira, baina ez dute hitzarmenik lortu azkenean. Oraindik, ordea, koalizioak aztertzeke du osoko zuzenketa aurkeztu ala ez. Azpiazuk, berriz, esan du azken bi egunotan arlo hauetan egin dituela proposamenak: osasuna; zaintza; berdintasuna eta genero indarkeria; gizarte babesa eta inklusioa; hezkuntza; etxebizitza; enplegua; eta ingurumena eta energia. 97 milioi euroko kostua zuten. Hortik «harago» joan direla ere azpimarratu du. Horregatik, gaitzetsi egin du koalizioak akordioa ez onartu izana: «Ez daukat argi nola kokatu ezezkoa; ez dakit bertigo kontua izango ote den».

Koronabirusaren ondorioz sortutako egoerak aurrekontu «berrezi» batzuk eskatzen dituela aitortu dute bi aldeek, eta «zintzoki» negoziatu dutela azpimarratu dute denek. Jaurlaritzak egindako azkeneko proposamenean jaso zituzte, haien esanetan, kaltetuen gelditu diren sektoreetako diru sorta gehiago. Osasungintzan, 20 milioi euro gehiagoko proposa-

mena egin du Jaurlaritzak; berdintasunaren arloan, bi milioitik gora; eta hezkuntzan, bost milioi.

Gorrotxategik, ordea, ohartarazi du Azpiazuk esan duela gobernua «ezin» duela eta ez duela «harago joan behar». Hortaz, eten egin da negoziazioa, nahiz eta koalizioa «azkenera arte» saiatuko den akordioa bilatzen.



Miren Gorrotxategi eta Iñigo Martinez, Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldi batean. RAUL BOGAJO / FOKU

mena egin du Jaurlaritzak; berdintasunaren arloan, bi milioitik gora; eta hezkuntzan, bost milioi.

Gorrotxategik, ordea, ohartarazi du Azpiazuk esan duela gobernua «ezin» duela eta ez duela «harago joan behar». Hortaz, eten egin da negoziazioa, nahiz eta koalizioa «azkenera arte» saiatuko den akordioa bilatzen.

Datozen urratsak

«Argi dut Euskadik aurrekontu handiak izango dituela, murrizketarik gabe eta austeritatekin urrun», esan du Azpiazuk bilera ostean. Oroitarazi du aritmetikoki beste taldeen beharra ez badute ere akordioa zabaldu zela helburua: «Zintzotasunez saiatu gara. Ausardiarekin eta intentsitatez. Benetan uste dugulako ohiz kanpoko egoera bat dela hau, eta egoera horri begira egon beharko genukeela. Uste dut lehen urratsa izan daitekeela beste gai batzuetan babesa lortzeko». Orain, Elkarrekin Podemosek «baloratu» egin behar du osoko zuzenketa aurkeztu ala ez.

EH Bilduk bigarren kongresuari ekin dio Nazio Batzarrean

M.G.F.A.

Martxan da EH Bilduren bigarren kongresua. Atzo hasi eta maiatzera bitarte, abian jarri dute talde subiranistakoen zuzendaritza berria aukeratzeko prozesua. Atzo onartu zuten araudia, Ohiko Batzar Nagusian, eta, berme batzordea hautatuta, batzarrak eta eztabaida saioak egingo dituzte herri hurrengo hilabeteetan. Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiak esan du kongresua «urrats kualitatibo bat» egiteko aukera dela: «Helburua EH Bildu indartzea da. Ez sigla jakin batzuk indartzeko, herri proiektu bat indartzeko baizik».

800 kideetik gora elkartu dira ohiko batzarrean, eta Otegi hartzartzea egin du egungo testu-

guruaren gaineko interpretazioa egiteko. Bigarren kongresuan orain arte egindako bidean sakontzea nahi du, eta, horretarako, lau arlotan indartzeko erronka luke taldeak: ikuspuntu nazionala, askatasun nazionala, pandemia eta horren ondorio sozialak, eta EH Bildu tresna politiko eraginkorra bihurtzea».

Urteurrena eta bilakaera

Gainera, indar subiranistaren hamargarren urteurrena ospatzen hasia da talde politikoa –aurrena Bildu gisa egin zuten lan; orain, EH Bildu moduan-. Ordutik taldea osatzen zuten Aralar desegin da, esaterako, eta 2017an egin zuten aurreneko kongresua. Hartan, Otegi izendatu zuten taldeko koordinatzaile nagusia.

AIZTONDOKO ESKOLA PUBLIKOAK



PEDRO M. OTAÑO
HERRI ESKOLA
ZIZURKIL



ALKIZAKO
HERRI ESKOLA

Aurrematrikula:
urtarrilaren 18tik 29ra



SAN MILLAN
ESKOLA
ZIZURKIL



PELLO ERROTA
herri ikastetxea
ASTEASU - Elizmendi z/g



baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa



ERNIOBEABHI
AMASA-VILLABONA



Larraulgo
eskola



ADUNAKO
HERRI ESKOLA

Bultzaka, eror dadin

Sortuk deituta, milaka lagun batu dira Iruñean, Espainiako koroaren aurkako protestan • Elkertasuna adierazi diete urriaren 12ko auzipetuei

Ion Orzaiz Iruñea

Franco, Juan Carlos Borboikoa eta Felipe Borboikoa, elkarren ondoan eta buruz behera, foruen monumentuaren azpian. Iruñe horrek amaitu zen atzo Sortuk Iruñean egin zuen protesta. «Inpunitatearen sokak lotutako hiru estatubururen erretratuak», nafarren burujabetza aldarrikatzen duen ikurraren aurrean iraulita. Hori zen, finean, atzoko manifestazioaren helburua: agerian uztea «egungo erregea eta frankismoa lotzen dituen katea», eta, aldi berean, sostengua adieraztea iazko urriaren 12ko protestagatik Espainiako Auzitegi Nazionalen deklaratu beharko duten hamabi gazteei.

Egun hartan, Kristobal Kolonen estatua bat eta Felipe VI.a Espainiako erregearen beste bat eraitsi zituzten Iruñeko Diputazio Jauregiaren aitzinean. Ekintza horren garrantzia azpimarratu zuen atzo Kizkitza Gil de San Vicente, Sortuko Kontseilu Nazionalako kideak, manifestazioaren bukaerako ekitaldian: «Errege berria errege zaharri esker da estatuburua; errege zaharra, Francori esker; eta Franco, altxamendu frankistari esker. Urriaren 12an egin genuen ekitaldi sinbolikoan kate hori jarri nahi izan genuen agerian, inposatu ditugun erregimena apurtzeko beharra aldarrikatzeko».

Milaka pertsonak bat egin zuten helburu horrekin atzo. Antoniutti parkean zabaldu zuten *Eroriko da!* lelodun pankarta, eta, haren atzean, hiru ilara paralelotan kokatu zituzten manifestariak, COVID-19aren aurka-

ko segurtasun tartea bermatze aldera. Antoniuttitik aterata, Armadaren etorbidean gora abiatu zen protesta, eta orduantxe entzun ziren lehen oihuak: «Errege-erreginak eroriko dira!», «Gora euskal errepublika!», «Independentzia eta sozialismoa!» eta «Erregimen frankista eroriko da!» izan ziren ibilbide osoan gehien errepikatutako leloak. Militarren egoitzaren paretik igarotzean, ordea, «Alde hemendik, utzi bakean» oihukatu



Gazteen aurkako erasoak erregimenaren erreakzioak dira: hemen eta Espainian ireki diren agertoki berrien aurka»

Kizkitza Gil de San Vicente
Sortu

zuten manifestariak, ozen. Jende ilararen aurrealdea Sarasate pasealekura iritsita, Lluís Llachek konposatutako *L'estaca* abestiaren euskarazko bertsioa entzun ahal izan zen bozgorailuetatik.

Bere hitzartzean, Gil de San Vicente salatuta zuen «lotura es-tua» dagoela frankismoaren, Espainiako koroaren eta egungo sistemaren artean, eta trantsizio garaian kokatu zuen lotunea: «Trantsizioa tutelatutako prozesu bat izan zen, marketin operazio bat, dena ongi lotuta uzteko. Horrek bermatu zuen, alde bate-tik, hierarkia frankistaren inpunitatea, eta, bestetik, haiendako onuragarria den sistema ekonomiko bat».

Hori dela eta, monarkia aurre egitea «sistema supremazista es-


painiarra» salatze modu bat dela berretsi zuen: Koroari tiraka, «erregimen osoa eraisteko eta ordezkatzeko» bide bat.

Sostengua gazteei

Monarkiaren kontrako manifestazioa bainoago, Espainiako sistema politiko, sozial eta ekonomikoari aurkatzutako osoko zuzen-keta izan zen atzokoa. Hori dela eta, urriaren 12ko protestarengatik deklaratu beharko duten gazteei elkertasuna adierazteaz gain,

Gil de San Vicentek gogoan izan zituen zabalik diren hainbat auzi ere: «Eskandalagarria izanagatik ere, ez gaitu ezustean harrapatu gazte hauen kontrako erasoak, eta ez gara harritu azken hilabetean gertatu diren beste eraso batzuen aurrean ere. Gasteizen salatzen ari direna, esaterako. Hor dugu *Bateragune* auziko epaiketa berregiteko erabaki lotsagarria ere, edota ziklo armatuaren sumario zaharren baitan erailkitzen ari diren auzipetze berriak». Sostengua adierazi zieten auzipetu guztiei.

Sortuko bozeramailearen esanetan, auziok erakusten dute Espainiako Estatuak «mehatxu-pean» ikusten duela bere burua: «Erregimenaren erreakzioa da, euskal lurraldeetan, Katalunian eta Espainian irekitzen ari diren agertoki berrien aurkakoa». Espainia «krisi sakonean» dagoela esan zuen Gil de San Vicentek, eta arrakalan sakontzeko deia egin zuen: «Aukera berriak zabal ditzaugun, Euskal Herriarentzat, Nafarroarentzat».



Kizkitza Gil de San Vicente, atzoko protestaren ostean. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Bigazteren epaiketa salatzeo protesta Gasteizen

+ Milaka lagun batu ziren atzo Gasteizen, Ankerkeria Stop plataformak deituta, Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen aurkako epaiketa salatzeo. Hurrengo ostegunean hastekoa da epaiketa, Espainiako Auzitegi Nazionalen. Andre Maria Zuriaren plazatik abiatu zen manifestazioa, *Ankerkeria Stop! Aitor eta Galder*

aske! lelopean, eta jende ilara luze batek zeharkatu zituen hiriburuko kaleak. Protestaren bukaeran, auziaren izaera politikoa nabarmendu zuen plataformak: «Erregimenaren estamendu faktikoek iraganari lotuta mantendu nahi dute Euskal Herria, eta euskal herritarrek espeteratzeko butzada politikoa duen prozesu berri bat bultzatu dute». Fiskaltzak zortzina urteko kartzelaldia eta zazpi urteko zaintzapeko askatasuna eskatu ditu Barbado eta Zelaia-arentzat.

ZARAUZKO IKASTOLA Herriarena

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!

Urtarrilaren 18tik 29ra
9:30etik 17:30era

ZATOK IKASTOLA EZAGUTZERA!

Bilera informatiboa
URTARRILAK 21 - 18:00eta

ATEAK ZABALIK

Azken Portu / Ixpilla / San Pelaio
URTARRILAK 16 eta 23
10:00etatik 13:30era

Hartu zure hitzordua:
labur.eus/zarauzkoikastola



Jean Castex Frantziako lehen ministroak ostegunean iragarri bezala, Ipar Euskal Herrian etxeratze agindua 18:00etatik 06:00ak artekoa da orain, eta atzo izan zen neurria aplikatu beharreko lehen eguna.

«Lanean ari bazara, argiki izorratua zara»

Joana Ibgargai Leritza Baiona

Goizik, 16:30ean hasi da inarrosen Baiona; pertsonak harat eta honat, eta beste zenbait, karrketan, lerroan hara-kindegira edo okindegira sartze-ko beha. Batzuk pazientziak, besteak gutiago. Eta pazientziarik ez aipa «izorratua» den langileari.

Dendetako ateetan hainbat afixa agerian dira, eta horrela irau-nen dute ondoko bi asteetan, be-deren –ez da zehaztua noiz arte aplikatuko den neurria–. «Itxiera 17:00etan, itxiera 17:30etan», idatzirik dute. Zenbait, goizago ere. 16:30ean hetsi behar dute batzuek. Arrandegi karrikako den-da baten kasua da, hain zuzen ere. Ezkontzetako arropak saltzen dituzte bertan, denak zuri-zuriak, denak dirdiratsu. Alta, hango lan-gileak –izenik ez du eman nahi izan– ez du hala mintzatzeko xe-derik.

Egoera «zaila» eta «bortitza» dela erran du, bai beretzat, eta bai «denentzat». «Gu, denda batean ari garenez, beste dendariak bezala aritzera behartuak gara. Eta, gainera, ezteiak gertakari bere-ziak direnez –persona kopuru handia biltzen da, besta giroa da...–, horrek ere eragiten digu». Ezkontzari izan ezean, denda horretako arroparik ezin sal. Azaldu duenez, konfinamendu denboran ez dute «anitz» lan egin: bezeroekin komunikatu baizik ez dute egin. «Bi konfinamenduen artean, batzuk lortu zuten ezkontzea, neurri zorrotze-kin, baina, oro har, guti izan dira». Orain, bezero batzuk hur-biltzen bazaizkie ere, «ezjakinta-suna» da nagusi, eta luzera begira gauzak antolatzeako oztopoak ai-patu ditu.

Etxeratze agindua

Etxeratze agindua «beste berri txar» bat izan da, arropa saltzai-learen ustez. «Zentzugabekeria» bat, haren hitzetan. Haiei, denda-ri gisa, zuzenean eragiten diela baieztatzen du, baina arazoa oroko-rragoa dela argi du.

«Gure arratsaldeko hitzordu guztiak ezeztatuak izan dira, be-zeroak beldur baitziren etxera be-rantean sartzea». Eta maila per-sonalean «biziki zaila» izanen zaiola aitortu du. «Pentsa, okin-degian gelditu behar baduzu, gero erosketa batzuk egin, gero tabakoa... Ezin da horrela antola-tu! Lanean ari bazara, ezinezkoa da. Argiki izorratua zara. Ni be-hartua naiz 17:00etan hestera, bi-dea egin behar dudalako etxera joateko, haurrak hartzeko...».

Elkarrizketa egin bitartean, on-doko dendako saltzaileak atea he-tsi du; «astelehen arte!», oihuka-tzen dio arropa saltzaileak. Doi bat berantago; «ene ber kasuan da», xuxurlatu du. Etxeratze agindua langileei «kalteak» eragiten dituela argi du. «Etxera-tze agindua 20:00etan zelarrik, be-har bada mugatzen zuen besta batzuk egitea, jendea elkartzela-lanetik landa... Baina 18:00etara ai-tzintatzeak iduri du gure narda-tzeko egina dela bakarrik!».


Denda guztiak tenore berean hetsi beharrek, denak betan etxe-ra sartzeak, jendea leku berean eta denbora berean metatzea bai-zik ez duela ekarriko erran du. «Dena mukurua izanen da tenore horietan, eguerdiko pausetan, adibidez!». Gainera, erantsi du beherapenen garaia dela eta de-nek pausa denborak baliatuko di-tuztela hara joateko. Ez da, haa-tik, haren kasua izanen da; denda ez hestea erabaki baitute eguerdiko pausan.

Karriketan bizpahiru pertsona, erdi lasterka, baina ilunak eta hotzak goizik hartu dute protagonismoa

«Astelehenetik ostiralera lane-an ari direnak larunbatetan joa-nen dira erosketak egitera, hala-beharrez. Eta han izanen gara, xi-naurriak bezala, beherapenak direrelakoan edo nik dakita zer, eta erokeria izanen da. Ez naiz segur biziki inteligentea denik». Baio-nan hala izanen denik ez du uste, baina hiri handietan garraio pu-

blikoetan 17:00 eta 18:00 artean bilduko den jende kopurua izu-garria izanen dela azpimarratu du. «Hor da zinezko arriskua! Eta, aldi berean, eski estazioetan igateko mekanikak hesten dituz-te: ez du logikarik. Luzatzen ari da afera, luzeegia da: dena murriz-tzen digute, konfinamendu zo-rrortz baina labor bat egin beha-rean, behin betikoz!».

Baiona hustuz joan da pixkana-ka, eta 18:00etarako hutsa baizik ez zen ageri karriketan. Bizpahiru pertsona, erdi lasterka, baina ilu-nak eta hotzak goizik hartu dute protagonismoa. Ostatueta, mu-rruetan, aldarriz josiriko afixa, banderola eta marrazki zenbait baizik ez ziren gelditzen.



Baionako karrikak hutsik, atzo, etxeratze agindua dela eta. GUILLAUME FAUVEAU

OSASUNA
PENTSALDIAN
Felix Zubia

Donostia Ospitaleko ZIUko medikua



Olatua

Bada Zarautzen kontatzen dugun gertakizun bat, orain pasatzen ari zaiguna azaltzen duena. 10 bat urteko neska bat etorri omen zen Zarautza barrualdeko herri bate-tatik, bere lehengusinarekin lehen jauntzera. Itsasoa sekula ikusi gabea izanik, hondartzara joan omen zen, bakarrik, hura ikus-tera. Handik pixka batera, etxera alai iritsi omen zen, bere jai egu-netako soinekoa erabat hondar-reez beterik, olatu batek goitik behera guztiz bustirik. Bere amak esan omen zion: «Mari-txu, zer egin dun?» Eta alabaren erantzuna: «Nik ezer ez, Ama. Geldi geldirik geratu naiz, eta bera etorri da gainera, nik ezer egin gabe».

Iruditzen zait horrelako zer-bait egin dugula guk ere. Denok

baikenekien okerraldia iritsiko zela, Gabon jaien inguruan izaten diren ohiturak direla-eta. Osasun adituek eta agintari guz-tiek aurreikusituz zuten zerbait zen, eta, hala ere, gainean lehertzen ari zaigu. Europa guztian zehar, herrialde asko eta askotan ikus-tzen ari gara nola ari diren kasuak igotzen, ospitaleratzeak hazten, eta heriotzak ugaritzen. Euskal Herrian ere, igoera nabarmena da, eta hurrengo egunetarako igoera handiagoa espero da, behin kopuruak gorako joeran hasten direnean, ondorengo hazkundearen esponentziala izaten delako. Egun gogorrek datozki-gu, ospitaleratze, zainketa inten-tsiboen unitateetako egonaldi eta heriotzei dagokienez.

Zer gertatu da, beste behin ere lehena berriz izan dadin? Ba, neurriak erdizka hartu eta bete

ditugula denok, «bai, baina ez» moduko bat egin dugula. Hasi agintariak harturiko neurrieta-tik, segi erosketa gune eta toki publikoetan egin ditugun ego-naldiekin, eta gure etxeetan egin dugunarekin bukatuz. Denok egin ditugu gauzak erdizka, guri tokatuko ez zaigula pentsatuz, edo errealtatea ukatuz.

Eta zergatik egin dugu hau? Nik, medikuntzaren aldetik, ez dakit ondo azaltzen. Soziologian edo psikologian aditu direnek hobeto argituko digute beharba-da. Ia urtebete pasatuta, neke handia nabari dut inguruan, neurriak ondo betetzen ari dire-nen artean. Beste askoren arte-an, arazoaren ukazio edo ahaz-tura bat, hildakoek garrantzirik ez balute bezala, pertsonak albo-ratu eta dena zerbaki eta estatis-tika bihurtzeko joerarekin. Izan liteke arazoa guri gertatuko ez zaigunaren ustea. Edo, ziurrenik, neuk aletzen asmatzen ez dudana arrazoari mordo bat izango da atzean.

Ziur dakidana da egun latzak datozkigula, eta neurri gogorra-koak beharko ditugula, ezinbestean. Zenbat eta gehiago itxaron, orduan eta handiago izango da kaltea, eta orduan eta gehiago kostako zaigu berriz ere egoera arintzea.



Joan den urriko argazki bat: jendea Iruñean paseatzen, tartean osasun langile bat. IÑIGO URIZ/FOKU

Positiboen kopuruak mila kasuren langa gainditu du Hegoaldean

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak 1.030 positibo atzeman zituzten • Araban eta Bizkaian egin dute gora kutsatuen zifrek

Erredakzioa

Positiboen kopurua milakotik hurbil egon da azken egunetan, eta, azkenean, atzo igaro zuen langa. Bezperan baino test gutxiago egin zituzten, eta positibo gehiago atzeman; beraz, positibo tasa nabarmen igo da, puntu oso bat baino gehiago. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak 14.180 proba egin dituzte –bezperan baino ia 2.000 gutxiago–, eta 1.030 positibo detektatu –32 gehiago–. Herrialdeka, Araban eta, batez ere, Bizkaian sumatu dira igoerarik nabarmenenak: Araban, 112 positibo atzeman dituzte (aurreko egunean baino 12 gehiago); eta Bizkaian, 479 (67 gehiago). Gipuzkoan, 228 (bezperan baino 11 gutxiago); eta Nafarroan, 195 (43 gutxiago).

Azken bi hilabeteetako daturik txarrenak dira aipaturikoak. Azaroaren 21ean gainditu zen mila positiboren langa azkeneko. Orduan, 1.001 kasu atzeman ziren, baina orduko egoera eta egungoa ez dira alderagarriak: azaroko azken asteetan, beharrezko joeran zen bigarren olatua, eta kasu gutxiago atzematzen ziren egunetik egunera. Orain, egoera kontra-

koa da. Izan ere, igoera ez da egun batetik besterakoa soilik. Transmisio kurbaren goranzko joera argia da 14 eguneko datu metatuei dagokionez ere. Hala, azken bi asteotan egunero atzemanda-ko positiboen batezbestekoa 774,64 izan zen atzo. Alegia, jasotako kopururik handiena abenduaren 1etik.

Oraingoz, transmisioaren hazkundera ez du arazo handirik eragin osasun sistema publikoan, baina presioa egunetik egunera ari da handitzen: atzo, 83 pertsona ospitaleratu zituzten Hegoaldean COVID-19aren eraginez; daturik txarrena azaroaren 27az geroztik. Egun, 468 paziente ari dira artatzen erietxeetako geletan, eta 101, berriz, zainketa intentsiboetako unitateetan. Kopuruak gorantz doaz Eguberrietan geroztik.

Neurri «malguagorik» ez

Datuek okerrera egin badute ere, Gipuzkoan eta Nafarroan behera egin dute kutsatuen kasuek, eta, hain justu, Santos Indurain Nafarroako Osasun kontseilariak hitz egin du pandemiaren egungo bilakaerari buruz. Egoera «kezka-garria» dela esan du, baina beste

lurralde batzuekin alderatuta «egoera hobean» daudela oroitari du. Besteak beste, aipatu du positiboak gutxitzea lotuta dagoela Gabonetan neurri «malguagoak» hartu ez izanarekin.

Aitortu du, ordea, Eguberrietan harreman sozial gehiago egon direla, eta gizartearen sektore «txiki bat erlaxatu» egin dela. Edonola ere, goraipatu du nafar gehienek arauak onartu dituztela eta Gabonak ospatzeko modu berrira egokitu direla.

Datuek behera egin arren, Indurainek ez du baztertu neurri gogorragoak hartzea.

Urkulluk dio «onartezina» dela txerto gutxiago jaso izana

Indurainek esan du Nafarroako «erreserba estrategikoa» duela datorren astean txertaketarekin segitu ahal izateko

GASTEIZ • Pfizerrek aldi baterako murriztuko du txerto banaketa Europan, ekoizpen gaitasuna handitu ahal izateko, eta, hori dela eta, Espainiako Gobernuak orain arte ezarritako banaketa eredu aldatzea erabaki du, bigarren dosia bermatu ahal izateko. Baina Iñigo Urkulluk ez du begi onez hartu erabakia; iritzi dio «onartezina» dela, eta «kalte» egiten diola «aurreikuspenez jardun duenari». «Erabakia bidegabekoa da Euskadirentzat», salatu du sare sozialetan zabalduko mezu batean.

Izan ere, banaketa orain arte jarritako txerto kopuruaren araberako egingo da, eta, beraz, dosi gutxiago jasoko dituzte txerto gutxi jarri dituzten erkidegoek. Lehendakariak dio, baina, «frogatuta» geratu dela Eusko Jaurlaritzaren txertaketa planaren bideragarritasuna: «Txertoa

edozein prezioztan jartzeko lasterketa eroa ez dela eraginkorra eta arriskutsua dela frogatuta». Nolanahi ere, «irizpide argiak» eskatu dizkio Urkulluk Madrili, eta proposamena «beraztertzeko». «Espero dut adostutako irizpideei eutsiko zaiela, eta ezin izango direla urrerantzean aldatu», ohartarazi du lehendakariak.

Nafarroan ere ez dute txertatze kanpainarekin jarraitzeko arazorik izango datorren astean, Santos Indurainek azaldu duenez. Izan ere, Osasun kontseilariak adierazi du Nafarroako Gobernuak 1.800 dosi inguruko «erreserba estrategikoa» duela gordea, txerto banaketan egon daitezkeen gertaerei aurre egiteko. Edonola ere, datoen astean erabakiko dute txertaketa kanpainan «egokitzapenen bat» egin beharko ote duten edo ez.

Madrilek ez du baztertu etxeratze ordua aurreratzea, itxialdia saihesteko

MADRIL • Espainiako Gobernuak ez du baztertzeko etxeratze ordua aurreratzea kutsatuz hiru egun inguruko aurreratu egiteko, erkidegoek aton eskatu moduan. Salvador Illa Osasun ministroa prest azaldu da «beharrezko neurriak» hartzeko; izan ere, Madrilek erabateko itxialdia saihestu nahi du kosta ahala kosta. Illak ohartarazi du, nolahi ere, egungo araudia moldatu beharko litzatekeela horretarako.

Sendagaien Europako Agentziak salatu du dokumentuak «manipulatu» dizkietela

AMSTERDAM • Sendagaien Europako Agentziak salatu du COVID-19aren aurkako txertoari buruzko dokumentuak «manipulatu» egin dizkietela. Abenduan jasan zuen zibereraso batean lapurtu zituzten dokumentuak agentziari. Adierazi duenez, txertoen ebaluazioari buruzko dokumentu konfidentzialak dira, eta sarean eskegi aurretik moldatu egin dituzte, txertoen «konfiantza» eragiteko asmoz.

Beasaingo Ikastola

HERRI ONURAKO KOOPERATIBA

AURKEZPENAK :
Urtarrilaren 18an Haur Hezkuntza
Urtarrilaren 19an DBH

MATRIKULA ZABALIK: Urtarrilaren 29ra arte

Aurkezpenak 15:00etatik aurrera egingo dira, talde txikitik, Informatu



Urbialde, 2 • Beasain • 943-88 96 17
beasain@ikastola.eus
www.beasaingoikastola.eus



Ipar eta Hego Euskal Herriko pasabideak itxi izana gaitzetsi dute

EH Baik eta EH Bilduk deitutako mobilizazioetan autoritarismoa salatzen dute • Euskal Elkargoa, kezkatuak, pasabideen irekiera ez dagoelako argi

Lander Muñagorri Garmendia

Pirinio Atlantikoetako Prefeturak hala ebatzita, ostegunaz geroztik itxita daude Ipar eta Hego Euskal Herriko zortzi pasabide, eta egoera salatzen elkarretaratzeak egin zituzten atzo Saran (Lapurdi) eta Irungo (Gipuzkoa) Santiago zubian. EH Baik eta EH Bilduk deitutako mobilizazioetan 200 pertsona inguruk hartu zuten parte, eta nabarmendu neurri honek ez diela euskal herritarrei mesederik egiten euren egunerokotasunean.

EH Bairen izenean hitz egin zuen Arturo Villanuevak, eta nabarmendu «euskal herritarrentzat ez dagoela mugarik», eta hala izatea nahi dutela. «Ez zaigu batere logikoa iruditzen autoritarismoaren indartze hau; are gutxiago 4.800 militar eta polizia erabiltzea egoera honetan, noiz eta erizain eta sendagileak behar ditugularik». Eneko Maioz EH Bilduko Gipuzkoako koordinatzaileak ere hitz egin zuen, «Espaniako eta Frantziako estatuen



Irungo Santiago zubian elkarretaratzea egin zuten atzo. GUILLAUME FAUVEAU

jarrera uniformizatzailea» berriz ere agerian geratu dela salatzen. «Jarrera honek ez digu inongo mesederik egiten, eta iruditzen zaigu badela garaia benetan Euskal Herria eraikitzen eta erabakia bertan hartu ahal izateko tresnak garatzen hasteko».

Joseba Erremundegi Euskal Elkargoko mugaz gaindiko harre-

man kontseilariak Euskadi Irratien hitz egin zuen atzo pasabideen itxieraren inguruan. Erabakia tokiko agintariak eta herritarrak kontuan izan gabe hartu dela esan zuen, eta pasabideak ixteko arrazoiak azken momentuan jakin zituztela. Kezka ere azaldu zuen, eperik ez delako finkatu pasabideak berriz irekitzeko.

34 urteko gizon batenak dira Getxon agertu gorpuzkiak

Familiak ez zuen haren berririk abenduaren 24az geroztik. Ertzaintza hiltzailearen bila ari da orain.

GETXO • DNA laginak aztertu ondoren argitu ahal izan du Ertzaintzak norenak diren joan den igandean Getxoko (Bizkaia) Arrigunaga hondartzan aurkitutako gorpuzkiak, EITBk eta *El Correo* egunkariak jakinarazi dutenez. Iturri horien arabera, abenduaren 24tik desagertuta zegoen 34 urteko gizon batak batenak dira topatutako gorputz atalak. Hala dela jakin dute haren familiako kideen DNArekin erkaketa lanak egin ondoren.

Ertzaintzak esku artean duen hipotesiaren arabera, barakaldarraren kasua indarkeriazko hilketak bat izan zen, eta, gorpuzkiak ondoren, itsasadarrera botatu zuten. Ur korronteek gorpuzkiak itsasora eramango zituztela uste dute segurtasun indarrek, eta horregatik agertu ziren Arrigunagako hondartzan. Identifikazio lanak eginda, hiltzaileak nor izan den bilatzera bideratuko du Ertzaintzak orain Getxon azaldutako gorpuzkien ikerketa.

Pertsona batenak izan daitezkeen hezurak ikertzen ari da Ertzaintza

LEIOA • Atzo arratsaldean pertsona batenak izan daitezkeen hezurak topatu zituzten Leioan (Bizkaia). Segurtasun Sailak azaldu zuenaren arabera, 17:30 inguruan topatu zituen hezur horiek herritar batek, Sarrriena auzoan sastrakak moztzen ari zen bitartean. Ertzaintza inguru horretara bertaratu zen, eta ikerketa abiatu zuen gertakaria argitzeko.

GuraSOSek erraustegiaren aurkako giza kate batera deitu du urtarrilaren 23rako

DONOSTIA • Datorren larunbatean giza kate bat egiteko deialdia egin du GuraSOS plataformak. 12:00etan izango da, Eusko Jaurlaritzak Donostian duen egoitzan, eta giza katea epaitegiataraino iristea da helburua. Bidean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza paretik ere pasako litzateke. *Osasuna, ingurumena, justizia* leloa izango du mobilizazioak, eta bi helburu dituzte: erraustegiaren arriskua salatzea eta haren jarduna gelditu dadila eskatzea.

Hilberriak

ESKELAK

(0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus

Berria.eus/eskelak

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak



GEURE KONTU
Jokin Sagarazu



Zerutik eroritako dirua

Elurra bezala, dirua ere eror daiteke zerutik. Edo hala ulertzen dute behintzat energia konpainia handiek. Hego Euskal Herrian argindarraren prezioarekin egunotan gertatzen ari dena hotz boladari egotzi diote haiek. Azaldu dutenez, horrek handitu egin du etxeetako eskaria, eta prezioak igo dira, garestiago diren energia erabili behar izan direlako dagoen beharrari erantzuteko.

Baina merkatuaren logikak soilik ez du guztia azaltzen. Gertatzen ari dena auzi politiko bat ere bada. Horren muinean merkatu elektrikoaren joko arauak daude, eta ezin da ahaztu hori erreformatzea adostu zutela PSOEk eta Unidas Podemos-IUK beren gobernu itunean. Horren barruan ulertu behar dira bi kideen arteko oraingo eztabaidak, haien arteko kontraesanetan sakontzeko oposizioak alderdiek egiten dituzten kritikak eta proposamenak, eta energia ekoizle handien isiltasun interesatua, zeintzuek, esan beharra dago, egungo araudia baliatu baitute prezioen igoera gauzatzeko.

Hortaz, zer gertatzen ari den eta zer etor daitekeen ulertzeko, ezinbestekoa da ezagutzera Espainian energia elektrikoaren merkatua hein handi batean oligopolio batek (hiru enpresak: Endesa, Iberdrolak eta Naturgyk) kontrolatzen dutela ia osorik –berritagarrietatik hasi eta ter-

mikoetaraino–, eta haiek dutela prezioak ezartzeko «pribilegio» ia erabatekoa. Eta nola egiten dute hori? Bada, energia iturri garestienaren arabera eta ez kostu errealearen arabera. Energia beharra handitzen denean –eta hori izan da oraingo kasua–, produktzio kostu handiagoa dutenak gehiago erabiltzen dira, eta horien prezioa erabiltzen dute besteak ere ezartzeko. Edo, bestela esanda, energia merkeenak –eolikoa eta nuklearra, esaterako– energia termikoaren prezioan saltzen dituzte.

Haatik, esan beharra dago merkatua nolabait autorregulatu egiten dela, eta egoera batzuetan, energia garestienaren beharrik ez dagoenean adibidez, eskari osoari erantzuten zaiola berritagarriekin, eta prezioak jaitsi egiten direla, kostu errealea gehiago hurbilduz. Hala izan zen aurreko hilabeteetan.

Prezio puztuak

Baina egunotan gertatzen ari dena aurreneko egoera da, eta horri, gainera, beste bi faktore gehitu zaizkio: batetik, ziklo konbinatuaren produktzioa asko garestitu dela, zentral horiek gasa erabiltzen dutelako, eta gasa ere inoizko preziorik altuenetan dagoelako, kontsumoa handitu delako mundu osoan eta hornidura arazoak daudelako.

Eta, horrekin lotuta, CO2 isurketen auzia dago, enpresek or-



Pertsona bat, goi tentsioko linea baten ondoan. ELISEO TRIGO / EFE

daindu beharrekoa. Kasu hone-tan ere horren zenbatekoa zehazteko isurketa gehien eragiten duten energia iturriak hartzen dira kontuan, eta, egunotan horien erabilera hazi egin denez, gehiago ordaindu behar izan dute konpainiek; hots, kontsumitzaileek. Gainkostu horiek, gainera, beste energien prezioetan ere gehitu dituzte, nahiz eta horiek isurketarik ez eragin eta, beraz, horregatik ordaindu behar ez izan. Hortaz, enpresentzat zigorra izan behar lukeena, eurentzako onura bihurtu dute. Isunetan ordaindutakoa baino askoz ere gehiago jaso baitute arrazoi horregatik.

Horiek hala, egunotakoa ekaitz perfektua izan da energia konpainia handientzat, eskaria handitu delako, bai, baina, bereziki, egungo araudiak modua eman dielako euren mesederako erabiltzeko «gasaren krisia» eta CO2 isurketen araudia. Horrek guztiak eragin du, funtsean, prezioen igoera edo puztea. Gertatutakoa ez da berria, eta izen bat du ekonomian: *Windfall Profits*: us-tekabeko etekinak.

Jose Maria Aznarren gobernuak (PP) diseinatu zuen horri bide ematen dion sistema. Oraingoak erreforma sakon bat egin nahi du, eta urrats batzuk egin ditu jada. Adibidez, lege egitasmo bat aurkeztu du energia berritzagarriak jartzeko kostuen parte bat –ekoizleentzako primak– sis-

tema energetiko osora zabaltzeko. Horrek aurrera egingo balu, merkatu egingo luke argindarraren faktura, beste energetikako kontsumitzaileekin partekatuko litzatekeelako kostu hori. Horren haritik, beraz, logikoa litzateke hurrengo urratsa gainordainsarrien auziari heltzea.

Baina presioa handia izango da, asko dutelako jokoan. Agian horregatik, Pablo Iglesiasen alderdiak estatuzkoaren pankarta ateratu du. Sozialistak ez dira horren atzean jarriko, baina prest azaldu dira argindar merkatuko prezioen erregulazioan administrazioen esku hartzea handitzeko. Argindarraren prezioa handitu izanaren arazoa ez baitira zergak, fakturaren %40 inguru.

Luzerako doa joko. Baina oraingo egoerak eztabaida azkartzeko balio izan du behintzat. Gertatutakoak, koiunturala izan arren, agerian utzi baitu egungo araudiarekin energia enpresa handiek «pribilegioak» dituztela, eta horiek ez direla, haiek dioten moduan, zerutik erortzen, kontsumitzaileen patriketatik baizik.

Ekaitz perfektua izan da energia konpainia handientzat, eskaria handitu delako, bai, baina, bereziki, egungo araudiak modua eman dielako euren mesederako erabiltzeko «gasaren krisia» eta CO2 isurketen araudia



biderarekin ideiaz blai!

Komunikazioa • Banaketa
Itzulpenak • Dei zentroa
Aholkularitza • Publizitatea



www.bidera.eus

berria Taldearen zerbitzu enpresa

Laschet, CDUko buru berria

Kristau-demokraten presidentea «zentrista» gisa aurkeztu dute, eta Merkelen ildoari segida emango diola espero da • Alderdiko sektore eskuindarrenari gailendu zaio kongresuan, %52ko babesarekin

Gorka Berasategi Otamendi

Lemazain berria du Angela Merkel Alemaniako kantzilerraren CDU Batasun Kristau-Demokrata alderdiak. Armin Laschet hautatu zuten atzo alderdiko presidente: Alemaniako lander populatuenerako gobernuburua, Ipar Renania-Westfaliakoa, 2017. urteaz geroztik. 60 urte ditu. Merkelen gertuko da, eta haren ildoari jarraipena emateko hautagai gisa aurkeztu dute. CDUk kokapen politiko «zentrista» izatearen alde agertu da.

Laschet Friederich Merzi gailendu zaio. 521 boto jaso ditu, alderdiak dituen 1001 ordezkariengandik; 466 jaso ditu Merzek, alderdiaren sektorerik eskuindarraren ordezkatu duenak. Bigarren itzulian erabaki da irabazlea. Lehenengoan, Merzek jaso ditu boto gehien, eta lehiatik kanpo gelditu da Robert Rottgen, moderatutzat daukatena. Laschetek Rottgenen aldekoen botoak jaso ditu bigarren itzulian, eta babes hori gakoia izan da Merzi irabazteko. Merzek eta Rottgenek, CDUko buru hautatu berria zoriondu eta batasunerako deia egin dute.

Merkelek aurtengoa azken aginte urtea duenez –kantzilerra da 2005 urtetik–, etorkizunera begirakoa izan da kristau-demokraten kongresua. Gobernuburuaren ondorengoa hautatzeko prestatzen ari da alderdia. Alemanian, parlamenturako bozake egingo dituzte irailaren 26an, eta ordurako hautagaia behar du.

Merkelek 2018an utzi zuen CDUko gidaritza, eta bazirudien Annegret Kramp-Karrenbauer izango zela haren lanari segida emateko hautatua. Kramp-Karrenbauer CDUko presidente izendatu zuten urte hartako abenduan, Merzi gailendu ostean. Iazko otsailean, ordea, alderdiko buru izateari utziko ziola iragarri zuen, eta ez zela hauteskundeetara aurkeztuko. Turingiako gobernu krisiak bultzatu zuen erabaki hori hartzerantz. Izan ere, egun batzuk lehenago, CDUk alderdi liberalaren hautagaia babestu zuen landerrean, lehen ministro kargurako, AfD eskuin muturreko alderdiarekin batera, bozake Die



Armin Laschet CDUko presidente berria, atzo, Berlinen, alderdi kristau-demokraten kongresuan. CHRISTIAN MARQUARDT / EFE

Linke ezkerreko indarrak irabazi zituen arren. Krisi politikoa leheritu zen CDUren barruan.

Laschetek esana du «muturretatik urrun» mantendu nahi duela CDU, «muga argi batekin eskuinean». Gizarte kohesioa eta merkatu ekonomia uzartu asmo ditu, arlo ekonomikoan. Europako Batasunean Frantziaren eta Alemaniaren arteko elkarlana areagotzearen alde agertu da, baita AEBekin harremanak hobetzearen alde ere. Joe Biden Etxe Zurira iristea «demokraziaren garaipe» izan da, haren iritziz. Etxe barruko kontuetan, segurtasuna da Laschetaren lehentasunetako bat. Migrazioaren aferan, Merkelen ondoan izan zen CDUko hainbat ordezkari kantzilerrari bigunegi jokatzea leporatu ziotenean.

Hautagaizarako lehia

Alderdiko buru izateak ez du Laschet kantzilertzarako hautagai bihurtuko automatikoki, CDUk haren koalizio kidea den Bavariako CSU Batasun Sozial Kristauarekin adostu behar baitu hauteskunde lehiarako nor aukeraturiko duten. Oraindik argitzeko dago nor izango den bloke kontserbadorearen hautagaia. Aukeraketa martxoaren amaieran edo apirilean egingea espero da.

Hain justu, CSUko buru eta Bavariako lehen ministro Markus Soder jotzen dute askok kantzilertzarako hautagai izateko faborritzat. Inkestean arabera, Soder da Alemanian irudi onena duten politikarien artean bigarrena. Soilik Merkelek gaintzen du, eta alde handia ateratzen die Lascheti eta askok hautagai posible gisa aipatzen duten Jens Spahn Merkelen Osasun ministroari. Laschetek azken horren babesia izan du CDUko presidentetzara iristeko.

Hauteskundeetarako hautagaia izendatu aurretik, CDUk izango du bere giharra neurtzeko aukerarik. Bozake egingo dituzte Baden-Württemberg eta Renania-Palatinatua landerretan, martxoaren 14an, pandemiak horretarako modua emanez gero. Kristau-demokratek emaitza kaskarrak jasotzen badituzte, litekeena da CSUko buruak aukera gehiago izatea hautagai bihurtzeko.

Itxaropenerako unea

Badoa munduko presidenterik boteretsuena eta arrisksuena. Eta hori gertatzeko hiru egun falta direla, munduak kezka eta itxaropenez eusten dio arnasari. Koliseoaren aurkako erasoaren ostean Donald Trumpen aliatu izandako asko eta asko ihesi joan zaizkio, eta alderdi errepublikanoa bera egoera berrira egokitze ahaleginetan dabil. Alderdia baino, alderdiko ordezkari ezagunenak, politikoki bizirauteko ekinetan, ia lau urtez bultzatu, babestu eta ia gurtu dutena egun gutxian aldatzeko. Arratoiek trumpismoaren ontzitik arineketan ihesean dirudite, baina ezin ahaztu 75 milioi estatubatuarrek bozkatu zutela beste lau urtez agintean jarrai zezan.

Washington hiriburua gotortuta eta militarri hartuta dago, eta hiria iparraldetik eta ekialdetik inguratzen duen Maryland estatuan ere larrialdi egoera dute asteazkeneko kargua hartzeko ekitaldiaren bezperatan. Pandemiak eta Trumpen duela hamai-ka egun egindako deialdiek –orain Kapitolioaren eraso sus-tatu izana ukatuta ere– izan dute eraginik: publikorik gabeko kargu hartzea izango du Joe Bidenek.

Eta ezin ahaztu zelan doazen Trumpen agintaldiaren azken egunak, ahalik ontzit gehien erreze: heriotza-zigorra aspaldi ez bezala erabili dute, hamarkada asko dira hainbeste exekuzio ez direla egon Estatu Batuetan, urtero jende gehien exekutatzen duten herrialdeen zerrenda bel-

tzean egonda ere. 70 urtean lehen aldiz emakumezko bat exekutatu dute, agintaldiaren amaieran. Kuba terrorismoa sustatzen du-ten herrialdeen zerrenda beltzera itzuli dute, Obamak atera zuen zerrendara. Mike Pompeo lotsa-gabeak, Irani zer leporatuko, eta Al-Qaedako jihadistak suniten talde bati babes ematea egotzi dio xiita integristen erregimenari! Ez du gatazka nuklearra aipatu, hain gutxi Teheranek giza esku-bideak urratzea –hori isilarazten bat datoz agintari guztiak, baita Europakoak ere–.

Lagun batek egunotan kontatzen zuen Donald Trumpen garaipenaz egin zioten iruzkina, ar-tean Londresen bizi zela: «Gauza ziklikoa da: lehen ere Margaret Thatcherrek irabazi ostean iritsi zen Ronald Reaganen garaipena, eta orain brexit-a nagusitu eta gero heldu da Trump presidente-tzara». Baziren alde garrantzitsu bi, horatik: lehena, Hillary Clintonen sistemak eman ziola Etxe Zuria Trumpi. Bigarrena, eta aurre-koa baino garrantzitsuagoa: Trumpena lau urterako zen arte-an, brexit-a betiko dela. «Hama-kadak joango dira Erresuma Batua berriz heldutasunez nazio izateko, eta agian ordurako ez da Erresuma Baturik izango: Esko-ziak alde egiten badu –hala egin beharko luke– eta Ipar Irlandak errepublikarekin bat egiten badu –hala egin lezake–. Orain adiski-dea New Yorken bizi da: «He-



LEKU-LEKUTAN
Urtzi Urrutikoetxea

**Badakigu
erraz zapuztu
daitekeela, baina
itxaropenerako
tartea dator
Etxe Zurian
supremazista zurien
ordezkaririk gabe**

men, Martin Luther Kingen urte-betetze egunean, urtarrilaren 20an, aro berri bat jaioko da. Zibilitatea eta dezentzia itzularaziko ditu gutxienez. Hala espero dut». Bai, AEBetako lau urterako bai-no ez zela esan zien Londresko adiskideei.

Nik ez. Iazko primarioetan esan nuen, AEBetako sistema poli-tikoan logikoena presidente ba-tek bi agintaldi egitea dela. Eta herrialdearen egoera ekonomi-koak berriz ere hala gertatuko zela sinetsarazten zuela. Mundu guztiari eragin dion pandemiak sistemaren ezinakin agerian utzi ditu, herrialdea gidatzen lema-zainik okerrena zegoela nabar-mendu du eta etengabeko gezu-rrak ezin ezkutatzea eragin du. Baita herritarren osasuna erdigu-nera ekartzea ere: ezinezkoa da, esate baterako, txertoa pribatua

izatea, helburua pandemia gain-ditzea baldin bada behinik behin.

Trump badoa, eta edozein anti-faxistarentzat berri pozgarria da hori. Badakigu erraz zapuztu dai-tekeela, baina itxaropenerako tar-tea dator Etxe Zurian supre-mazista zurien ordezkari-rik gabe. Eta paradoxa bat, amaitzeko: he-renegun iragarri zuten Boiseko Jaialdiaren antolatzaileek iaz atzeratutako saioa aurten ere ezingo dela egin, orain bertan da-goen ziurgabetasunak eta antola-tzuko behar den denborak zuhurtzia eskatzen baitu. 1987an antolatutako lehen aldiz, Ronald Reagan agintean zela; 1990ean hurrena, George Bushen agintal-dian; eta bost urterik behin hortik aurrera 2015era arte. Hau da, pre-sidente guztien agintaldietan egin da Boiseko Jaialdia... Trum-pek in izan ezik.



euskal eskola publikoa

NIREA ZUREA DENONA
Aurrematrikula
urtarrilaren 18tik 29ra
www.euskadi.eus/hezkuntza

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK	TELEFONOA	BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK	AUZOA/HERRIA
AMARA-BERRI IKASTETXEA	943 458 550	USANDIZAGA-PEÑAFLORIDA BHI 943 899 490	Erdigunea (centro) / Amara / Loiolako Erriberak
KATALIN ERAUSO IKASTETXEA	943 469 825		
IKASBIDE IKASTOLA	943 467 294		
AIETE IKASTETXEA	943 215 754	USANDIZAGA-PEÑAFLORIDA BHI/ ANTIGUA-LUBERRI BHI	Aiete
IGELDO HERRI IKASTETXEA	943 217 225	ANTIGUA-LUBERRI BHI 943 899 304	Igeldo / Antigua / Ibaeta / Añorga / Parte Zaharra
JAKINTZA IKASTOLA	943 217 324		
IBAI IKASTOLA	943 214 206		
AMASSORRAIN IKASTOLA (0-3 urteak ere)	943 370 872	LAUAIZETA IKASTOLA BHI 943 899 516	Egia / Intxaurren
ORIXE IKASTOLA	943 425 114		
AITOR IKASTOLA	943 282 132		
INTXAURRONDO IKASTOLA	943 285 110	BIDEBERRI BHI 943 899 251	Bidebieta
INTXAURRONDO HEGOA IKASTETXEA	943 297 023		
MENDIOLA HERRI IKASTETXEA	943 395 092		
ALTZA S.J.C HERRI IKASTETXEA	943 352 024	ALTZA BHI 943 899 249	Altza / Herrera
HARRI BERRI-OLETA IKASTETXEA	943 353 592		
HERRERA IKASTETXEA	943 391 577		
ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA	943 470 235	ARANTZAZUKO AMA BHI 943 899 280	Martutene / Astigarraga
ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLA	943 551 262		
ZUHAIZTI ESKOLA PUBLIKOA	943 320 413	ZUBIRI-MANTEO BHI 943 899 292	Gros / Ategorrieta
ZUBIETA HERRI IKASTETXEA	943 372 931		Zubieta

Musevinik irabazi ditu Ugandako bozak, eta seigarren agintaldia hasiko du

KAMPALA • Yoweri Musevini Ugandako jarduneko presidentea seigarrenez irabazi ditu hauteskundeak, botoen %58,6ren babesarekin, herrialdeko hauteskunde batzordeak atzo jakinarazi zuenez. Oposizioak, baina, «iruzurra» salatu du. Bobi Wine Museviniaren aurkari nagusiak ostiralean adierazi zuen armadak bere etxea inguratu zuela.

Haitiko Poliziak larrialdi egoera ezarri du otsailaren 15era arte, protestengatik

PORT-AU-PRINCE • Oposizioak deitu duen protesta kanpaina dela eta, larrialdi egoera ezarri zuen atzo Haitiko Poliziak, otsailaren 15era arte. Manifestariak Jovenel Moise presidentea behartu nahi dute dimisioa ematera, haren agintaldia amaitzear dela argudiatuta. Konstituzioaren bestelako irakurketa bat egiten du gobernuak. Presidenteak konstituzio berri bat onartzeko erreferenduma egin nahi du, apirillean.

DONOSTIAKO BERRITZEGUNEA
Hezkuntza Berritzatzeko
Laguntza Zerbitzua
Tel.: 943 320 087



kalitatezko eskolak zure auzoan



Gizakien objektuek gehiago pisatzen dute jadanik Lurreko biomasak baino


Gizakien zama ez da biomasa osoaren %0,01 besterik, baina haren objektuen pisuak gaina hartu dio jada biomasarenari • 2040rako, naturako gaien pisua halako hiru izango da material artifizialena

Iñaki Petzarroman

2020a historikoa da zentzu askotan. Mundua astindu duen COVID-19aren pandemiaren urtea izateagatik gogoratuko da gehienbat. Baina beste marka batzuk ere ezarri ditu: 2016arekin berdinduta, inoiz Lur planetan izandako batez besteko tenperaturarik beroena izan zen, industria aurreko aldiaren baino 1,25 gradu beroagoa. Ekologiaren arloan, etorkizuneko eragin handia izan dezakeen beste marka bat ere ekarri du: lehenengo aldiz, gizakiak sortutako objektu artifizialen pisua handiagoa da Lur planetaren biomasarena baino. Hau da, 2020a amaitzerako naturak sortutakoak baino gehiago pisatzen zuten gizakiak egindako objektuek. Hau da, objektu artifizialek 1,1 bilioi tona edo teratona (Tt) baino gehiago pisatzen dute jada.

Israelgo Weizmann Zientzia Institutuko ikertzaile talde batek egindako lan batek eman du ondorio horien berri, *Nature*-n argitaratutako *Global human-made mass exceeds al living biomass* izeneko artikuluan (gizakiak sortutako masa globalak biomasa gainditu du). Eta zeintzuk dira ikertzaileek masa antropogenikoa deitu dioten hori osatzen duten objektuak? Ohikoena zerrendatu dituzte: hormigoia, hondarra, legarra, adreiluak, asfaltoak, metalak, egurra, plastikoa, papera eta beira. Haiekin sortutako autoak, eraikinek, errepideak, ontziek, gailu elektronikoak, arropak, komuneko paperak, plastikozko ontziek eta gainera, animaliek, ondoak, arkoak eta protistoei baino.

Datu ugari eman dituzte egileek, gizakiek ekoizitakoaren eragina zenbaterainokoa den ulertzen laguntzen dutenak. Gaur egun munduan dagoen plastikoa zortzi gigatonako (Gt) zama



AHTKo euskal Y-aren zubibide bat, Bergaran. Hormigoia da gizakiak sortutako objektuetan pisutsuena munduan. RAUL BOGAJO/FOKU

dauka, planetan bizi diren animalienaren bikoitza, lau gigatona pisatzen baitute haiek.

Gizakien zama biomasa osoaren %0,01 besterik ez da, baina haren objektuek biomasaren pisua gainditu dute jadanik. Beste ondorio bat, gogoan hartzekoa: eraikinek eta azpiegiturek –errepide, ubide, trenbide eta abarrek– zuhaitzek eta zuhaixkek baino gehiago pisatzen dute jadanik. Datu horien esanahia argitu dio BERRIARI ikerketako egileetako batek, Ron Milo biologo, ikerketaren koegile eta Weizmann Institutuko ikertzaileak. «Eman dugun datu hau historikoa da, lehen aldiz gertatu baita, eta uste genuen baino bizkorrago gertatu baita, gainera. Halaber, garrantzi simbolikoa du, gizakien ekintzen ondorioak espezie menperatzaile batenak baitira».

Mende bateko bilakaera

Gizakiek egindako objektuen hazkundeak bilakaera indartsua izan du mende batean. Duela 120 urte, biomasaren %3 ingurura iristen ziren objektu artifizialak. Bigarren Mundu Gerraren ostean, Azelerazio Handia hasi zen munduan, eta, geroztik, 30 gigatona hazi da urtero objektu artifizialen pisua. Hau da, urtero %5 handitu da masa antropogenikoa horren ekoizpena. 1900etik hona, objektu artifizialen zama bikoiztu egin da 20 urtean behin, eta pisu horren erdia hormigoiak, legarrak eta eraikuntzarako beste materialek osatzen dute. Adreiluei, asfaltoari, meta-


lei, plastikoei eta beste material batzuei zama osoaren %19 dago-kie.

Prozesua gero eta azkarragoa da, gainera. Gaur egun, astero gizakiek sortzen dituzten material berrien pisua planetan bizi diren gizakiena (7.700 milioi inguru) bezainbestekoa da. «Gaur egungo joerari eusten bazaio, masa antropogenikoak –hondakinak barne– hiru teratonako pisua gaindituko du 2040rako; hau da, gaur egungoaren eta Lurreko biomasarenaren hirukoitza izango da».

Ikertzaileek ohartarazi dute ezen, etorkizunean hazkunde hori baieztatzen bada, ondorioak izango direla naturaguneetan, biodibertsitatean eta ziklo klimatiko eta biogeokimikoetan. Hala, hondakinekin sortuko den arazoa ere azpimarratu dute, zeren hazkunde erritmo horren arabera, ikertzaileek ondorioztatu dute hurrengo 20 urteotan azken 110etan bezainbeste hondakin sortuko direla Lur planetan.

Aditu batzuen arabera, produktuen ekoizpenaren hazkunde horrek talka egin lezake material batzuen produkzioaren gailurarekin edo ekoizpenaren gehiengo kantitatearekin. Esate baterako, Antonio Aretxabala geologo nafarrak tesi hori babestu du: «2015etik ezin dugu baliabide gehiago sortu ez bada energia gehiago xahutuz. 2017tik, behe-

GIZAKIEN OBJEKTUEN PISUA



ITURRIA: GLOBAL HUMAN-MADE MASS EXCEEDS LIVING BIOMASS

rakada etengabea da; 2018an, goia jo zuen; eta, 2020an, birusaren laguntzarekin, %10 inguru uzkurto da».

Ikertetaren koegile Ron Milo sinesgaitz dago tesi horrekin: «Material gehienei dagokienez, oraindik ere Lurreko gordailu ugariatan atera ditzakegu nahi beste baliabide. Gainera, gizakiak burutsuak izaten gara material gehiago edo antzekoak egiteko moduak aurkitzen, lehengai jakinen bat amaitzen zaigunean».

Etorkizun hurbilean izan daitekeen arazo bat ere aipagai dute txostenean. Izan ere, munduan eraikitako azpiegitura eta eraikin gehienak 1960tik hona altxa zituzten. Orain, haietako asko euren bizitza baliagarriaren amaiera iristen ari direla azpimarratu du Fridolin Krausmann Vienako Unibertsitateko Ekologia Sozialeko irakasle eta lanaren binakako aztertzaileak *The National Geographic* aldizkarian. Ideia horri heldu dio Aretxabalak ere: «Ga-

rapen handiari ekin zioten lehen herrialdeak, AEBak kasurako, mantentze lanen borrokan murgilduta daude jadanik. Azpiegituren zati handi bat euren gain hartu ezin duten kostuarekin berritu behar dute, ubideak huts egiten



«Eman dugun datua historikoa da, lehen aldiz gertatu baita, eta uste baino bizkorrago»

Ron Milo
Biologoa

«Garapen handiari ekin zioten lehen herrialdeak mantentze lanen borrokan murgilduta daude jadanik»

Antonio Aretxabala
Geologoa

ari dira, 60.000 zubibidek bizitza baliagarriaren muga gainditu dute». Krausmannek egitura horiek guztiak sortuko dituzten hondakinaren jario «handiez» ohartarazi du.

«Antropozenoaren marka»

Lehen nekazaritza iraultzaren arotik, duela 12.000 urtetik hona, Lurraren biomasa erdira gutxitu da. Oihanetan izan da eraginik kaltegarriena, deforestazioaren ondorioz. Hala ere, oraindik ere

materia bizidun osoaren %90 zuhaitzek eta zuhaixkek osatutakoa da. Gainerakoa animaliek, laboreek eta elikadurarako hazitako abereek osatzen dute. Nekazaritza eta abeltzaintza garatu zen garai hori bat etorri da *Holozeno* deitu izan zaion epoka geologikoarekin.

Alabaina, geologo askok uste dute azken hamarkadetan gizakiak eragindako aldaketa horiek izan dutela ondorio geologikorik ere, eta arrasto horren ondorioz Lurra epoka geologiko berri batean sartua dagoela jadanik, Antropozenoan. Izan ere, geologo horien ustez, gizakiek erregistro geologikoa aldatu dute jadanik. Aldaketak eragin dituzte kliman, atmosferan, biosferan, ekoizpen berriko materialetan, erradioisotopoetan... Haien ustez, espezieen galerak eta nahasketak ere erakusten du Antropozenoaren erregistro geologikoa eta Holozenoaren oso ezberdinak izango direla. Oraintxe, geologia estamentuetan aztertzen ari dira epoka geologikoari izena aldatzeko proposamena, eta ofizialki indarrean dagoen Holozenoaren ordezkatzea.

Weizman zientzia institutuko ikertzaileek egin duten ikerketaren ondorioek ere pisua ematen diote Antropozenoaren proposamen horri. «Hau adibide giltzarri bat da alor horretan», adierazi du Ron Milok.

Zaragueta
DENONTZAT ETA DENONA

Matrikula-epaia: Urtarrilaren 18tik; urtarrilaren 29 arte
Bilera informaltzailea eskolaren (aretoak), Urtarrilaren 20an, (18.00etan)
Eskola-azalari: Urtarrilaren 16an (10.30etik 12.30era)
Tel: 943 89 92 43. E-posta: 01213700@hezkuntza.net

PAUSOZ PAUSO
AZKOITIAren eta AZPEITIAren ETORKIZUNA
ERAIKITZEN

XABIER MUNIBE
Tel: 943-85 06 46
www.xabiermunibeikastola.net

AZKOITIA BHI
Tel: 943-89 94 47
www.azkoitiabi.hezkuntza.net

**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**
Tel: 943-81 26 97
www.karmeloetxegarai.eus

**UROLA
IKASTOLA BHI**
Tel: 943-15 02 28
www.urola.org

Matrikulazio EPEA
urtarrilaren 18tik 29ra

> OPARIAK

PARTE HARTZEKO: igandetik asteartera berria.eus/berrialaguna edo 943-30 43 47
SARIDUNAK ostegunean argitaratuko dira. **Adi!** Erabili zure **BERRIALagun** kode berria.

01 PEDRO LUIS - NAFARROA OINEZ



Bost sorta

02 PAGOA GARAGARDO SORTA



Sorta bat
(12 botilako kaxa)

Pagoaldea, 7
20180 OIartzun
Pagoabeer.eus

03 TALABERRI SORTA



Bi sorta

05 SOLAGUEN KARBONIKOA



Sorta bat

05 K PILOTA TXAKOLINA



Hiru sorta

06 LEZAUN GAZAGA



Sorta bat

07 MAINEGRA BRUT NATURE

Kaxa bat
(6 botilako kaxa)
MENDABIAKO CAVA

Mendabia



08 BERRIren 2021 EGUTEGIA

Hamar ale



09 BERRIren 2021 AGENDA

Bost ale



> SARRERAK

PARTE HARTZEKO, Berria.eus/berrialaguna
Parte hartzeko azken eguna, **urtarrilaren 19a**, asteartea.
SARIDUNAK **ostegunean** argitaratuko ditugu.

EZ DOK ERO

EZ DOK ERO
Egilea: PATXO TELLERIA
Zuzendaria: JOKIN OREGI
TARTEAN TEATROA



Sarrera bikoitz bat

Kurtzio kultur etxea
SOPELA
Urtarrilak 29
19:00



Zientzia, herritarren eskura

Itziar Nogeras Berra

Berrikuntza eta
kulturgintzako eragilea

Zientziaren dibulgazioaren eskutik doaz aurkikuntzak eta ezagutzak gizartera iristeko ekimenak. Dibulgazioan zientzia edukiei buruzko azalpenak eman ohi dira; hau da, edukiak interpretatu eta dibulgazio erregistroan jartzen dituzte kazetariak, irakasleak, dibulgatzaileak eta zientzialari nahiz ikertzaileak bereak ere. Herritarrengana eza-gutza iristeko erregistro horretan berealdiko garrantzia hartzen dute komunikazio gaitasunak, azalpen pedagogikoak eta informazioaren teknologiek eta kanalek.

Pauso bat areago, zientziaren ulermen eta barneratzean, *Herritarren Zientzia* izena hartu duen fenomeno dugu. Zientziak eta ikerketak bere baitan hartzen dituzte edukiak, protokoloak, zientzia ezagutza eta erabaki politikoak zein ekonomikoak. Horiek horrela, Herritarren Zientziak hau bilatzen du: zientziako proiektuetan herritarrek parte hartze aktiboa izanik, ezagutza eta ulermen berriak lortzea bai herritarrek bai zientzia komunitateak.

Zientziaren dibulgazioa, gizateria eta politika uztartzen dituen sormen lan eder bat etorri zait gogora artikulu honen harira: *Nostalgia de la luz* film dokumentala (Patricio Guzmán, 2010). «Nostalgia dio *off*-eko ahotsak hasieran: «Gure planeta hezeak orban marroi bakarra du, ez du batere hezetasunik; Atacamako basamortu handia da. Izar hautesak erakarrira, mundu osoko zientzialariak lurreko teleskopio handienak eraiki zituzten hemen. Txileko zeruaz maiteminduz zientzia [...] Hamazazpi urtez, Pinochetek milaka preso politiko erail eta haien gorpuak lurperatu zituen. Hildakoen bila dabilzan emakumeek hildakoa desagerrarazi zituzten erantzuna eskatzen dute. Oroimena dutenak orainaldi ahulean bizitzeko gai dira, ez dutenak ez dira inon bizi». Izarrekin –argiaren nostalgiarekin– eta politikarekin –Pinochet aurreko Txile demokratikoaren nostalgiarekin– loturiko lana egin du zuzendari txiletarrak. Hari finez josi ditiu gai zail

batzuk; biziaren eta heriotzaren bilaketa gertatzen ari den agertoki berean, Atacamako basamortuan, emakumeak hildakoen hezurren bila eta zientzialariak munduaren jatorriaren bila dabilzako.

Herritarren Zientziara itzuliz, nahikoa termino berria da, baina jardun zahar batean du jatorria. Izan ere, XIX. mendean zientzia amateurrak baitzen, eta kuriositatea zen haren motorra. Ezentzia hori oinarri harturik, Herritarren Zientziak berrikuntza irekiko eta gizarte berrikuntzako elementuak bereganatu ditu, era berean.

Alde batetik, kolaborazio mailakoa izan daiteke parte hartzea. Herritarrek, datuak bilduz zein informazioa eskuratuz, ekarpena egiten diete zientzialari; gainera, teknologia zein Interneteko aplikazio berriak hedadura handiko jardura bihurtu ahal izan dute. Datu biltze zabalak dira eta ohi-koak dira, esate baterako, astronomian, itsaso zientzietan, botanikan, ornitologian, ingurumen larrialdietan, ahotsaren ezagutzako teknologia neurolinguistikotik eta abarretan. Izarren portaera munduko bazterretatik aztertzeak, koral arrezife baten egoerari jarraipena egiteko, petrolio isurketa baten hondamendia neurtzeko, hizketa arloko gaixotasun degeneratiboak aztertzeak, hizkuntzaren erabilera neurtzeko... herritar ugari daude inplikaturik datuak lortzen munduan zehar. Horiek jasotzen duten saria emaitzetan egiten zaion aipamena izan ohi da. Aranzadi elkartea dugu geurean horrelako egitasmoen sustatzaile, esate baterako. Aipagarria da, beste batzuen artean, memoria historikoan datuak biltzeko herritar borondatezkoak hezurren indusketa lanetan –landa lanean– egiten ari diren ekarpena gerra zibileko desagertuen memoria historikoaren egitasmoan aurrera egiteko.

**Herritarren Zientziak
hau bilatzen du:
zientziako proiektuetan
herritarrek parte hartze
aktiboa izanik, ezagutza
eta ulermen berriak
lortzea, herritarrek eta
zientzia komunitateak**

Beste alde batetik, parte hartzea hasieratik eta elkarlanean gertatzen den kooperatibitateko proiektuak daude; hau da, Zientzia Irekia dago. Bartzelonako unibertsitateak *OpenSystem* egitasmoa du abian horrelako proiektuak komunitatean garatzeko. Bertako adibide batzuk ikusita, Zientzia Irekiaren ezaugarriak eta balioak ikus ditzakegu. *xAire* proiektuan, adibidez, airearen kalitatea neurtzeko datu bilketa kolektiboa antolatuta da komunitatean. Bertan lehen hezkuntzako ikasleek, familiek eta irakasleek parte hartzen dute, bai sentsoreak jartzen, baita hortik jasotzen dituzten datuak aztertzen ere; era horretara, irtenbideak lantzen dituzte airearen kalitatea hobetzeko. *ConCiencias en la plaza* proiektuan, kalean sortzen diren dinamika eta hartzen ditugun rola aztertzen dira, genero ikuspegitik. Kaleko antzerkia da azterlanerako bidea, eta, era horretara jasotako datuak aztertuz, giza harremanez gogoeta egin eta kontzientzia hartzen da. *Jocs per l'Habitatge* proiektuan, hiru udalerritako herritarrek, ezagutza eta esperientzia askotako taldeetan, komunitatean duten kezka adostu dute: etxebizitza eskuratzeko aukera. Kezka horretan oinarrituta zenbait ikerketa-dinamika adostu dituzte. Eta horiek izan dira oinarria kontzeptualizatzeak udalerririk bakoitzean eremu publikoko eskua hartzea, proiektuari izena ematen dijon jokoak, hain zuzen. Horren bidez jasotako datuak aztertu eta ondorioak ateratzen dituzte.

Alabaina, Herritarren Zientziari eta Zientzia Irekiari erantzukizunez jokatzea dagokie, ingelesezko RRI (Responsible Research and Innovation – Ikerketa eta Berrikuntza Arduratsuak) kontzeptuak jasotzen duen eran. Ardurak integrala izan behar du eta gizartearekin erantzukizunez jokatzeak honako alderdiak hartzen ditu, besteak beste: informazioa eta ezagutza eskuratzeko garrantzitasuna eta irekitasuna parte hartzaile guztien artean; emaitzen gaineko erabakiak gizartearen izan daitezkeen ondorioekin alderatzea; parte hartzaile guztien lana berdindu saritzea; genero berdintasuna...; parte hartze inklusiboa, azken finean.

Laburbilduz, Herritarren Zientziak eta Zientzia Irekiak herritarren igurikimenak jasotzeko gaitasuna dute. Herritarrek, ikerketaren sustatzaile papera hartuz, komunitateak eraldatzeko eragile aktibo bihurtzen dira.

Bigarren dosia

Europa gehienez asteburu honetatik aurrera hasiko dira COVIDaren kontrako txertoaren bigarren dosia jartzen, lehen jasotzearen zortea izan duten bakanei. Ez dakit honi buruzko berrikerik zer oihartzun izanen duten. Erraza da pentsatzea orain hiru aste baino epelago hartuko dugula denok, sinesgaitzago, albistegiaren bigarren dosiaren irudiak emateko erabakia hartzen badute. Ez ukatzaile bihurtu garelako, hasierako gogoberotasuna baretzera (edo gogoberotasuna) eraman gaituztelako baiziki.



JIRA
Angel Erro

Mundu guztia bat dator txertaketaren eritimo patxadatsua bizkortu beharko luketela talde immunitatearen helburura noizbait, ahal izanez gero aurrean, iritsiko bagara. Lehengoz gaitzak ikusita, udarako denok egonen ginateke txertatuta. Datuak dira uzten ditugun bakoitzean eremu bakarretarikoa.

Europa munduaren museoa da eta ez dago, gehiago ala gutxiago, turismotik bizi ez den herrialderik. Hori izan nuen nik itxaropen ia bakarra. Horregatik bada ere, lehiatuko dira, uste nuen. Ezin izanen dute bigarren udaldi bat galduta. Dagoeneko ez dakit zer pentsatu. Hobe izaten da espektatiba handirik ez edukitzea.

Bigarren edo lehenengo dosia hozkailuan gordeta dagoen minutu bakoitza isurbidetik botatuta denbora, dirua eta osasuna da.

Zerrendak

Jaiotzen garenetik gaude zerrendaren baitan. Erroldatzen gaituzte, eta hortik aurrera, nonbait izena emanda egoten gara beti. Babes ofizialeko etxebizitza nahi duzula? Zerrendara. Oposizio bat atera nahi duzula? Zerrendara. Ordezkapenak egiteko moduan zaudela administrazio publikoan? Zerrendara. Langabea zarela? Zerrendara. Diru laguntzak nahi dituzula? Zerrendara. Sarrrerarik gabe geratu zarela ez dakit zein kontzertutara sartzeko? Zerrendara. Banketxeak ea maila ematen dizun edo ez zain zaudela? Zerrendara. Ebakuntza bat egin behar duzula? Zerrendara.



BIRA
Onintza Enbeita

Zerrenda zuri guztiek daukate zerrenda beltza, ordea. Inork ez du zerrenda beltzean egon nahi, baina asko sartu gintuzten behinola susmagarriak ginelako. Hor ibili gara urteetan bidaiatzea bezain gauza normalak egiteko ezbaian, zerrenda zurian egon diren indifferenziaren aurrean.

Zerrenda beltz bat gehitu nahi diote zerrendari: COVID-19aren aurkako txertoa jartzen ez dutenena. Askatasunen mundua mugaz beteta dagoen seinale! Norbaitek pentsatuko du txertatu gabe egoteak beste guztien osasuna jartzen duela arriskuan, baina zerrenda beltzean egoteak eguneroko gauza asko ukatu ditzake. Eta hori ez da inoren osasunerako ona. Bueno, esango nuke zerrenda zurietan egoteak ere antsietatea sortzen duela.

De Rerum Natura

@zaldieroa



Demonioak



HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

Txirritak hala bota zuten amarenak ziren sosak sakelaratu eta parrandan zebilela orkatila bihurritu ondoren: «Demoniua hemene, demoniua han, demoniua beti gorputzaren bueltan...». Bat baino gehiago sumatu dugu azken urteotan bertsolariok harrapatzen dugun leku gehiegizkoak kexu. «Bertsolariak hemene, bertsolariak han, bertsolariak beti gorputzaren bueltan».

Egia da bertsolariak suma daitetzkeela egun telebista-aurrezkele, tertuliakide, zutabegile, hedabideetako langile, idazle, antzerkirako testugile, kantuetako letragile... Amorratioaren ordez harrotasuna sortzen dit neri hainbeste demonio lanean sumatzeak. Eta ziurtasun bat: berto-eskola silabak neurtzen eta errimak lantzen ikasten den tokia baino asko da sakontasun handiagoko zerbait da. Jakin-mina, jendaurrekotasuna, sormena, lagunartea, hizkun-

tzarekiko mimoa... transmititzen da berto-eskolan. Fruituak ematen ditu horrek.

Aste honetan bertan izan dugu bi demonio txiki sarituren berri. Berak egindako bidaia baten kontatera luzea eta jakintzaren arlokoa da Miren Artetxeren tesia. Maddi Aiestaranena berriz, egin gabeko mendi-bidaia baten kronika laburra, sormenetik asko duena. Hizkuntza batek lotzen dituen bi mutur, abiapuntua, hamar-zortzi silabatan dutenak.

HIZPIDEAK

Txillardegia eta Donostiako Udala

Martxelo Otamendi Egiguren
Motamendi@berria.eus

Ramon Labaienek beti esaten zuten Bilbo hiriburu ekonomiko zela, Gasteiz hiriburu administratiboa, eta Donostia kulturaren hiriburu. Ez alferrik Donostiako kasuan.

Bederatzi urte Txillardegia hil zela, eta ia beste horrenbeste urte daramatzate haren ingurukoek Donostiako Udalarri eskatzen Txillardegia izena jar diezaioten Udala Liburuetegi Nagusiari. Beti erantzun bera: «Ez dago nahiko kontsentsurik Txillardegiren izena jartzeko». Benetako arrazoia? ETA-ko sortzaileetako bat izan zela, eta ETArekin biktimek ez dutela onartuko.

Bildu alkatetzan zegoenean, 2011n, Bilduk eta EAJK gehiengo osoa zezaketen, baina sozialistek ezezkoa eman zioten proposamenari eta jeltzaleak atzetik joan ziren. Zer abertzaletasun mota da Txillardegiren ezagutza hori ukatzen diona?

Zergatik ez da alkatetza kontsekuentea bere jokabidearekin eta agintzen du Txillardegiren liburuak kentzea liburutegieta, diru laguntzak ukatzea Txillardegiren liburuak dituzten eskultzegei eta eskolei, eta harremanak etetea EHUrekin Donostiako campusean Txillardegiren izena jarri diolako areto bati? Hori dena abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren izenaren, noski. Horren hari finarekin josten hasita, ba ote dakite Donostiako alkatetzan Txillardegia ETAn egon zen bitartean –1967an utzi zuten– ETAK ez zuela inor hil?

Bi Reality

Bi reality, ezer gutxi biek errealetik. Batean, beragatik espero dena egiten euskalduna. Eta ez da euskaraz egitea. Erne, eman begia pantailari gaur iluntzean: «Nataliak botaka egingo bigarren atalean. Zergatik?». Berritara ere, baserritarra ez baita deus baserritar izatera jarritako kaletarririk gabe. Usteko lehian, betiereko kitscha betikoen lepotik. Eguna joan eta eguna etorri mamitzen diren imajinarioz aritu da Karmen Zabaleta Twitterren, eta ez du Nataliaren gomitularrira kezka: «Twitterren, eta bestela ere, sinbologia oso bat dago euskararen inguruan: baserrita, azien-dak, mendia... irudi horiek arro-



LARREPETT
Iñigo Aranbarri

tzak dira hirian bizi den jendearentzat, hiri bateko periferiako langile batentzat. Ez da bere espazioa, ez eta bere errealtatea».

Bestean, bertako mendia tarranta eta pentze muskerrak aski ez eta haraindira daramate lehiakidea. Handiagoa behar da abentura eta handiagoa, hagitzez, konkistatu beharreko mundua. Horrexegatik dago simaur usaineko herri honetatik atera beharra, eta horrexegatik bozatzaren da hizkuntza txikia, besteak esango zukeen gisa, «jende gehiagorengana heltzeko». Behar da, ordea, Elkanorena jotzeko badarrik ere, nondarrak garen agertu, mintzoagatik auzokoekin nahas ez gaitzaten. Bada ordezkatzeko horretan arazotxo bat, konpontzen

zaila ez dena. Erabiliko ez duen elea baino sakonago, urrunago, gorago harrotuko du irabazleak. Juan Luis Zabalak jo du ituan ostera ere: «Norena da ikurrin hori? Nirena ez behintzat».

Horra 2021eko bi reality telebista publiko berean, hiztunak nor bere karikatutzatzean betikotu nahi dituztenak. Eta euskalduna, garotan trebe eta aberekin maisu, ez da gai mundurako. Horra Txomin Agirrerren zerura kondanatu atzera ere, Txillardegirik, Arestirik, *Euskaldunon Egunkaria*-rik izan ez duen herri batean bizi bagina bezala.

Kontua da ez ote dugun barneratua, ez ote zaigun geuri ere erosogoa egiten errealtatearen fartsa huan.

Zuzendaria: Martxelo Otamendi **Zuzendariordea:** Amagoia Mujika Tolarebipi
Edizio arduraduna: Idurre Lazkano **Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Publizitatea:** Bidera publizitatea
Lege gordailua: SS-0662/03 **Batzorde parekidea:** 0721184059 **Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea, Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain **Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30 **Faxa:** (0034) 943-30 09 43
Webgunea: www.berria.eus **Posta elektronikoa:** berria@berria.eus **Publizitatea:** publi@bidera.eu
Harpidetzatzailea: (0034) 943-30 43 45 **Date:** 17/01/2021 **Exemplar:** 5.458 **Editore:** Euskal Editorea S.L.
Directeur de publication: Martxelo Otamendi **Comission paritaire:** 0722184059

Delegation Labour: Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.eus **Ordezkaritzak:** Araba: Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzio faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba@berria.eus **Bizkaia:** Uribitarite kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzio faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.eus **Lapurdi:** Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.eus. **Nafarroa:** Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruhea. Telefonoa: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.eus.

Fikzioaren artea

Errealitatea.

Hitz egiteko modu erraz batean esan ohi da: errealitateak fikzioa gainditzen du. Zertara dator klixe hau?

Bizitza beti da gordina, biologikoa; kontakizuna beti da egosia, apailatua. Asmatuzko kontakizunak gertaera eta esperientzia batzuen pasarte labur eta aukeratuak josten ditu, besterik ez. Errealitatea, kontrara, akzioen eta erreakzioen kate amaiezina eta konplexua da, Historiak eta Fisikak beren baitan hartu ezinezkoa.

Zergatik errepikatzen da, orduan, hain bestetan klixeak?

Kontakizuna beti da zati bat, mendrea. Aldiz, infinitu bat da gorputza (gizakiaren azalaren zentimetro batek hiru milioi zelula dauzka, hotzaren detektore sentsorial bi, beroarenak hamabi, hamar ile, hama-bost sebo glandula, odol-hodi metro bat ia, ehun izerdi glandula, nerbio-zuntzen bukaeran hiru mila zelula errezeptore, ia lau metro nerbio, ukimen estimuluetarako

hogeita bost presio detektore, oinazea erregistratzeko berrehun nerbio-zelula); eta gainera automatikoa da: bihotzaren taupada, arnasaren



LAU BEGI
Gorka Arrese

hauspoa, urratsaren oreka, entzumenaren radarra, begiaren izpia, garunaren miraria. 70 urte bizi izan den pertsonak 645 milioi bider baino gehiagotan hartu du arnasa, 2.000 milioi bihotz taupada izan ditu, etc.

Ooo! Konturatuta gaude... Isis, Gilgamed, Elektra, Ikaro, Medea, Iami Oxoronga, Jesu Kristo, Xerezade, Hamlet, Kixote... pertsonaia literarioa ez daiteke izan heroi miko eta alderri bat besterik.

Werther, Frankenstein, Jane Eyre, Ahab, Alizia, Anna Karenina, Josef K., Jay Gatsby, Pippi..., pertsonaia askaldatu egingo gaitu, gure oroitzapenetan katigatuko da, konpainia egingo digu bolada batean, laguna bagenu bezala mintzatuko gara berari buruz, eta kito.

Desira.

Badakigu denok, zer esaten ari zaigun iragarkia: ni naiz onena, egokiena, praktikoenena; ni naiz gozoena, ederrena, desiragarria; eros nazazu.

Zer diosku kontakizunak?: hauxe naiz ni, hau da nire mundua, zatoz nirekin abenturan. Sedukzio eragiketa bat da kontakizun literarioa: eros nazazu.

Nola egiten da? Bi esanahi eta gehiago dituzten testuen bidez, adieraziz eta iradokiz, jarriz eta kontrajarriz. Erritmoa, tonua, herrialdea, subjektua, objektua, antzezpina, metafora, paradoxa. Agertzez eta ezkutatzez, dialektikaz eta poetikaz. Irrika, kilika, borroka, porrota, ezustea, itxaropena, festa, heriotza.

Errealitateak fikzioa gainditzen duela, horregatik hain zuzen ere, gustatzen zaigu harroko plantak eginez esatea: arteak errealitatea gainditzen du noizean behin. Luxoriko obeliskoak, Iliadako ge-

rrak, Odiseako abenturak, Beethovenen Fuga Handia, industria kutsatzaileari buruzko Bizente Ameztuoren koadroa...

Irauteko desirak sortua da obra piktorkoa, teatrala, musikala, literarioa. Laburra da bizitza, iraunkorra da artea.

Jakin mina.

Literaturak ez du helburu praktikorik; ez da eskola liburua, ekonomia txostena, legezko araudia, senda-agiria, albistegia. Literatura ez da guztiz argia; ez da ins-

trukzio kaiera, telefono gida, jatetxeko menua.

Literatura jolastia da, bihurria, zolia. Musikaren antza dauka. Ez du gizartea ordenatzeko funtziorik, jendea leziatzeko asmorik, mundua aldatzeko ambizioirik.

Literatur testua ez da masiboa, ez da ekuaziozkoa, ezta ere neutroa. Arraroa da, arauzkoaren eta ohikoaren bestelakoa, salbuespen moduko bat, klixearen aurkakoa, suspentse kutsukoa, ulergaitz samarra batzuetan, konnotatiboa. Edertasun suertebat dauka, toxikotasun maila bat, pozoizigarrirren bat. Jakin-mina pizten du, negar eragin, beldurra eman, grazia egin; hunkigarria da, dramatikoa edo komikoa.

Zer akats dauka? Literaturaren forma konplexuen aniztasuna laster iraukitzen da gure memorian, efektuko arrastoa luza-roan utzi arren adimenean.

Eta zein akats dauzka errealitateak? Denboraren pisua lehenik (gehiegizkoa), eta denboraren lausoa gero (difusoa).

Iragana ez da izan zen hura guztia, oso-osorik; izandakotik irauten duen hau baizik: oroitzapenak.

Horregatik esaten dugu: musika gailendu egiten zaio literaturari, melodia gogoangarria daukalako, errepikagarria: festa eta dantza; eta gainera ez du itzulpenik behar: tumatxa.

Hala eta guztiz ere, literaturak egoskor segitzen du aurrera, ez du amore ematen: kadentzia dauka, hoskidetasuna, oihartzuna, ñabardura, hitz jokoa, esaldi harrigarria, tentsioa, ideia bat, zentzu bi, milaka pertsonaia: jendea bizitzen, maitatzen, hiltzen.

Iheskorra.

Munduari begiratu eta jendearen bizimodua deskribatu, galderak askatzen ditu literaturak (zer zentzu dauka hondamendi honek?, zein ideiekin aterako gara onik desastre honetatik?, etorkizunaren iragana ote da presentea?, zergatik maite dut gure garai hau?).

Tamalez, mundua toxikatzen eta suntsitzen ari garen aro honetan, estu dabil jendea, ez dago galderetarako, erantzunen gose da, presa dauka, arazoa desegin nahi du segituan. Eta kasu honetan, literatura ez da oso praktikoa. Literaturak bere kontuen anbiguotasunarekin arnasa besterik ez dizu emango, adore apur bat, zalantza unean egonaria, amultsutasun dosi bat.

Idazleak aspaldi ikasi zuen: solidoa izan behar da sintaxian, zehatza egiturari; eta zentzuaz den bezainbatean likidoa, iheskorra, multiplea.



IRATIEGUREN

**ZUZENDARIEN
GALEUSCA****Maria Obelleiro**

Nòs Diari-ko zuzendaria



Feijoo gabeko aro baterako prestatzen ari da PP Galizian, eta Feijook badu Espainiako politikarako saltoa egiteko itxaropena

**Vicent Partal**

Vilaweb-eko zuzendaria



PSC, orain, beldur da ea Kataluniako hauteskundeak maiatzean eginez gero 'Illa efektua' ez ote den egongo guztiz itzalita ordurako

**Martxelo Otamendi**

BERRIAko zuzendaria



Espainiako ezkerrek barneratu beharko du noizbait gure nazioek eskubidea eduki behar dutela etorkizuna mugarik gabe erabakitzeke

Feijoo, Madrilera begira

Mariano Rajoyren betiereko oinordekoa izan da Alberto Nuñez Feijoo, baina galdu egin zuen ondorengotza gudua, babsa falta zizaiolako Alderdi Popularraren barruan, eta beldurra zegoelako ez ote ziren argitara aterako iraganeko kontu batzuek, Feijoo Galiziako narkotrafikoaren munduko izen ezagun batzuekin lotzen zutenak. Azkenean, uko egin zion Alderdi Popularreko presidente izateko lehiari, konturatu baitzen alderdiko sektore garrantzitsu batzuek zalan-tzan jartzen zutela Rajoyren legatua, eta ikusi baitzuen ez zuela babes nahikorik lortuko beste hautagaiei aurrea hartzeko.

Feijook erabakia du legealdi hau bukatzean amaiera emango diola Xuntaren buru gisa

eginiko biderei. Horrek ez du esan nahi ibilbide politikoa hor bukatuko duenik. Hala erakusten dute Galiziako egungo gobernuaren egituran izandako aldaketek, presidentearen laguntzailerik gertukoenetako batzuek haren lantaldeetik alde egin izanak, Pedro Sanchezen gobernuaren kontrako oposizioko buru izateko duen gogo biziak, eta haren ordezkotzako hautagaien mugimenduek. Feijoo gabeko aro baterako prestatzen ari da PP Galizian, eta Feijook badu Espainiako politikarako saltoa egiteko itxaropena, PPkoen buru izateko eta bere burua estatuko gobernuko presidentetzarako hautagai gisa aurkeztekoa.

Feijook uste du Pablo Casadoren ahuleziaren kontura indartuko dela. Feijooen ingurukoek elikatu egiten dute Casado buruzagi

ahula delako ideia: esaten dute oso babes txikia duela alderdian, aurka dituela botere instituzionala duten lurralde agintari gehienak, eta ez dela gai babesa lortzeko eskuinik muturrekoenetik harago, ezta botere ekonomikoari konfiantza helarazteko ere, zeina, hain zuzen, altematiba baten bila ari baita Casado ordezkatzeko.

Feijook beti jokatu du Galizian dagoen politikari madrildar baten moduan. Hain zuzen, Espainiako politikarako jauzia ematen lagunduko dion tresnatzat dauka Xuntako presidentetza. Orain, espero du itzulerako bidea erraztuko diotela pandemiak eragindako krisiak eta Casadoren ahuleziak. Helburu hori lortzeko ari dira lanean bai Feijoo, bai haren lagun gertukoena.

Hauteskundeak bertan behera

Bertan behera geratu dira Katalunian otsailaren 14an egitekoak ziren hauteskundeak; argudiatu dute ezin direla egin pandemia dela eta. Funtsean, arriskutsuak izan daitezkeelako osasun aldetik, beldur direlako absentsentzia ez ote den oso handia izango, eta ez dakitelako zer egin positiboekin eta kutsatuekin, teoriar botoa eman ezingo luketen horiekin. Azken argudio hori da garrantzitsua, nire iritiz, eta lehen ere eztabaida handia izan zen horretaz Galizian; izan ere, ezinago arrisksua da baldintza bat bete behar izatea botoa eman ahal izateko, eta aski ez izatea herriaraztea.

Eztabaida handi bat izan dute erabakia hartu aurretik; batik bat, PSOE tematuta zegoelako hauteskundeak egin behar zire-

la. Eta kontu horrek galdera bat sortzen du: ea Espainiako justizia, hain politizatua, kapaza izango ote den hauteskundeak eginarazteko. Gainerako alderdiak, gutxi gorabehera, ados daude. Batzuek, Juntsekoek adibidez, uste dute egin litekeela, baina ez daude erabakia- ren kontra; CUPekoek ustez, berriz, hauteskundeak ez dira egin behar, baina bat dotoz adostasunez hartu behar dela erabakia.

Eta horrek agerian jartzen du Espainiako Gobernuaren eta sozialisten burugabekeria. PSCk kalkulatu zeukan zer-nolako eragina izango zuen Salvador Illa hautagai aurkezteak, irudi kolpe horren oihartzuna hauteskundeak egin eta segituan amaituko zelakoa. Eta, orain, beldur da ea hauteskundeak maiatzean eginez gero *Illa efektua* ez ote den egongo guztiz itzalita ordurako.

Kontuan izanik jaun hori Osasun ministroa dela, egiaz ulergaitza da hark ez hartzea aintzakotzat hauteskunde deialdi horrek arrisku nabarmena dakarrela osasun aldetik. Hori, ordea, beste adibide bat baino ez da, hain zuzen, erakusten duena nola jokatu duen Pedro Sanchezen gobernuak, beti politika eta alderdia buruan, eta ez osasuna. Lehenik, militarismo barregarri eta eragingabe hura baliatuz; gero, arazoak autonomietara lekualdatuz; eta, orain, hauteskundeetan kontuan.

Bukatzeke, bada gogoan hartu beharreko beste datu bat ere. Zuen herrialdeetan gertatu zenaz bestera, hemen oraindik ez da amaitu legegintzaldia. Hauteskundeak ditugu Espainiako justiziak Generalitateko presidentea eraistea erabaki zuelako. Pandemia gorabehera.

Nolako errepublika?

Ez al dago nahiko errepublikazale Espainian indarrean dagoen monarkia kendu eta errepublika ahalbidetuko duen prozesuari abiada indartsua emateko? Alferrrikako lana izango da bere buruari errepublikano esan eta benetan monarkikoak baino monarkikoagoak diren alderdi eta erakundeen zain egotea. Badakigu esparri horietatik ez dela ezer sortuko, ez bere kabuz behintzat, eta ahalegin handia egingo dute *statu quo*-a ez aldatzeko. Elkarren kontu asko dakizkitez erregerak eta alderdi handi horietako buruzagi ohiek.

Zaila da irudikatzea egoera bat errepublika berreskuratzeko aukera handiagoa erraztuko

duenik. Hamarkada oso bat darama Espainiako monarkiak eskandaluz eskandaluz; zer gehiago gertatu behar da Espainian korronte indartsua sortzeko?

Errege zahar Juan Carlos Borboikoak –Francok errege izateko egin zion eskaintza onartuta– lapurtu egin zion erregetza Juan Borboikoak aitari. Horixe bera egin zuen Felipe Borboikoak –famiaren oihiturari jarraituz– bere aitarekin, abdikarazi eta berrikiago atzerriar igorri; aitaren jardunak zipriztin ez zezan. Instituzioari eustea helburu.

Espainiako ezker errepublikanoak urteak daramatza eskatzen gure hiru nazioetako ezkerrei bat egin dezatela errepublika berreskuratzeko ahalegin horretan; alegia, bidaide

izateko gonbidapena egiten. Guk hirurok ezagutzen ditugu gure herrietako independentzia nahi duten herritar asko prest daudenak ahalegin horretara batzeko, baldin eta sortuko den errepublika horrek onartzen badie gure hiru herriei estatutik era demokratikoan irteteko eskubidea.

Baldintza hori agertzean hasten dira eskaintzaren egileen aldetik azalpen adbertsatiboak erantzunetan, betiko «bai, baina...» ezagunak. Espainiako ezkerrek barneratu beharko du noizbait gure nazioek eskubidea eduki behar dutela etorkizuna mugarik gabe erabakitzeke, herritarrek hala nahi badute. Ezkerreko, errepublikanoa eta... autodeterminazioaren aldekoa ere bai? Ez dakit.

Zer lege behar dugu trantsizio energetikoaz eta klima aldaketaz?

**Pablo Lorente Zapateria
eta Mirian Uhalte Esteban**
Nafarroa Bizirik Nahi Dugu

Nafarroako Parlamentuan egindako 2020ko Erkidegoko Egoerari buruzko azken eztabaidan, ebazpen bat onartu zen Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legearen izapidetzea premiazko. Berebiziko eragina izango duen legea da: nola egingo diogu aurre klima aldaketari? Nola ordeztuko da erregai fosilen erabilera? Nola egokitu beharko lirake sistema ekonomikoa, sanitarioa, gure mugikortasuna, dauzkagun azpiegiturak aurkituko ditugun arriskuen aurrean? Gure bizitzetan hainbesteko garrantzia eta eragina duten gai hauen aurrean, Nafarroa Bizirik osatzen dugun ingurumen-, gizarte- eta sindikatu-erakundeok gogoeta kritikiko batzuk azaldu nahi ditugu planteatutako aurreproiektuaren inguruan.

Lege bat presio politiko eta enpresariaren menpean

Beharrezkoa den lege-proposamen baten aurrean gaude, aspaldi eztabaidatu behar zena. Baina gure kezka adierazi behar dugu eztabaida, onarpena eta erregelamendu-garapena gertatuko diren testuinguruatik. Berdearen mozorropean, azpiegitura handiak mantentzen eta ugaltzen ari dira (AHT, Esako urtegia, Nafarroako ubidea, eoliko- eta eguzki industrialdeak, hondakinak tratatzeko megainstalazioak, Castejongo zentralak, meatzaritza estraktibista, hidrogenoa ekoizteko energia-premia handia eta 5G garatzea). Eta horrekin batera, enegarrenez, multinazionalen asaltoa jasaten ari gara, orain Berreraikuntzarako Europako Funtsein bala.

Klimaren eta energiaren arazo nagusia gizarte kapitalista da. Eta gero eta gehiago dira zientziaren alorretik hori agerian uzten duten analisiak. Planetaren egoera globala laugarria da (biodibertsitatea galtzea, ekosistemak aldatzea...) Berotegi-efektuko gasen isurketek maila jasanezinetan jarraitzen dute. Klima aldaketa (kaosa, ingurumenean eta gizartean dituen ondorioekin, azkar eta intentsitate basatiz gertatzen ari da. Horren atzealdean, ekoizpen- eta kontsumo-sistema global asezin bat dago, nekazaritza eta abeltzaintza industrialekoa, petrolio eta gasa euskarri energetiko gisa dituen, eta hazkunde muga-

gabea eta etekina helburu bakarrak dituen. Ondorioz, CO2 eta berotegi-efektuko beste gas batzuen isurketak nabarmen murrizteaz gain, beharrezkoa da zalantzan jartzea egungo gizarte-eredua: kontsumo gutxiagorekin, tokikoagoa, banatzaileagoa eta desmerkantilizatuagoa. Zalantzan jarri behar dugu Nafarroak nazioarteko merkatuan duen posizioa bera multinazionalen eskuetan, eta hurbileko ekonomia berri bat sortu behar dugu, gizarte soila antolatuz eta munduko eskualde pobretuekiko solidarioagoa izango dena.

Parte-hartze prozesua galarazi dute. Eta ez dugu esaten esateagatik. Hona hemen frogak: aurreproiektua ekainean jarri zen jendaurrean, hamabost egunez bakarrik, pandemia egoeran eta epeak luzatzeko eta azterketa-foroak sortzeko eskakizunei jarraituz egin gabe. Makineria instituzional eta administratiboa lardieriaz aritu da, arrazoizko epeak eta eztabaidatzeko aukerak ukatuz. Seinale txarra da, eta hasieratik zalantzan jartzen du aurreproiektuan jasotako gobernantza partekatua eredu.

Burujabetza energetikorako plangintza

Aurreproiektuan faltan sumatzen da energia, uraren antzera, ondasun komun, urri eta lehen premiazkotzat hartzea. Erabaki energetikoak oligopolio energetikoen esku geratzea saihestu behar da. Denak ez du balio deskarbonizazio-prozesuan. Plangintza demokratiko bat behar da, behar dugun eta eskuragarri dugun energia-kopurua identifikatzeko; energia hori lehentasunezko erabileretik nola egokitu eta nola banatu behar den ezartzeko; diseinu deszentralizatuaz izateko, udal-jardueraren ahalmen handiagoa izateko eta kudeaketan herritarren kontrolpean jartzeko. Plangintza bat behar dugu subiranotasun eta justizia energetikoa bermatzeko, eta ez negozio energetikoa beste engranaje bat bihurtzeko. Gai horietan ez sakontzeak dakar gure erkidegoan diren energia ekoizteko eta banatzeko tokiko esperimentzia baliagarriak anekdotak gisa bihurtzea, eta enpresa handien esku uztea energia-merkatuaren kontrola, Iparraldeko herrialdeetan hazkunde-ereduari eusteko asmoz, Hegoaldeko herrialdeetako baliabideen kontura.

Helburu eta konpromiso argi eta anbiziorik gabe

Aurreproiektuak ez du anbiziorik, eta ez da nahikoa ezarritako helburuei dagokienez. Zenbait adibide. 1) Hala, 2030erako

berotegi-efektuko gasen isurketak %45 murriztea eta 2050erako %80 murriztea adierazten du testuak (2005ekoekin alderatuta, urte horretan izan baitziren isurketak gehien); Europako Parlamentuak, berriaz, 2030ean %60ko murrizketa eskatu du, gutxienez, 1990ekoarekin alderatuta. 2) Aurreproiektuak ez du karbono-aurrekonturik, ezarritako mugak ez gainditzeko urtero zenbat isurketa erabilgarri dauden adierazten duenik, Katalunian eta Balear Uharteetan egiten duten bezala. 3) Helburuak ez dira zehaztu, ez nekazaritza-sektorean berotegi-efektuko gasak murrizteko, ez nekazaritza ekologikoa sustatzeko, ez pestiziden eta ongari sintetikoen erabilera murrizteko, ez eta lurzuraren erabilera-aldaketak murrizteko ere (adibidez: Nafarroako Ubidean proposatutako ureztatze berriak). 4) Ez da energia-kontsumoa murriztearekin lotutako helbururik tasatzen, eta ez dira bete beharrek beharrezko zehazten. 5) Ez dira inoiz adierazten CO2 murrizteko helburu horiek lortzeko energia-kontsumoan eman beharko lirakeen eraldaketak, Emisioei eta kontsumoei dagokienez helburu zehaztugabeak mantentzeak erantzunkide egiten gaitu gure eta gizateriaren etorkizunerako dakartzaten ondorio lazarrietan.

Trenbiderik gabe, ez da serioa mugikortasun iraunkorraz aritzea

Aurreproiektuak mugikortasun jasangarria bultzatzeko beharra planteatzen du, ibilgailu elektrikorako trantsizioa nabarmenduz (partikularrak, publikoak, errepi-

dako garraioa...), baina trenbidea aipatu gabe, mugikortasun kolektiborako modurik errazena eta elektrifikatzeko eta deskarbonizatzeko errazena. Bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko modalitate horri uko egiteak, eta horren onuradun izan daitezkeen milaka pertsonaren eguneroko jokatibetan ez integratzeak arduragabekeria handia adierazten du. Ibilgailu elektrikoak alternatiba bakar gisa pentsatzeak ikuspen laburra adierazten du, eta horiei lotutako arazo eta muga berriak ezkutatzeko dituen material finituen eskuragarritasuna, energia-kontsumo handiak eta lotutako prozesu kutsatzaileak, ibilgailu astunetan sartzeko zailtasunak, hala nola makinerian, kamioietan).

Alarma: nekazaritzako lurra arriskuan dago

Nekazaritzako lurzoruan plaka fotovoltai-koak jartzea debekatuta egon behar da. Ez da nahikoa hiri-lurzoruen edo lurzoru urbanizagarriaren lehentasunezko erabilera gomendatzea. Beharrezkoa da nekazaritza-lurra babestea, kantitateari eta kalitateari dagokienez; izan ere, lurzoru urria da, berriztatzea eta funtsezko gure elikadurarako. Eguzki-poligonoak, berdez jantzita badaude ere, landa-ingurunearen heriotza dira.

Gehiengoaren sakrifizioa dakarren trantsizio energetikorik ez!

Datozen hamarkadetan aldaketa sakonak eta egoera mingarriak izango dira, desberdintasunaren eta monopolioen boterearen eskemak mantentzen ditugun neurrian. Dagoeneko ikusten ari gara: milaka lanpostu mehatxatuta, deslokalizazioak, lurzorua suntsitzea eta nekazaritza-jarduera arriskuan, pobretzea, eta milioika euroko makroproiektuak, jendearren ongizatearen bizkar.

Une honetan ez dakigu noiz eztabaidatuko den Legebiltzarrean aurreproiektu hau, baina bada garaia gehiengo sozialari entzuteko. Ez dugu nahikoa lege bat gure eredu energetikoa birplanteatzeko eta energiaren ekoizpena despribatizatzeko. Horrekin batera, hainbat neurri hartu beharko dira: lanaren eta aberastasunaren banaketa, eragindako pertsonen eta eskualdeei arreta emateko planak, ongizatea birplanteatzea muga naturalak kontuan hartuta, autoeustearn eta alferrikako kontsumoak murriztearen kultura berria, eta antolaketa deszentralizatu eta demokratizatu. Aldaketa Klimatikoa aurrean, trantsizio energetikoa berriztagarriak soilik jartzea baino zerbait serioagoa da.

Aurreproiektuan faltan sumatzen da energia, uraren antzera, ondasun komun, urri eta lehen premiazkotzat hartzea. Erabaki energetikoak oligopolio energetikoen esku geratzea saihestu behar da. Denak ez du balio deskarbonizazio prozesuan

«Gogoari eta ilusioari dagokienez, gu gara irabazteko favorito»

Dani Garcia • Athleticen jokalaria

Espainiako Superkopako finalean Bartzelona arerio «zaila» izango dela uste du Dani Garciak, baina Zumarragakoa prest da Athleticekin lehendabiziko garaikurra irabazteko.

Jon Ander De la Hoz

Ostiral eguerdian heldu zen Atleticen espedizioa Sevillara (Espainia). Orduz geroztik, gaur iluntzean jokatu duten partida prestatzen ari dira zuri-gorriak. Haien artean da Dani Garcia (Zumarraga, Gipuzkoa, 1992). Bartzelona garaitzeko «gauzak ondo» egin beharko dituztela uste du erdilari gipuzkoarrak.

Espainiako Superkopako finala jokatu duzu gaur Athleticekin. Garaikur baten lehian aritzea beti da ona, ezta?

Noski. Sasoa hasi genuenean, helburu batzuk finkatu genituen, eta hau zen horietako bat. Finalera heltzea lortu dugu, eta orain irabaztea dugu xede.

Ostegunean Real Madril kalera zenuen. Epaileak amaiera adierazi zuenean poztasun ez-tanda bat izan zen zuen inguruan.

Halako taldeen aurka aritzen zarenean, badakizu edonoiz susperraldia izan dezaketela. Oso onak dira, eta, hain aukera gutxi egonda, gure onerako hitz egiten du horrek. Zaleek sufritu zuten, eta guk, gehiago.

Sevillan zaudete ostiralaz geroztik. Nola kudeatzen dituzue kirol arlotik kanpora dauden orduak?

Kartetan jokatu dugu, asko. Zortzi-bederatzi lagun elkartzeko, musean eta halakoetan aritzeko. Niri ez zait siestarik egitea gustatzen: *Play Station*-ean, kartekin, edo telesailen ikarotzen dut denbora. Elkarrekin asko egoten gara, eta ordu horiek arintzea lortzen dugu.

Nola definituko zenuke finalaren atarian duzuen aldatzea?

Finalerdietan Real Madril kanporatu eta finalaren atarian egonda, imajina dezakezu nola gauden.

Halako egoerak gutxitan biziko ditugu gure kirol bizitzan, eta Superkopako finala jokatzeko, eta, lortuz gero, irabazteko, gure gogon geratuko dira betirako. Horregatik, amorratzen gaude partida-ko ordua heltzeko.

Irrika al da hori ondoan adierazten duen hitza?

Bai, bai. Ostegunean irrika handiko Athletic bat ikusi zen; lehen zati bikaina egin genuen. Gero, normala da: Real Madril zegoen aurrean. [Espainiako] liga asko irabazi ditu, eta Europako garaikur asko ere bai. Estutu gintuzten, baina normala da.

«Ostegunean irrika handiko Athletic bat ikusi zen; lehen zati bikaina egin genuen. Gero, normala da: Real Madril zen»

«Niretzat, urrats zaila izan zen Eibar utzi eta Athleticera etortzea, baina halako partidak jokatzeagatik egin nuen»

Hala ere, partida osoa jokatu zenuen ostegunean. Zeintzuk izan ziren garaipenerako gakoak?

Batez ere, haieki aukerarik egiten ez izatea. Gero, baloia genuenean nortasunez jokatu genuen, erasora egin eta arriskua sortzeko. Uste dut hori lehen zatian gertatu zela, eta gako izan zela.

Sufritzeko uneetan lanerako arropa jantzi al zuen taldeak?

Agerikoa da baietz. Bagenekien halako uneak izango genituela. Ez da harrotzeagatik, baina atzean ondo aritzen gara. Hori da gure indargunea: sufrututa ere, banuen lasaitasun pixka bat.

Lasaitasunak lasaitasun, une estuak ere izan zenituzten amaiera aldera. Nola bizitu zenituzten?

Bereziki, VARa dela eta epaileak

jokoa geratu zuenetan bizi izan genituen estutasunak. Gaintzean, nahikoa lan izaten dugu kontzentrazioa mantentzen.

Zer pentsatu zenuen 96. minutuan epaileak VARa begiritzera egin zuenean, Real Madril aldeko penaltia adierazi ala ez erabakitzeko?

Lehendabizi, [Unai] Nuñezi galdetu nion zer gertatu zen. Hark esan zidan ez zuela eskuz ukitu, eta erabateko konfiantza nuen. Baina jabetu nintzen epaileak denbora asko zeramala jokaldia aztertzen, eta ez nekien zer adieraziko zuen. Jainkoari eskerrak, ez zuen ezer adierazi.

Athleticen ostegunean egindako lehen zatia sasoiako onena izan al zen?

Ez. Partida onak egin izan ditugu, baina Real Madril aurrakoa finalerdia izanda, oihartzun gehiago izan du. Uste dut urtean zehar partida onak egin ditugula, eta erregularitasuna bilatu behar dugula.

Kontuak kontu, finalera heldu zarete, eta Bartzelona izango duzue arerio. Nolako partida espero duzu?

Argi dago haiek direla irabazteko favorito, zer esanik ez [Lionel] Messi jokatzeko badu. Baina gogoei eta ilusioari dagokienez, gu gara favoritoak. Dena emango dugu zelain, eta ea irabazteko lortzen dugun.

Bartzelona larri aritu zen sailkatzeko, sufritu egin baitzuen Realaren aurka. Aurrekari bat izan al liteke?

Ez dut uste. Realak izugarriko partida egin zuen; neurteta fisikoa izan zen, eta aukerak bi aldeetan egon ziren, baina ez die kalterik egingo.

Zertan asmatu beharko du Ath-



leticek garaikurra lortu ahal izateko?

Halako taldeen aurka, atzean sendo aritzea, eta erasoan dituzun aukerak aprobetxatzea dira gakoa. Defentsan ondo moldatzen gara, baina haiek erasoan unerik onenean daude. Dena eman beharko du taldeak.

Bartzelona dena irabazteko hautagai izan ohi da, baina finaletan bestelako faktoreek ere zeresana dute.

Lehen esan dizut: guk gutxitan jokatuko ditugu halakoak, eta ilusioa eta gogoia handiagoak izango dira. Zelaiaren erakutsi behar dugu hori. Baloia abian jartzean ere asmatu beharko dugu, ordea.

Athleticek final bat irabazi zion Bartzelonari, orain bost urte. Ordukoaren oihartzunik heldu al zaizue?

Beti oroitzen dira halakoak. Atzo, [hoteleko] gela batean egon ginen batzuk, partida haien laburpena ikusten. Gure unea dela uste dut, eta orain bost urtekoaz oroitzen diren moduan, ea gaurkoaz oroitzen garen etorkizunean.

Pixkanaka, ari al da Marcelino [Garcia Toral, entrenatzailea] bere zigilua ezartzen?

Tira, estiloa aldatzea ezinezkoa da aste pare batean. Gaizkarekin [Garitano, prestatzaile ohia] bi urte eta erdian hartu genituen automatismoak ondo gogoan ditugulako. Halere, esaten digu baloiarekin ausartago izateko, barrutik jokatzeiko; Gaizkarekin ezberdina zen. Entrenatzaile bakoitzak bere kaiera du.

Finalerako sailkatu berriren, jokalaririk asko eta Marcelinok berek Garitanorentzat laudorioak izan zenituzten. Harena ere bada lorpenaren zati bat, ezta?

Zatia? Askok, guztia ez esateagatik. Ostegunean egindakoa iaz egin genuenari esker izan zen. Haren eskutik egin genuen. Haren agurrean esan nuen eran, ziur naiz etorkizunean jendeak Gaizkak egindakoa baloratuko duela. Ziur naiz poztu zela. Uste dut bere unean errespetua galdu zitzaioela, etxekoa denean, eskalduna, eta lan izugarria egin duenean guregatik eta Athleticengatik. Hori da niretzat pena: giroan, oro har, izan duen errespetu falta.

Lortuz gero, estreinako titulua zenuen Athleticen elastikoarekin. Zer esanahi luke horrek zuretzat?

Niretzat, urrats zaila izan zen Eibar uztea Athleticera joateko, baina halako norgehiagokak jokatzeagatik egin nuen. Ea dugun; askoren memorian gordeko da. Lehen Mailan luzaz jokatu arren, halakoak oroitzen dira.



Athleticeko jokalariek, atzo, Superkopako finalaren aurretik egindako azken entrenamenduan. MANUEL VIDAL / EFE

Ametsa hezurramitzeko ordua

Athleticek Espainiako Superkopako finala jokatuko du gaur, Bartzelonaren aurka • Jokalariek «oso motibatuta» eta «anbizioz beterik» daudela nabarmendu du zuri-gorrien teknikariak

Iniigo Lasa

Bizi ametsa. Horrela dio Athleticek azken denboraldietan bere egin duen esloganak. Gaur, ametsari forma eman eta egia bilakatzeko aukera izango dute zuri-gorriek, Espainiako Superkopako finalean. Aspaldiko ezagun bat izango dute aurkari: Bartzelona. Ez da arerio erraza, baina partida bakar batean edozer gerta daiteke. Urteko lehen titulu eta ametsetik 90 minutu eskasera dago Bizkaiko taldea.

Konfiantzaz gainezka iritsi dira bi taldeak gaurko partidara. Zuri-gorriak Real Madril kanporatze-tik datoz: espainiarrei 2-1 irabazi zieten osteguneko finalerdian. Azken hamabost minutuetan sufritu egin bazuten ere, zuri-gorriak partidaren nagusi izan ziren, eta guztiz merezita sailkatu dira. Finaleko aurkariak ez dio beldurrik ematen Iñaki Williamsi: «Ez dizkigute gauzak erraz jarriko. Baina gu Real Madril kanporatze-tik gatoz, eta finala irabaziz gero balentria izugarria osa dezakegu. Gu, gainera, mendeen hartzeko oso talde zaila gara».

Bartzelonak, futbol alorrean denboraldiko garairik gozoenean

egon arren, Athleticek baino dezentere gehiago izertitu zuen finalerako sailkapena eskuratzeko. Penaltietan gailendu ziren katalanak Realaren aurka, 120 minutu baino gehiago iraun zituen partida zirrarragarri batean. Ronald Koemanen taldeak egun bat



Guk gure aukera apurrak baliatu behar ditugu. Ahal dugun guztia egingo dugu titulu hau irabazteko»

Marcelino Garcia Toral
Athleticeko entrenatzailea

«Irabaziz gero, balentria izugarria osa dezakegu. Gu, gainera, mendeen hartzeko oso talde zaila gara»

Iñaki Williams
Athleticeko jokalaria

lehenago jokatu zuen bere finalerdia, asteazkenean, baina partidaren ejiertzia fisikoa nabarmen handiagoa izan zen. Leo Messik, gihar arazo batzuk zituela medio, ez zuen jokatu txuri-urdinen kontra. Ematen duenez, gaur

lehiatzeko prest egongo da Bartzelonako izarra.

Orain dela aste eta erdi jokatu zuten elkarren aurka gaueko bi finalisten, Bilbon jokatu zen ligako partidaren. Bisitariak hiru puntuak poltsikoratuta atera ziren San Mamesetik, etxeko taldeari 2-3 nagusituta. Hura Marcelino Garciairen estreinako partida izan zen Athleticeko entrenatzaile modura. Hiru partida besterik ez daramatza teknikari espainiarrik, eta bigarrenengo neurtuko ditu indarrak Koemanen taldearen aurka.

Protagonista berberak, baina testuinguru guztiz ezberdina. Finala da gaurkoa, eta finalek ez dute zerikusirik izaten gainontzeko partidekin. Bartzelonako entrenatzaileak ez bezalaxe, Marcelinok garrantzi handia ematen dio Superkopa irabazteari: «Bartzelonak Athleticek baino aukera gehiago ditu titulu bat irabazteko. Hori dela eta, guk gure aukera apurrak baliatu behar ditugu. Ahal dugun guztia egingo dugu titulu hau irabazteko».

Garaikurra lortzeko, teknikari espainiarrik taldeko jokalaririk guztiak izango ditu eskura; Iñaki Williams, Dani Garcia eta Iker

Muniainek azken egunetan arazo fisikoak izan badituzte ere, atzo normal entrenatu ziren.

Superkopako klasiko bat

Ez da lehenengo aldia Bartzelonak eta Athleticek Espainiako Superkopako finala elkarren aurka jokatzen dutela. Azkenekoa 2015-2016 denboraldian izan zen, eta zuri-gorriak izan ziren nagusi. Orduan, bi partidatara jokatzen zen, eta bizkaitarrek finala erabakita utzi zuten lehen partidaren, San Mamesen 4 eta 0 gailenduta. Bost urte geroago, berriro ere Bartzelonako jokalarien begiradepan, titulua altxatzeko beta izango dute zuri-gorriek.



BARTZEELONA - ATHLETIC

Bartzelona. Ter Stegen; Alba, Lenglet, Araujo, Mingueza; De Jong, Busquets; Pedri, Griezmann, Dembele; eta Messi.

Athletic. Unai Simon; Balentziaga, Iñigo Martinez, Nuñez, Capa; Dani Garcia, Unai Vencedor, Iker Muniain, Oscar de Marcos; Raul Garcia eta Iñaki Williams.

Epailea. Jesus Gil Manzano.

Lekua. La Cartuja estadio

Ordua. 21:00 (Vamos).

Zaplaztekoa ongietorri moduan

Alavesek astindua jaso du Almeriaren aurka Abelardoren debutean, eta Kopatik kanpo gelditu da • Inongo goserik gabe aritu da taldea • Pina egotzi egin dute lehen zatian

5

0

Almeria	Alaves
1 Makaridze ●●●	13 Sivera ●●
20 Balliu ●●●	21 Martin ●●
18 Maras ●●●	5 Laguardia ●●
24 Cuenca ●●●	22 Lejeune (70') ●
15 Akieme ●●●	23 Ximo ●
5 Morlanes ●●●●	26 Javi Lopez ●
22 Samu Costa ●●●	17 Marin (60') ●
8 Petrovic (74') ●●●	20 Pons ●●
17 Corpas ●●●●	8 Pina ●
16 Lazo (65') ●●●	29 Borja Sainz ●●
19 Carvalho ●●●	18 Burgui (60') ●
23 Villalba (65') ●●●	16 Edgar ●
10 Aketxe ●●●●	24 Jota Peleteiro ●
14 Lucas (65') ●●●	19 Manu (60') ●●
9 Sadiq ●●●●	10 Guidetti ●●
7 Villar (74') ●●●	6 Battaglia (46') ●●

Gola. 1-0: Sadiqek (8. min.), 2-0: Aketxek (44. min.), 3-0: Sadiqek (45. min.), 4-0: Battagliak, bere atean (52. min.), 5-0: Villarreke, penaltiz (81. min.). **Epalea.** Alberola Rojas. Txartel horiak Almeriako Costa eta Corpasi. Txartel gorria Alaveseko Pinari (34. min.).

Eñaut Agirrebengoa

Ahazteko moduko hasiera izan du Abelardo Fernandezek bigarren aroak Alavesen aulkian. Arabarrek Espainiako Kopako final-hamaseirenetako lehia jokatu zuten atzo Almerian, eta oker atera zitzaizen den-dena. Horren isla da markagailua: 5-0. Kopatik kanpo gelditzea ez da drama Alavesentzat, baina atzo emandako irudi tamalgarriak kutsatu egin dezake Ligako ibilia. Birrintu egin zituen Bigarren Mailako talde batek, eta halako deskalabruak arrastoa utzi ohi dute jokalarien gogoan.

Ezin zaio askorik leporatu Abelardori. Taldera iritsi eta hiru egunera izan zuen debuta; hots, goizegi zen haren eskua nabaritu zedin. Entrenatzailea aldatzean, jokalarien jarrera izaten da aldatzen den lehen gauza, eta hala gertatu zen atzo; okerrera, bistan denez. Hamaikako lehiakorra zelairatu zuen prestatzaileak, baina jokalariek ez zuten borrokatzeko prestasunik erakutsi. Maila bat beherago aritu arren, aurkari gaiztoa zen Almeria, eta gasteiz-

tarrek ez zuten behar bezain serio hartu. Bada, utzikieriak ondorio gogorak ekarri zizkien.

Lehen zatia bukatzerako, erabakita zegoen kanporaketa. Almeria gogotsu eta agintari zelairatu zen, eta zortzigarren minutuan hartu zuen aurrea, Sadiqen bidez. Alavesen erreakzioa hutsaren hurrengoa izan zen, eta 34. minutuan are zailago jarri zitzaizkien gauzak, Pinak inozokeria bat egin ostean. Penalti eske zegoen erdilaria, eta burukada bat eman zion aurkari bati epailearen aurrean. Hala, hamar jokalarirekin utzi zuen taldea. Eta, zaila zirudien arren, gauzak are gehiago okertu ziren atsedeneren aurretik: 44. minutuan 2-0koa egin zuen Aketxek, Siveraren huts handia baliatuz, eta luzapenean neurketari azkena eman zion Sadiqek.

Aldageletan ziurrenik jasotako errietak ere ez zituen xaxatu gasteiztarrek, eta 4-0koa jaso zuten 52. minutuan. Bere atean sartu zuen baloia Battagliak, erdiraketa bat mozten sailatzean. Lehiak bel-durrezko film baten itxura petoa zeukan. Aldaketak egin ez joan zen Abelardo, baina gidioiak bere



Barkamena eskatu nahi diet zaleei. Hobeto ala okerrago joka daiteke, baina lehiatu beharra dago, gaur ez bezala»

Abelardo Fernandez
Alaveseko entrenatzailea

horretan jarraitu zuen. Gertu zegoen Almeriaren bosgarrena: baloia langara bidali zuen Lazok, eta Sadiqek ia ginga jarri zion bakar-kako jokaldi ikusgarri bati. Villarreke asmatu zuen azkenean, penaltiz, 81. minutuan. Zaplazteko bat hartu zuen Alavesek; iratzartzeko balio badio, gaitz-erdi.



Alaveseko jokariak burumakur, Almeriaren goletako bat jaso ostean. Bost sartu zizkion. CARLOS BARBA/ EFE

Final-zortzirenetara igaro nahi dute gaur Osasunak eta Eibarrek

E.A.

Alavesek jasotako jipoiren ondoren, belarriak tente izango dituzte gaur Osasunak eta Eibarrek. Izan ere, eliteko taldeak izateak ez die bermatzen Espainiako Kopako final-zortzirenetan egotea. Are gutxiago Osasunari, Espanyol Bigarren Mailako liderra izango baitu den partidand (12:00). Eibarrek, berriz, Bigarren B Mailako Navalcarnerori egingo dio bisita (16:00). Lasaikeria saihestea izango da erronka nagusia.

Osasunak aise gaintu ditu Tomaresen eta Oloten kontrako tramiteak, baina final-hamaseirenetan, Lehen Mailako usaina darian partida jokatu beharko du. Espanyol zen egokitu zekiekkeen aurkaririk zailena, Jagoba Arrasatek berak atzo aitortu zuen bezala, eta, Kopan aurrera jarraitze-

ko, beren bertsiorik onena eman beharko dute gorritxoek. Ligan hamabi jardunaldi daramatzate irabazi gabe, eta gaur prestigiozko garaipen bat lortzeak indartu egin ditzake aurrera begira. Hala uste du Arrasatek. «Partida hau ondo etor dakiguke talde gisa hazteko. Halako neurketek piztu egiten dituzte jokariak. Proba garrantzitsua izango dute gaur».

Bizkaitarrak aurreratu zuenez, atepaan Juan Perez ariko da, eta Manu Sanchezek bere lehen minutuak jokatu ditu elastiko gorritxoarekin. Osasunak udaratik zeraman defentsaren atzetik, eta, azkenean, lortu du Atletico Madriletik utzita ekartzea. «Sasoi hasieran, ezker hegalean Manu Sanchez eta Juan Cruz izatea zen gure asmoa. Asko sinesten dut harengan, eta alternatibak eta lehiakortasuna ematea espero dut. Taldea guztiz osatzeko behar

genuen jokalaria da. Gustura nago».

Aurreikuspenak betetzera

Racing Rioja eta Las Rozas kanporatuta iritsiko da Eibar gaurko lehiara. Gakoetako bat zelaiaren egoera izan daiteke, elurtuta eta izoztuta egon baita. Jose Luis Mendilibar, halere, ez dago kezkatuta. «Egokitu egin beharko dugu. Oraintxe, ezin dugu pentsatu zelai guztiak egoera onenean egongo direla». Haren ustez, «normala» da Eibar faboritotzat jotzea, baina garbi du aurpegia eman beharko dutela, «ekimena edukiz eta ondo defendatuz». Izan ere, uste du gauzak «berdin» egiten direla lehia bakarra eta etxetik kanpo jokatu. Bryan Gil ez da ariko, ezta Diop, Oliveira, Kadzior eta Olabe ere. Harrobiko Atienza, Cubero eta Eñaut, berriz, deialdian dira.

Bikote osoa direla berretsi dute

Olaizola II.ak eta Rezustak 22-11 hartu dituzte mendean Urrutikoetxea eta Imaz • Garaileek orain arte jokatutako hiru partidak irabazi dituzte

Ainara Arratibel Gascon

Binakako Txapelketa abiatu berterik ez da egin. Baina azkarren egokitzen diren bikoteak alde egiten hasieratik. Hori da Olaizola II.a -Rezustaren kasua. Bergarako atzelaria Aspetik ailegatu den arren, berehala egokitu da Goizueta aurrelariarekin jokatzerara. Gauzak zuzen egiten dituzten bi pilotari dira, eta atzo beste behin ikusi zen. 22-11 irabazi zieten Urrutikoetxea-Imazi. Azken horie oraindik ere falta zaie bidea egokitzeke, eta bikote sendoa izateko. Nahiz eta Urrutikoetxeak orain arteko partidarik onena jokatuta zuen.

Pilotakada askokoa izan zen partida, gogorra: 761 jo ziren. 3-0 aurreratu ziren Olaizola II.a eta Rezusta, eta ikusi zen tantoak egiteko lan asko egin beharko zutela Urrutikoetxeak eta Imazek. Lehenengo lortzeko 124 pilotakada behar izan zituzten. Rezusta aurrereko bi partidetan baino jo gehiagorekin aritu zen, konfiantza, pilota abiaduraz jotzen.

Imaz sufritzen ari zen, eta argi

zegoen Urrutikoetxeak hartu behar zuela atzo elastiko urdinarekin jantzita zihoan bikotearen zama. Hala egin zuten, eta Olaizola II.ari mina egiten ahalegindu zen, alde batetik bestera mugituz. Erabat defentsan aritu behar zuten, sufritu egiten zuten, eta zenbaitetan oraindik ere egokitu behar duten bikote bat direla erakutsi zuten. Zulo gutxi utzi zituzten gorriek, bikote sendoa eta serioa direla berretsiz. Zortzi tanto partziala egin, eta 6-4tik 12-4ra ihes egin zuten, joko handirik egin gabe, baina gauzak behar bezala egin zuten.

Burumakur joan ziren lehen etenaldi luzera Urrutikoetxea eta Imaz, partida maldan gora zutela jakinda. Horren ostean, gauzak ez ziren asko aldatu. Pare bat tantoan ez zuten ondo ulertu, eta garai-



Aimar Olaizola, atzo, pilota jotzen, atzean Beñat Rezusta duela. ARITZ LOIOLA / FOKU

leak alde handituz joan ziren. Urrutikoetxeak, gainera, belauan zauri bat egin zuten eroriko batean

Atzetik joanda, gehiago nabaritu zituzten partidaren gogortasuna eta pilotutako nekea galtzaileek. Egoera horretan, Olaizola II.ak nahi bezala kudeatu zen partida. Aurrean tantoa amaitzeko aukera argia ikusten ez bazuen, zalantzarik gabe jotzen zuten atzera pilota, Imaz behartuz, eta Urrutikoetxea jokoan sartzea era-

gotziz. Garaileek beren bideari segitu zioten. Urdinek, berriz, lanean jarraitu zuten, emaitza txukunago bat lortu, eta tanto bakoi-tzak sailkapenean izan dezakeen garrantziaz jakitun. 22-11 amaitu zen partida.

Hirugarren jardunaldia herenegun hasi zen, Zornotzan. Peña II.a-Albisuk 22-18 irabazi zieten Bengoetxea VI.a-Aranguren. Artoaren orde aritu zen Bengoetxea pilota, Imaz behartuz, eta

Gaur, berriz, nor baino gehiago

arrituko dira Eibarren txapelketa batera ondo hasi ez duten bi bikote: Jaka-Martija eta Ezkurdia-Ladis Galartza (18:00 ETB). Jokatu dituzten bi partidak galdu dituzte, eta lehen garaipena behar dute gora egiten hasteko.

Bihar, berriz, atzoko garaileekin batera txapelketaren sailkapenaren puntan diren bi bikoteek jokatuko dute elkarren aurka, Azpeitian: Elezkano II.a-Zabaleak eta Altuna III.a-Mariezkurrena II.ak (22:30, ETB).



Zumarragako Udala

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2020ko abenduaren 22an egindako ezohiko bilkuran, bestek beste, honako erabaki hau hartu zuen

Lehenaz: IZ.G. jaunak aurkeztutako alegazioa ezestea, Plan Bereziaren jasotako jabetzaren egitura-planoa ez baita loteslea eta, lurzatiari jabe gisa agertzen ez bada ere, ez baititu bere eskubideak galtzen, eta birpartzelatze-proiektuan justifikatu beharko baitu aurkeztutako lurzatiaren jabetza, jabe minoritario gisa sartzeko (bere eskubide eta betebeharrak).

Bigarrenaz: Arau Subsidiarioen Z-2.3 eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren behin betiko onartzea.

Hirugarrenaz: Plan Bereziaren kopia bat bidaltzea Foru Aldundiari, argitaratu aurretik dagokion erregistroan gorde dezan.

Laugarrenaz: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedatuen dauden egunkarietako batean argitaratzea. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Erabaki hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka administrazio-erregistroko auzi-erreturtoa aurkezteko Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Bilbon, bi hilabeteko epean, azken argitalpenaren biharamunetik aurrera.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 8.zenbakian, 2021eko urtarrilaren 149koan, iragarkia argitaratu da.

Zumarragan, 2021eko urtarrilaren 14an.
Mikel Serrano Aperribay, Alkatea



Zumarragako Udala

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2020ko abenduaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu du:

Lehenengoaz: Hasierako onespina ematea "Goialdeko urbanizazio 4.fase"ko proiektuari, GURBAIN S.L.ak idatzitakoari. Baldin eta jendaurreko informazio-denboran inork alegaziorik aurkeztuko ez balu, behin betikoz onartuta geratuko litzateke, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Bigarrenaz: Proiektua iragarki-taularen bidez jendaurrean jarzea 20 eguneko epean iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik kontatzen hasita, interesdunek espedienteaz auzitegi irizitako alegazioak aurkeztu ahal izan dituzten.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 8.zenbakian, 2021eko urtarrilaren 14koan, iragarkia argitaratu da eta 20 laneguneko epea zehar (otsailaren 2 arte) interesatu guztiek beren interesei eusteko egokien irizitako eskakizunak aurkezteko.

Zumarraga, 2021eko urtarrilaren 14a.
Mikel Serrano Aperribay, alkatea.

Euskal kultura 2020

Hekatonbearen urtea: kultura, automaitasuna eta polimaitasuna

KATIXA AGIRRE

ALBERTO BARANDIARAN
OLATZ OSA
XABIER LANDABIDEA

DANI FANO
EIDER EIBAR
JOSEVISKY
NEREA UNANUA

Mahai ingurua:

Edurne Azkarate, Igor Elortza,
Xabier Gantzarain, Katti Pochelu eta Castillo Suarez
ITZIAR UGARTE

LIBURUAK
Euskal liburugintza 2018
XABIER EIZAGIRRE

Jakin ^{eus} 241
herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2020

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

www.jakin.eus



K2ren tontorrera neguan igo den espedizio nepaldarreko kideak, izako abenduan hartutako irudi batean. SEVEN SUMMIT TREKS

Ainara Arratibel Gascon- Iñaki Petxarroman

Lau hamarkadaren ondoren, lortu da hamalau zortzimilakoak neguan igotzea. Everest (8.849 metro) izan zen lehenbizikoa, eta K2 (8.611 metro) falta zen zerrenda osatzeko. Bada, atzo lortu zuten hura ere urtarorik gogorrenean igotzea. Nepalgo hamar mendizalek osatutako talde batek lortu du, eta urrezko orri bat utzi dute idatzita sarritan mendizale-tasunaren historian itzalean geratu den herrialde baten kaieran. Atzo iritsi ziren tontorrera, Euskal Herrian 13:00 inguru zirela, oxigeno artifizialak lagunduta. 18:30 aldera, zortzi mendizale hirugarren kanpalekuan ziren, atsedena hartzen. Beste bik behera segitzen zuten, kanpaleku nagusira iristeko asmoz.

Nirmal Nims Purja, Gelje Xerpa, Mingma David Xerpa, Mingma Tenzi Xerpa, Pem Chhiri Xerpa, Dawa Temba Xerpa, Mingma Gyalje Xerpa, Dawa Tenzin Xerpa, Kili Pemba Xerpa eta Sona Xerparen izenak hizki larritz geratuko dira alpinismoaren historian. Denis Urubko errusiarra eta Marcin Kackzan poloniarra 7.750 metrora iritsi ziren 2002ko neguan egindako saiakeran. Baina ezzuten lortu, eta mendizale-tasunaren historian geratzen zen mugarri garrantzitsuenetako bat zen, adituen arabera. Aurtengo neguan 60 alpinista elkartu dira K2ko kanpamentu nagusian. Orain arte, 367 mendizalek lortu dute munduko bigarren gailurrik altuenera iristea, eta 86 hil dira ahalegin horretan. Achille Compagnoni italiarra izan zen igotzen lehena, 1954. urtean.

K2: falta zen mugarrria

Hirugarren kanpalekutik irten eta tontorrera heldu dira hamar mendizale nepaldar: lehen aldia da inor neguan igotzen dela • Oxigenoa erabili dute, eta elkarrekin iritsi dira gora

Neguko ahaleginei dagokionez, 33 urte behar izan dira tontorrera iristeko. Aurretik zazpi espedizio egin zuten saiakera. Andrzej Zawada buru zuen espedizioa izan zen aurrenekoa, 1987-1988ko neguan. 23 alpinistaz osatua zegoen, eta 80 egun egin zituzten oinarritzko kanpalekuan. 7.300 metrora ailegatu ziren.

Sergi Mingote hil da, K2tik jaisten arizela

+ Mendizale nepaldarrek historia egin zuten eguneko hil zen Sergi Mingote mendizale katalana. K2ko lehen kanpalekutik (6.075 metro) jaisten ari zen aurreratutako kanpaleku nagusira (5.600 metro), eta eroriko bat izan zuen. 600 metro baino gehiago amildu zen. Abenduan iritsi zen Pakistanera, K2ra igotzen saiatzeko. 2018an lortu zuen tontorrera heltzea, oxigenorik gabe. Orain, neguan saiatu nahi zuen. Oxigenorik gabe tontorrera igotzeko aukera baztertu eta behera abiatu ostean izan zuen ezbeharrak.

Azken ahalegina izako neguan izan zen. Gyalje buru zuen nazioarteko espedizio bat prest zegoen erronkari heltzeko. Baina finantzaketa arazoek, eguraldiak eta espedizioaren jarduteko moduan zeuden zalantzek atzera egitera behartu zituzten.

Eguraldi aurreikuspenak alde izan zituen atzo Nepalgo espedizioak. Euskal Herrian goizaldeko ordubetan abiatu ziren tontorrerantz, 7.350 metro-tik. Seirak inguruan iritsi ziren Botila lepora (8.200 metro). Igoerako zatirik zailena zen: 50-60 graduko desnibela duen korridore estua baita.

Izotzaren baldintzak ziren inguru horretan zalantza nagusia. Baina 09:00ak aldera berri eman zuten zailtasun inguru hori gain-

ditua zutela, eta tontorretik 200 metroa zeudela. Tontorretik gertu batzea erabaki zuten mendizaleek, gora elkarrekin iristeko.

Elkarlana ardatz

Atzoko lorpena elkarlanaren fruitua da. Izan ere, hiru espedizio desberdinetako kideak zeuden bertan. Gyalje, Tenzin eta Perba abenduaren 18an iritsi ziren oinarritzko kanpalekura. Ordurako lehen kanpalekurako bidea ekipaturik zegoen. Hiru alpinistek egin zuten lan hori: John Snorrik eta Ali Sadpara aita-seekek.

Gyalje eta haren espedizio kideak neguko azken egunean, abenduaren 21an abiatu ziren tontorrerantz. Egun bat behar izan zuten bigarren kanpalekura iristeko, 6.700 metrora.

Ondoren iritsi ziren Seven Summits Treks espedizio kideak eta Nirmal Purja buru zuena. Hiru espedizioak txandakatzen joan dira asteotan bidea ekipatzen, 7.350 metroa iritsi arte.

Egindakoaren berri ematen lehena izan zen espedizioa antolatzen duen agentzia nepaldarrek, bere Twitter kontuan: «Lortu dugu,

Eguraldia alde izan dute, eta lortu dute orain arte inork erdietsi ez zuena; iluntzean C3an ziren gehienak, babesean

sinetsi. Nepalgo eskalatzailerek K2ko tontorra zapaldu dute azkenik. Mendi basatia igo dute sasoirik arriskutsuenean». Ordu horietan jakin zuten himalaismoarentzat egun izanda izan zenak orbanik ere izan zuela. Sergi Mingote katalana amildu baitzen, mendian behera, eta ezin izan zuten deus egin salbatzeko.

Gisasolak Euskadiko marka berdin du ingudean

HERRI KIROLAK • Euskadiko ingude eta lokotx-bilketa txapelketak jokatu ziren atzo. Abadiñon (Bizkaia). Ingudean Karmele Gisasola eta Gorka Etxeberria nagusitu ziren. Gisasolak 97 jasoaldi eman zituen, eta euskadiko marka berdin duen. Gorka Etxeberria, aldiz, 87rekin gailendu zen. Lokotxetan, Ainhoa Iraizoz eta Unai Iantzi izan ziren irabazleak.

GBC-k irabazi egin du Joventuten pabiloian (90-94)

SASKIBALOA • Sasoi honetan lehen aldiz bi garaipen erreskadan kateatu ditu Gipuzkoako Basketek. Atzo 90-94 orabazi zuten Joventuten pistan. Denboraldi-ko laugarrena da. TD Systems Basketniak Betis hartuko du gaur Buesa Arenan (12:30). Betis saikapenaren behealdean dago, baina egindako fitxaketek esker hobeto ari da azken partidetan. Besteak beste, Unicajaren pabiloian irabaztea lortu zuen orain gutxi. Arabarrek galdutako egin dituzte aste honetan Euroliagan Fenerbahceren eta Maccabiren kontrako partidak. Baina ACBn jokaturako azken 11 lehietatik 10 irabazi dituzte.

Ordu berean jokaturako da Re-tabet Bilbo Basketek Andorran. Bizkaitarrak ere Europan gale-tzetik datoz. Rouselle osatu; ez, ordea, Balvin, Hakanson eta Ser-ron. Andorrek sei porrot dar-matza erreskadan, eta hori bali-atiu nahi dute bizkaitarrek, bosgarren garaipena lortu eta haize apur bat hartzeko. Espai-niako Ohorezko Mailan derbia jokaturako dute Kutxabank Aras-ken eta IDK Euskotrenek Gastei-zen (12:00).

Getxo erraz galdu du; Baionak, berriz, estu

ERRUGBIA • Ezinean segitzen du Getxok. Talde bizkaitarrak partida kaskarra jokatu zuen atzo, eta ligako partida galdu zuen etxean Burgosen kontra: 5-51. Top 14ean Baiona lehiara itzuli zen, eta 22-23 galdu zuen Paueren kontra. Ordiziak gaur jokaturako du, Ciencias Universidadaren zelaietan (12:30). Eibarrek sasoioko bigarren neurketa du, 11:00etan, Les Abe-llesen kontra, kanpoan.

NASOIN

33

IGANDEKO BERRIA
2021eko urtarrilaren 17a

Kultur jomugak

Zazpi sortzailek euskal kulturaren aurrera begirako erronkez hausnartu dute: jopuntuen artean daude, besteak beste, feminismoa, egileen batasuna eta instituzio subiranoen beharra • 34 35

Literatura • 36

Christopher Tolkien, aitaren obra osoaren jagole nekazina

Musika • 10

'Strum & Thrum': hardcorearen arteko pop izpiak, 1980ko AEBetan

Amaia Igartua Aristondo

Kulturgile bakoitzak bere bidea egin arren, bideoak noizbehinka bat egin dezaten behar du herri baten kulturak. Elkarrizketatutako sortzaileek argi dute indarrak batu beharra dagoela; ez dute hain argi, ordea, indarrok hartu beharreko norabidea.



IRANTZU LEKUE

Artista

«Baliok defendatzeko bildu beharko ginatke»

1 «Uste dut erronka izango dela diziplina ezberdinen bidez euskal kultura bultzatzea; nolabait elkartu ahalko ginatke indar gehiago egiteko eta gainontzeko jendearengana ailegatzeko. Bestela, ikuspuntu ezberdinak badaude, baina haien arteko erlaziorik ez badago, zaila da gauzak lortzea. Nire ustez, bildu beharko ginatke elkarren arteko eskubiak eta baliok defendatzeko».

2 «ARTgia aretoaren bidez, saiatzen gara nolabaiteko sinergiak sortzen eta proiektu ezberdinak lotzen, proiektu interesgarriagoak egiteko eta eraldaketa bat bilatzeko asmoz. Baina, dena dela, uste dut gure diziplinan gauza bera gertatzen dela: bakar-kako lana da, eta, azkenean, bakoitza bere kabuz doa. Horrela zailagoa da gurea defendatzea».

3 «Nik uste baitetz. Azkenean, prozesu parte hartzaileak bultzatzen ditugu; gure zutabeetako bat eraldaketa soziala da, eta baita gure gida ere. Nire lan pertsonala ere baldintzatzen du, noski».



KARMELE JAIO

Idazlea

«Izpiritu kolektiboa indartzea da gakoa»

1 «Erronka bat izan daiteke kontuan izatea euskal kulturaren barruan diziplina ezberdinetan gaudenok guztiz lotuta gaudela,

NORA DOA EUSKAL KULTURA?

Transmisioa, sustapena, kulturgileen arteko batasuna edota instituzio subiranoak izatea. Horiek dira euskal kulturak etorkizunean dituen erronka kolektiboetako batzuk, BERRIAk galdekatutako zazpi sortzaileen ustez. Batzuetan, sektorearen norabideak bat egiten du bide orokorrarekin; kasu guztietan, lanetan eragiten du.

1 Zein da euskal kulturak aurrera begira duen erronka kolektiboa?

2 Zure arlotatik zer ekarpen egiten ari zaie erronka horiei?

3 Zure lana baldintzatzen al du erronka horien jakitun egoteak?

bati gertatzen zaionak eragina duela besteengan. Izpiritu kolektibo hori indartzea izan daiteke gako bat. Sortzaileen egoera ahaztu barik. Bermatu behar da sortzailea ez dadin lanean aritu egoera prekarioan, eta entzuleak, irakurleak edo ikusleak izan di-

tzan; horiek ez dira berez sortzen, hezi egin behar dira».

2 «Iruditzen zait idaztea beti dela oso lan bakartia eta nahiko isolatua; taldean lan egitea edo elkartasun edo batasun bat lortzea, beraz, beti da beste sektoreetan baino zailagoa. Baina baditugu

hainbat erronka elkarrekin lortu beharko genituzkeenak».

3 «Bai, inkontzienteki bada ere. Badakigu ez garela bakarrik geure buruaren ordezkarri: badakigu zer testuingurutan ari garen, aurretik zer egon den, eta jarraipen bat ematen ari garela, katebegia garela. Kulturaren transmisioa ere erronka handi bat da».



JON MAIA

Dantzaria

«Kulturak gizartearen zutabe izan behar du»

1 «Erronka nagusia kulturak gizartearen hartzen duen kokagunea da. Kultura herri baten antolamenduko zutabe gisa kokatzen badugu, funtzio bat hartzen du, beharizan bihurtzen da, ezinbesteko osagai bihurtzen da herri antolakuntzan. Zalantzarik gabe, erronka nagusia kulturari gizartearen zutabe rola ematean datza».

2 «Gure proiektuek elkarlanerako bokazioa dute beti, eta beti saiatzen gara proiektu bakoitza izan dadila elkarlan baterako bi-



ARGAZKIA: MARISOL RAMIREZ; FOKU - ARGAZKI MONTAJEA: BERRIA

dea. Saiatzen gara, baita ere, sorkuntza lanetatik abiatuta konexioak sustatzen herritarrekin, hezkuntza munduarekin...».

3 «Bai, proiektu bakoitzaren eraikuntzan beti dago presente joera hori».



OLATZ ZUGASTI

Musikaria

«Kulturaren norabidean politikak da erantzule»

1 «Jorrazten dugun guztia da kultura. Euskal kulturaz ari bagara, alegia, Euskal Herriaren kulturaz, herri hau nola dagoen begiratu beharko dugu lehenik, egoera horrek baldintzapean jarri baitu bere bizitza eta jardun guztia. Ez da berdin herri aske batek edo mendeetako erasoak jasan duen batek egin dezaketen kultura: lehenengoak oinarritzko aferrak zurituta dauzka; ez, ordea, bigarrenak, horrek bere osasuna berreskuratzea izango du lehen egitekoa».

2 «Non jaiotzen zaren, zein den zure ingurunea... hori izaten da indibidualki erronka, eta gurea

bezalako erresuma okupatu batean, askotan herri kontzientziak eramaten gaitu adierazpen artistikoak egoera horren arabera izatera; nire kasuan hala da, behintzat. Hala eta guztiz ere, herriaren kulturaren norabidean erantzukizun osoa duena politika da, Euskal Herriko politika nazionala beharko lukeena.».

3 «Ez lanari bakarrik, bizitza osoari eragiten dio, eta oso garrantzitsua da begi bistatik ez galtzea errealitatearen eta uanean uneko egoeraren jatorria eta kontzientzia. Kantuek edo adierazpen artistikoez, beren kasa herri baten bilakaera aldatzeko gai ez badira ere, lagundu dezakete nor-tasunaren eremu hori zaintzen».



AITZIBER GARMENDIA

Antzezlea

«Kontsumoa iraunkor egitea da erronka»

1 «Nolabaiteko batasun orokor bat dago euskal kulturaren esparruen artean. Uste dut euskal kultura kontsumitzen duen horrek baduela alde aurreko

jarrera bat. Nire inguruko jendeak, behintzat, euskal kultura bere orokortasun guztian kontsumitzen du. Egia da pandemiak ere bultzatu gaituela, zorionez edo zoritxarrez, gehiago kontsumitzera, gure artean babesa eskaintzera kontsumoari dagokionez. Erronka kontsumo hori iraunlaraz dela iruditzen zait, ez gaituzen gero betiko akatsetara bueltatu».

2 «Nabaritu dut antzerkiak suspertze bat izan duela kontsumoari dagokionez, eta kontsumo handitzeak sorkuntza eta eskaintza handiagoa izatea dakar. Nabarmendu nuke antzerkiari zor zaiion errespetua azpimarratu behar dugula, eta aktoreen artean hausnarketa bat egin behar dugula: modako aktore edo aurpegi izatea normalean telebistari lotuta dago. Nire ustez, gure erronka nagusia da antzerkia kontsumitzea antzerkira joate soilagatik, kontsumo hori ez dadila izan telebistako aurpegiak bultzatutakoa. Baina soiltasun hori praktikara eramateak zailtasunak ditu».

3 «Beti baldintzatzen du, noski. Erabakitzen duzunean kulturaren lanean hastea eta zure hizkuntzan egitea, horrek sekulako eragina dauka, erabat positiboa, hizkuntza honetan sortu eta lan egiteko hautu propioa dagoelako. Kasualitatez edo ez, horrek eman

dit arrakasta orain arte, baina hala izan ez balitz ere hautu bera egingo nuke».



ASISKO URMENETA

Marraskilaria

«Instituzio subiranorik gabe, ez dago zer eginik»

1 «Definizio tronpakorra zait euskal kultura kontzeptua, horrek partekatu behar balu bezala inolako esparru komunikatibomengo beste kultura batzuekin: espainola, frantsesa eta beste, berdintasun egoeran, karrika dantza alegeran. Eta ez da hala, edo ez luke hala izan behar, behinik behin. Nik nahiago diot Kultura Nazionala erran: normaltasunik gabe, hau da, geure burua babesteko zinezko lanabesik ez dugun bitartean, Kultura Nazionala higitzen ari zaigu, sedimentatzen, hutsaltzen, apurtzen eta galtzen. Estrategikoa da geure burua liberatzea, hitzaren bi adieretan; kolonialismo kulturalak agintzen baitu gurean, eta bolada bizia dakar. Kultura sustatuko duen instituzio subiranorik gabe —eta horiek eskuratutik ere, aski lan—, ez dago zer eginik».

2 «Lehen lerroko egileak dauzkagu, baina, komiki industriaren aldeko apusturik gabe, behartzen ari gaitzaizkie haien lana nazioartean saltzera. Ongi kontent daude frankofonian eta merkatu hispano eta anglosaxoietan, artista horiek guztiak bildurik... Bestalde, Lanartea bezalako sindikatu arteko tresna interesgarria zait, plan orokorrako baten barrinean artikulaturik betiere; hau da, balia dezagun herriaren indar sortzailea *statu quo*-a kuestionatzeko, eta

ortzi muga berriak irekitzen laguntzeko, gure langintzari duintasuna emateko».

3 «Eta nola ez? Har ditzagun bi marrazkilari, kultura berekoak, eta meridiano berean bizi direnak. Bata portugaldarra da, bestea galiziarra. Batak dozena bat egunkari dauzka hautura kiosko birtualean, hainbat telebista kate eta irrati frekuentzia, kultur ekitaldi mordoak eskura, eta, doan lekura doala, hizkuntzaz hartzen dute, normaltasunaz. Bestea, berriaz, erasiatua izan ohi da ber hizkuntzaz mintzatuz gero. Bien arteko proiektioaren arrakala olinpikoa da».



LARA IZAGIRRE

Zinemagilea

«Feminismoa da euskal kulturaren erronka»

1 «Feminismoa da euskal kulturaren erronka kolektiboa. Kulturgintzako emakumeen ikusgarritasuna handitzea, emakumeen aukera berdintasuna bermatzea, emakumeen begirada kultur sorkuntzan txertatzea... lan handia daukagu egiteko».

2 «Esango nuke bi direla indar gehien hartzen ari diren korronteak. Alde batetik, zinemagintza feminista baten aldeko borondate argia dago. Bestetik, euskarazko fikzioaren berpiztea nahi du sektoreak, batez ere ETBn. Guztiz ados nago bi helburu orokorrek, baina euskarazko fikzioaren berpizteak emakumeek berdintasunean parte hartzea bermatzen ez badu, ez du askorako balio izango: gizartearen erdiaren begirada galduko da fikzio berri horretan eta oraingo dinamika patriarkalak normalizatuko dira».

3 «Zinemagintzan lanean hasi nintzenetik erronka hori nire egunerokoan badaide izan dut. Batzuetan karga izan da, eta nire lanarekiko ardura eta eskakizun maila areagotu ditu. Era berean, lanbide honek ekarri dizkidan oparirik handienak erronka pertsonal honi lotuta egon dira. Momentu honetan, erronka hori kolektiboki bultzatzen ari gara, eta oso handia da zinemagintzan ari garen emakume euskaldunon talentua, indarra eta borrokatze gogoa, eta horrek eragin oso positiboa du nire lanean. *Nora*-k, nire azken filmak, asko dauka barnean prozesu horretatik».



Urtea bete da Christopher Tolkien zendu zela, John Ronald Reuel Tolkien idazlearen seme eta hil ondoko argitaldaria. Aitaren itzalpean eman zuten bizi osoa, itzal hori lantzen, osatzen eta argitara ematen. Funtsezkoa da haren jarduna ulertzea aitaren balio literarioaz jabetzeko.

Editorea hobbit zuloan behera

Joannes Jauregi

J.R.R. Tolkienen literaturan adituak direnek frankotan esana dute gaizki-ulertu batean oinarritzen dela haren arrakastaren parterik handiena. *Eraztunen Jauna* eta *Hobbita* nobelen egokitzen zinematografikoekin, Tolkienen izena areago irmotu da «literatura fantastikoa» delako generoan; hainbestera, non zaila baita akordatzea ezen haren obrak, orain fantasiakotzat jotzen ditugun kode ugari blaitu egonagatik, nekez duela zerikusirik gaur egun genero komertzial bilakatu den horrekin, hau da, nobela mardulez osatutako saga amaigabeak eskribitzen dituzten idazle nagusiki anglosaxoien jardunarekin.


Tolkienen adituek salatzen duten gaizki-ulertua ez da (bakarrik) Peter Jacksonen filmen ondorio, baizik eta hasieratik Tolkienen arrakastak oinarri gisa hartutako plataforma murriztaren. 1960ko urteetan hasi zitzaion Tolkieni ospe nabarmen lutzatzen, batik bat *Eraztunen Jauna* nobelaren magalean (ordura arte *Hobbita* arrakastatsua eta haur literaturako beste lan gutxi batzuk baino ez zituen plazaratuak). Lan hori, ordea,

zaleen gozagarri eta gustagarri izanagatik, ez da Tolkienen sor-kuntza benetako literarioaren adierazgarri, eta nagusiki egilea hil ondoren hasi zen hori pixkanaka argitara ateratzen. Tolkien ez zen nobelista izan, eta batek baino gehiagok erdipurdiko narratzailetzat ere joa dute (azken finean, editoreek eta *Hobbita*-ren arrakasta komertzialak hartaratu baino ez zuen ondu *Eraztunen Jauna* nobela gisa).

1973an hil zitzaionetik, Christopher Tolkienen ia 50 urte eman zituen aitaren oharrek editatzen

'The Silmarillion' bukatzea eta haren behin betiko bertsio bat plazaratzea izan zen editorearen lehen helburua

Haren sakon-sakoneko lana jardun mitopoetikoa deritzona da, edo mundugintza; hau da, fikziozko unibertso bat eta haren mitologia osatua lantzea. Mitologia hori ez da elezahar asmatuen sorta soil bat; baditu bere epopeiak eta exodoak, bai eta kosmogonia bat (munduaren sorrera), teogonia bat (jainkoena) eta antropogonia bat ere (gizakiena). Lan hori guztia nabarmen uki-gaitzagoa da narratiba soila



Hobbita 1937an argitaratu zuen J.R.R. Tolkienen. Goian, lehen edizio haren azalerako sortu zuen irudia. EFE / MORGAN MUSEOA

baino, bai eta zailagoa ere argitalpen forma komertzialean eman eta kontsumitzeko.

Gaur egungo literatura fantastikoaren genero komertzialean, narratibaren mekanismo edo tresna bat da mundugintza, eta istorioak bestelako unibertso batean girotzea du funtzio nagusia, baina beti kontaktuz baten euskarririk izan ere, nobela eta nobelagileak izaten dira genero horren ardatza. Tolkien, berriz, ez da aise egokitzen eskema horretan, haren narratiba lana ia ezdeusa baita mundugintzaren aldean.

Argitaratzen zailagoa izateaz gain, jardun mitopoetikoa aski urruna eta hermetikoa da berez, milaka oharrez, apuntez, poemaz, mapaz, zirriborrez, kantaz, berridazketaz eta bertsio maiz kontrajarriz baitago osatua. Horretan datza Christopher semearen inportantzia: ohar horiek editatzen, apailatzen eta

plazaratzen eman zituen zendu aurreko ia berrogeita hamar urteak, 1973an aita hil zitzaionetik. Gehienbat haren lanari esker iritsi zaie irakurleei Tolkienen *legendarium* delakoa, zeina osatuz joan baita azken berrogeita hamar urteotan.

Lehen lana

Lehen-lehenik, *The Silmarillion* bukatzea eta haren behin betiko bertsio bat plazaratzea izan zen helburua. Tolkienen mitologia osoaren corpus orokorra da hori, eta hainbat bertsio zuden haren oharren artean. Bazuen bertsio amaitu bat 1930eko urteetarako, baina preseski orduan ekin zion nobelak idazteari, lehenik *Hobbita* (1937) eta gero *Eraztunen Jauna* (1954-55), eta, bi horiek osatutakoan goitik behera aldatu zitzaionez aurreneko *Silmarillion* amaituaren zentzua, sakon-sakoneko aldaketak egiten hasi behar izan zuten, eta berridazketa horiek bukatu gabe hil zen. Hori xe izan zuten aurreneko lana Tolkien semeak, mitologia corpusaren behin betiko bertsio bat bukatzea, eta 1977an plazaratu zuten. Lan horretan daude Tolkienen mitologiaren zero-lurrak, bai kosmogonia, teogonia eta antropogonia, bai Lehen Aroko heroiaren elezahar eta abenturak ere, zeinak oihartzun ia ahaztuak baitira *Eraztunen Jauna* gertatzen den garaian, Hirugarren Aroaren amaieran.

1980an, Christopher Tolkienen *Unfinished tales* (Ipuin bukatugabeak) kontakizun sorta kaleratu zuten, ordura arte argitaragabeak ziren hainbat materialen gainean. Lan horrek arrakasta

handia izan zuten, eta bidea eman zion ambizio eta zailtasun handiagoko egitasmo bati heltzeko: hala, *The History of Middle Earth* (Erdialdeko Lurraldearen historia) proiektu eskergari ekin zion. Hamabi liburukiz osatutako sail bat da, 1983 eta 1996 artean publikatua. Ez da, aurrekoak bezala, fikziozko lan gutxi gorabehera koherente bat; bilduma horrek gehiago du nolabaiteko edizio kritikotik, era nahiko filologikoan antolatzen baititu J.R.R. Tolkienen zirriborro, ohar eta testu ugari, bere ibilbide (eta, beraz, bizi) osoari dagozkionak. Nolabait esateko, haren jardun literario osoaren kronika iruzkindu bat da, txukun antolatua eta kontaktua haren idazlanen bertsio, zuzenketa eta oharretan barrena, hamabi liburukitan.

XXI. mendean, Christopher Tolkienen aitaren *legendarium* zabaleko gairik edo mitorik esanguratsueni buruzko hiru liburu ateratu zituen: *The Children of Húrin* (Húrinen seme-alabak), *Beren and Lúthien* (Beren eta Lúthien) eta *The Fall of Gondolin* (Gondolin erori zenekoa). Dela bide filologikoa urratuta, dela bertsio literario eta koherenteago bat osatuta, ale horietako bakoitzean Christopher Tolkienen sakonago jotzen du *The Silmarillion*-eko mitorik garrantzitsuenetako batzuen barren-barrenera.

Liburuon azaletan aitaren izena da nagusi, baina semearen editore lanak ezinbestekoak izan dira Tolkienen jardun literarioaren barne muinak jaso eta plazaratzeko, eta, irakurleen esku jarrita, obra literario gisa konplizeko.

Haztegi Ikastola

20230 LEGAZPI (GIPUZKOA)
TEL. 943731097
www.haztegiikastola.eus
legazpi@ikastola.eus

Matrikula Epea
Urtarrilaren
18tik 29ra

Orduetgia: Goizez: 08:00-13:00
Arratsaldez: 14:30-18:00

Non: Haztegi Ikastolako idazkaritzan

Bilerak: Urtarrilaren 18an (euskaraz) eta 19an (gaztekeraz) Latxartegiko gelan 18:00etan
Zaintza zerbitzua egongo da

Literaturan ardaztutako autobiografia

Irati Majuelo

Ezaguna da Agota Kristofen lana Euskal Herrian, nazioartean punta-puntako idazlea izan gabe ere, gurean behin baino gehiagotan euskaratu baitira haren libururak. Arrakastatsuen, zalantzarik gabe, *Koaderno handia*. Eskarne Mujikaren eta Alberdaniaren arteko elkarlanetik iritsi zaigu, berriz ere, hungariarraren idazki hau, hil aurretik idatzi zuen azken aurrekoa, hain zuzen ere.

Kristofen argitalpenik intimoena, autobiografia txiki bat onten dute testua osatzen duten 50 orriek. Hamaika kapitulu laburretan egituratua, bere bizitzaren zertzeladak islatzen ditu, eguneroko eszena txikien sinpletasun eta bortizkeriaz, argazki mugiko

rrak balira bezala. Bizi-ibilbide pertsonalarekin batera, ordea, XX. mendeko Europaren zatitxo bat irudikatzen du. Bigarren planoan, baina etengabeko eragin ukaezinaz irauten duten historia-ko gertakizun esanguratsuak aurkituko ditu irakurleak Kristo-



'Analfabetoa idazle'

Idazlea: Agota Kristof.
Itzultzailea: Eskarne Mujika.
Argitaletxea: Alberdania.

fen anekdota eta hausnarketa: II. Mundu Gerra, Hungaria sobietikoa, Stalinen heriotza, Europa ekialdeko atzerriratze-prozesuak.

Alabaina, batez ere, literaturari lotutako biografia da. Lau urteko neskatila baten irakurzaletasunarekin («gaixotasun sendaezinarekin») hasten den hari bat, deserriean frantsesez idaztera beharturik dagoen emakumearenganaino eramaten gaituena. Tartean, amonari kontatutako istorioak, barnetegiko malkoek idazten dituzten poemak, zapa-ko ordaintzeko antzerki-obrak idazten hasten den nerabea, fabrikako makinaren erritmora idaztutako bertsoak, argitaletxeen ukoak. Finean, bizitza oso bat letra artean. Kristofek berak dioen gisan, idazle izateko «idatzi egin behar baita, jakina. Gero, idazten jarraitu behar da. Baita inori interesatzen ez zaionean ere. Inoiz inori interesatuko ez zaizola uste dugunean ere». Suitzara erbesteratua, frantsesez mintzo bai, baina irakurri eta idazteko gai ez dela ohartzean, idazle analfabetotzat jotzen du bere burua. Ondorioz, bereziki kezkatzen dute

ama-hizkuntzaren galerak eta atzerriko hizkuntza berri batean idatzi beharrak.

Estilo lehor eta artifiziorik gabean, gogortasuna darie Kristofen hitzei. Esaldi motz eta lauk erabiltzen ditu; testuingurua lau xehetasunekin baino ez du kokatzen, eta muinera jotzen du zuzenean, agertu nahi duena itzuliz gabe adieraztera. Konplexutasun handiko gaiak lantzen ditu, hala ere. Kasu honetan, identitatearen garapena ohikoa ez den argitasun batez erakusten du, testu autobiografikoan barna, gertaeraz gain, *ni* baten eraikuntza nola gertatzen den ikus baitaiteke gutxinaka-gutxinaka, hitz urri eta aukeratuekin. Bizitako garai eta paisaiek moldatutako *nia* da, baina batez ere bestetasunetik eraikia, Hungariatik ihesi Suitzara lurreratuz geroztik. Hori dela eta, erbesteratzeak eragindako isolamendu eta galerekin pisu handia hartzen dute: jaioterriari egindako ukoak, familia atzean utzi izanak, baita egin beharreko hautu linguistikoak ere. Baina, bereziki, literaturan ardaztutako bizitza da Agota Kristofen libururak islatzen duena.



'Gernikako arbolaren biografia'

Egilea: Jose Mari Esparza Zabalegi.
Argitaletxea: Txalaparta.

Aspalditik jorratzen ari den Agaiari jarraipena emateko ondu du Jose Mari Esparza Zabalegi bere azken lana: eskal herritarren artean loturak bilatzen jarraitzeko, hain zuzen. Kartografiaren edota identitatearen topatu izan ditu loturok, eta, oraingoan, historiari eta musikari heldu die.



'Trumoiaren alaba'

Egilea: Jon Arretxe. **Argitaletxea:** Erein.

Sumatran bizi dira Batari eta bere neba txikia, Kusuma. Hondamendi natural baten ondorioz familia galduta, harrera ona egingo dien ahaideren baten bila abiatuko dira uhartean barrera. Abentura eberberria da, eta hainbat gai uztartzen ditu: besteak beste, emakumeen egoera, naturaren suntsiketa eta mafiak.

Etzegabetuak



'Etzegabetuak'

Egilea: Nerea Arrien eta Diego Besne.
Argitaletxea: Auskalo.

Pandemia garaian etzegabetu duten andre bat da Libe, eta haren bizipenak osatzen dute liburua. Gogoeta bat bultzatu nahi dute Arrienek eta Besnek obra honetan, kontraesan batean oinarritzen dena: jende asko etxerazi zuten orduan, baina, aldiz, beste batzuk etzegabetu zituzten.

Gure ohiturak berrasmutzen



Imanol Mercero

Inoiz burutik pasatu bazaizue Euskal Herriko festen artean hildakoena eguna ere bada, eta amerikar Halloween ditxosozkoak bidegabeki itzal egiten diola, baina zuk eta zure lagunak inguruko haurrak hartu eta ospakizun hau biziberritu behar duzuela, bada, hau zuen liburua da.

Izan, haurrentzako narrazio bat da, fikzioa, 10-12 urteko irakurleei begira idatzita dirudiena, laburra eta atalka banatua. Baina gidoia aitzakia baino ez da, liburua honetan garrantzitsua gauza bakarra baita: irakurleari halako festa bat antolatze gogoia piztea, zortzigarren atalean deskribatzen den Gau Beltzaren ospakizunaren eredura.

Irakurketa errazeko testua da, helburuari guztiz lotua, nahiz eta

aita *prakanasaiaren* gaia justu zortzigarren atalean aiereratzeak distortsioa sortzen duela iruditu zaidan.

Ez da baztertzekoa ere eskola testuinguru batean lantzeko aukera. Sarri-sarri aparteko testuak daude, aparteko letra tipoeekin: arbelean idatzitakoa, *Negupre- noa* (Izaro) abestiaren lehen ahapaldiak, *Erantzun* (Anestesia) abestiaren lehen ahapaldiak, Gau Beltza festaren kronika, eta egunkarietako titularrak.



'Gau beltza'

Idazlea: Josu Ozaita.
Ilustratzailea: Joseba Larratxe.
Argitaletxea: Txalaparta.

Gure geografia berrasmutzen



Imanol Mercero

Euskal Herriko historia-rekin jolas eginez ari zaigun obra bat da, abiapuntu honetan: Eta

Nafar erresumak bere burujabetza mantendu izan balu? Zertan bilakatuko zen Euskal Herria? Nola egituratuko zen? Zein izango zen hankazpian hartuko gintuen diktadorea? Bai, diktadorea (=Nafarroako mariskala) izango dugula proposatzen da. Ez da, ordea, harrigarria: halako literatur proposamenetan usu garatzen da Orweldar kutsuko irudimen ariketa distopikoa, kontakizunari tentsio edota gorputz nahikoa ematearren (?). Jakin-mina baduzue, jo ezazue, esaterako, Etxarte/Urrutia-ren *Ihes ederra* irudi eleberrira, zeinak irakurle gaitasun handiagoa eskatzen baituen aztertzen ari garen *Nafarro-*

ako mariskala honek baino, eskuarki adinez goragoko irakurleentzat dela uler litekeena, edota antzeko zailtasun (adin?) maila duen eta ikuspuntu globalago batean garatzen den Zaldia/Ribasen *Azken garaipena* lanera.

Kontakizunaren aitzakia Mariskalari aurre egin nahi dion herria bada, benetan mamitzen dena euskal geografia berrasmaturen deskribapena da. Geografia berri honetan irudimen jolas bat proposatzen da, eta harekin gozatzea.



'Nafarroako mariskala'

Idazlea: Aitzol Lasa.
Argitaletxea: Demonartean.

Zimikoa

Batzuetan, nire bizitza igande arratsalde errugabe bat izan zedin desirutzen dut.

Ez dakit erabat ulertzen den: nahi ditut manta, pijama, txokolate beroa eta hasi bezain pronto amaiera asmatzen diozun filma, bai; baina, batez ere, erruaren burmuin-zimiko etengabetik askatu nahi dut. Beste edozeren gainetik. Betirako. Ez «pandemiaren-kontuarekin-erabat-zozotu-gaituzte»rik, ez «*Friends*-erabat-arrazista/matrixista/homofobia-da»rik, ez «oraindik-ez-dut-*Bigarren-Sexua*-irakurri-ze-feminista-klase-naiz»rik. Ez dakit nola esan. Batzuetan arintasunarekin egiten dut amets. Gauzak gehiegi ez pentsatzearekin. Algoritmoaren zuloan barrena erori eta ez ateratzearekin. Telezaborra eta nire zilborra parez pare; damurik ez, errurik ez.

Duela urte batzuk, izena jarri nion buruaren bueltetatik askatze beharri, arintasun irrikari, eta gezotik, garuna gehiegi zukutzen nabilela igarritakoan, nire ingurukoei aitortzen diet *Divinity* pixka bat behar dudala, droga lasaigarria balitz bezala. Kau Kori Kura taldeak ere omenaldi xumea egin zion telebista-kate horri, *Bixkik* kantukuttunean. Abestia entzunda akaso ulertuko duzue diodana: kon-

tsolamendu erraza nahi dudala. Fakturarik igorriko ez didana. Ez irakurri, ez idatzi, ez pentsatu. Ameba bat izan. Hori da nire ametsa.

Zergatik? Ba, gogaikarria delako beti intelektuala izatea, zutabe esanguratsua idaztea eta kultur-gintzaren zoko-moko guztiak begirada hiperkritikoz arakatzea. Ruperren kanta horrela abestuko nuke: «Inork ez zidan esan, euskaldun-feminista-antirrazista-kulturazale-antikolonialista-antikapitalista-ekologista-postmoderno-eta abar izatea zein nekeza dan...». Zergatik nekeza? Ba erre-alitate filtro ugariatik pasatu behar delako aldiro, irentsi aurretik eta ezer sortu aurretik; eta zentzu batean, norbera delako mikroskopiaren begi arrotzek aztertzen duten zomorroa. Eta nik algoritmoari bake santuan eman nahi diot jaten, aizue.

Ze noski, orain gainera etxean sartu omen digute ziria, Troiako zaldia. Kanpoko zaparradari ez ezik, gure entretenimenduan ere erresistentzia ariketa itzela egin behar omen dugu, ez badugu mozolo sentitu nahi. Ba nik amore ematen dut batzuetan. Eta irensten ditut programa txepelak eta kapituluak bata bestearen atzetik eta gainera inork ezin dit esan hau ez denik kultura kontsumitza. Ze hau ere kultura da, jaun, andre edo/eta queerrok.



LAUHAZKA
Ane Garcia



EIDER PEREZ

Aro postmodernoa gure baitan bizi dira intelektuala eta ameba, elkarrekin. Cristina Morales eta Telecirco. De Beauvoir eta *El Conquis* (bere izenburu nahiz planteamendu kolonialista problematikoa xamarrarekin, bide batez). Goi eta behe, nahiago baduzue. Eta elkarbizitza horrek ez du zertan txarra izan. Kultur produktuko gehienek (gehienek diot) badute beren ueña. Ezin gara beti

intelektualak izan. Eramangaitza litzateke.

Hala ere, nabarmentzekoa da gure barneko bi animaliatxo horien artean bat gehiago elikatzeke joera duela algoritmoak normalean. Eta akaso horren ondorioz, mutur batetik bestera pasatzen gara, bai diskurtsoan bai praktikan: nik, behintzat, *Divinity* mo-rik lotsagabeena nahiz intelektualismo gogaikarriena praktikatzera mugatzen dut neure burua, eta horrela ezer gutxi lortzen dut; nekea eta errua batez ere. Askabide bila hasi naiz azkenaldian, ordea, eta galdera mugarri batekin egin dut topo: burmuina gai konplexuekin sutan edukitzearen eta hura erabat hiltzearen arteko oreka aurkituko banu?

Eta aitortu behar dizuet erdibideko eremu horretan aurkitu ditudala gauzarik interesgarrienak, tresnarik baliotsuenak: ironia, umorea, absurdoa. Aberasgarria da erdibideko gune hibrido horretan lokaztea, bertan bizi diren artistak entzutea, eta norbera buruari barre egitea (halakorik egiten ez duen jendea susmagarria iruditzen izan zait beti). Mursegori entzuten nion behin absurdoa hautu politikoa bat dela. Areago esango nuke, gure barruko intelektuala eta ameba fusionatzeko hautua da. Autoritateei, sailkapenei uko

egin eta izaki askoz gizatiarrago bat lortzekoa: ez automata, ez hiperkritiko. Kulturazale anarkista bat, ez hargatik alferra edo irizpiderik gabea.

Beraz, perreatu lasai C. Tanganarekin (nahiz eta aukeran hobe Amorante eraman *rave* batera), abestu *Lokaleko lehiotik* (edo zure belaualdiari dagokion baliokidea) genero estereotipoz betetako kantu bat izango ez balitz bezala, eta irentsi bata bestearen atzetik *Friends*-en kapitulu zaharrak.

Beraz, jarraitu Ruperren gomendioa eta hauta ezazu munduko hirirtasuna. Zeure burua eta ingurua ez horren serio hartzen lagunduko dizu, zin dagizut. Baina kontura zaitetz, hautu hori betitotzeak zure kontra egiten duela zentzu batzuetan, mundu erraz eta plano baten atzean ezkatutzen dizula errealtate konplexu eta aberatsa. Kultur produktu guztiak dira gure bizitzaren parte, gustatu ala ez gustatu, ikusi ala ez ikusi, goikoak ala behekoak izan. Eta nahiz eta *Divinity*ren apologia hiperboliko eta lotsagabea egin dudana artikulu honen hasieran, esango dizuet niri edozein sailkapeni ihes egiten dioten sorkuntzak interesatzen zaizkidalda, absurdoak, ipurdian zimiko egiten diotelako gure barne amebari nahiz intelektualari.

ikastola txikia
FAMILIA HANDIA

AURREMATRIKULAZIOA 2021/22
Urtarrilaren 18tik 29ra
Hitzordua: 943 393 520
www.herriametsa.eus

HERRI
AMETSA
IKASTOLA
Donostia



Jangela / Haur eskola / Zaintza / Eskolaz kanpokoak
Garraioa: Altza-Herrera-Trintxerpe-Bidebieta-Intxaurren
Gros-Amara-Loiolako Erriberak-Txomin Enea-Astigarraga

ERAKUSKETAK




ANTZERKIA



MUSIKA



ZINEMA



URGULLEN MAGALEAN
San Telmo Museoa
Maiatzaren 2a arte

GAUR

NORUSTA
ERLEA MANEROS ZABALA
San Telmo Museoa
Museo bikoitza
Urtarrilaren 31 arte

GAUR

MIREN ASIAIN LORA
ILUSTRATZAILEAREN
TXOKOA
Aiete K.E.
Urtarrilaren 24a arte

GAUR



HOSTOZ HOSTO ERANTZI
ARAN SANTAMARIA
Okendo K.E.
Urtarrilaren 30a arte

USOA ZUMETA
ELKARLANEAN
Aiete K.E.
Urtarrilaren 31 arte

GAUR

BIRRITAN BORTXATUA
ALDATZEN LAGUNTZEN
ANTZERKI TALDEA
Imanol Larzabal (Lugaritz)
Urtarrilak 22. 19:00
● euskara



SISIFOREN PAPERAK
LOS PAPELES DE SÍSIFO
ANTZ3RKIZ & CDN
Victoria Eugenia
Urtarrilak 28-30. 19:00
28, 29, ● euskara
30, ● gaztelania



ANTON ABADIA:
DUBLINETIK HENDAIARA
LORALDIA
Antzoki Zaharra
Urtarrilak 29-30. 19:00
● euskara

LOS HIJOS
ELENA IRURETA
SUSI SÁNCHEZ
JOAQUÍN CLIMENT
Victoria Eugenia
Otsailak 06. 19:00
● gaztelania



URKO: EZEZAGUNAK
Victoria Eugenia
Urtarrilak 17. 19:00
● euskara

GAUR

GILLEN MUNGUÍA, TENOREA
JOSU OKIÑENA, PIANOA
BATURA ZIKLOA
Victoria Eugenia Club
Urtarrilak 21. 19:30

GUGURUMBÉ,
LAS RAÍCES NEGRAS
Victoria Eugenia
Urtarrilak 22. 19:30



MAREN: 18
Victoria Eugenia
Urtarrilak 23. 19:00
● euskara

ARNAU GRISO
EN ACÚSTICO
Victoria Eugenia
Urtarrilak 24. 19:00

EL LUCHADOR
(THE WRESTLER, 2008)
Bideo-foruma
Ernest Lluch K.E.
Urtarrilak 18. 19:15
● gaztelania



ORÍGENES DEL CINE.
HACIA EL SURREALISMO
NOSFERATU: BUÑUEL +
Tabakalera
Urtarrilak 20. 19:00

HANDIA (2017)
Aiete K.E.
Urtarrilak 21. 18:30
● euskara (JBA gaztelania)

TROIS JOURS ET UNE VIE
(2019)
Bideo-foruma: Zinema frantsesa
Okendo K.E.
Urtarrilak 22. 19:00
● JBA gaztelania

HAURRAK



LIBURU BABY KLUBA
ONLINE
Ipuinak eta abestiak
● euskara + gaztelania + english
Adina: 0-3 urte heldu batekin
Informazioa: donostiakultura.eus/haurrek

TARTALO
LOGELA MULTIMEDIA
ANTZERKIA
Imanol Larzabal (Lugaritz)
Urtarrilak 23. 18:00
● euskara
Adina: + 6

Tin-tin egiten, hardcore garaietan

‘Strum & Thrum’ bilduma argitaratu dute: AEBetako 1980ko hamarkadako hardcore ez-tandaren itzalpean loratu zen tokiko pop eszenako doinuak bildu dituzte LP bikoitzean

Julen Azpitarte

New Yorkeko Brooklyn auzoan kokatutako Captured Tracks diskoetxeak *Strum & Thrum: The American Jangle Underground 1983-1987* izenburuko bilduma plazaratu du. LP bikoitzean argitaratua, *Excavations* seriearen lehen erreferentzia da. 1980ko hamarkadan AEBetan gertatutako hardcore ez-tandaren itzalpean loratutako tokiko pop eszena sekretuaren 28 protagonista biltzen ditu. REM taldearen soinu eta jarreari jarraiki, taldeon diskoek unibertsitateetako irratietan aurkitu zuten lekua. Aditu batzuek 2020ko bilduma onena izendatu dute, jasotako kantuen maila izugarria baita: gitarra dirdiratsuekin apaindutako pop doinu melodikoak maite dituztenen belarrirentzako kabiarra.

Era berean, 1990eko hamarkadan egonkortu zen indie-rockare edo rock alternatiboaren hazia ere erain zuten ibilbide laburreko taldeok, baina, grungearen eraginez batik bat, diskoetxe handiek haien agendetatik ezabatu zituzten –1991an, REMek *Out Of Time* kaleratu zuen Warner Bros. konpainia handiaren markapean, eta Nirvanaren *Nevermind* diskoak merkatu globalaren zutabeak arrakalatu zi-

tuen. Bildutako bandak, halaber, oso bertakoak ziren, eta AEBetako musika independentearen historiako zulo beltz batean galdu ziren, Captured Tracks erreskatatu dituen arte. 80 orrialdeko liburu mardul batekin dator bilduma, argazkiz josia eta taldekide ohien hitzekin zein Captured Tracks diskoetxeko arduradun Mike Sniperrren sarrera mamitsuarekin osatua.

Hala, konpilazioa hutsune historiko hori betetzera dator, taldeon lana ez baita behar bezala jaso, ezta erregistratu ere. Batetik, AEBetako lurraldea handiegia zelako eta taldeon jarduteko eremua oso tokikoa zelako –unibertsitateetako irratien eta fanzineen laguntza baino ez zuten–; eta bestetik, AEBetan ez zelako pop-rock independentearen inguruan diskoetxe sendorik erroto, Erresuma Batuan edo Zeelanda Berrian gertatu bezala, tartean, Creation, Postcard, Sarah eta Flying Nun.

Sei soken txin-txina

Diskoaren azalak ezin hobe laburbiltzen du bildumaren esentzia; hots, AEBetako hardcorearen inguruan hedatutako Do It Yourself (DIY) sarearen babesean jaiotako pop kutsuko tokiko banden lurrzarpiko kontakizun misteriotsua. Hala, karpetaren argaz-



Salem 66 taldea da bilduman ageri direnetako bat. 'STRUM & THRUM' BILDUMA



Diskoaren azaleko irudian, Riff Doctors taldeko kideak. 'STRUM & THRUM' BILDUMA

kiak sinbolo anitz ezkutatzan ditu: hardcore areto txiki batean –atzeko horman Flipper taldearen logoa ikusten da–, punk-rock manerak erakusten dituen taldeko gitarra jotzaile saltoka ari da; sasoiako fanzine bateko irudia dirudi. «Nire lehen taldea garage eta jangle estilokoa zen, eta Circle Jerksek in jo zuen. Erabat normala zen. Guztiok partekatzen genuen ezaugarria DIY kontua zen», Washington DCko Holiday taldeko Lynn Blakeyren hitzak dira. Holiday taldearen *Change* kantua entzun daiteke bilduman, emakumezko ahotsak gidatutako doinu gitarra zalea.

Brinkoka ari den musikariak, baina, Rickenbacker gitarra bat du eskuetan, hardcore soinu gihartsutik erabat urrun dagoena, besteak beste, 1960ko hamarkadan, The Byrds taldeak ezagun egin zuen gitarra marka. Gauza bera gertatzen da bigarren mailan agertzen den gitarra jotzailearekin, zeinak Danelectro bat jotzen duen. Rickenbacker gitarra jangle pop estilorekin lotu da; hau da, tin-tin egiten duen soinu garbiago batekin. Gitarra hori, nola ez, REM taldeko soinuaren ezau-

garri nagusi bihurtu zuen Peter Dinklagek, eta Paisley Underground eszena txikian ere oso ohikoa zen (The Dream Syndicate, Rain Parade, Bangles...).

Athens hiriko talde arrakastatsua eta Los Angelesko leherketa psikodelikoa *Strum & Thrum*-eko taldeon influentzia handienak izan ziren, Erresuma Batuko eta AEBetako post punk taldeekin batera: Gang Of Four, Wire, Mi-

Liburu mardul batekin dator bilduma, argazkiz josia, eta taldekide ohien hitzekin eta sarrera mamitsu batekin osatua

nutemen eta Hüsker Dü, besteak beste. Eragin britainiarra, hain zuzen, nabarmena da bildumako hainbat taldetan. Absolute Gray taldeko Pat Thomas musikariaren banda kutuna Echo & The Bunnymen zen, eta A New Personality taldeko kideek Joy Divisionen eta Gang Of Fourren soinua imitatu nahi zuten, baina ezinezkoa zitzaien; hortaz, Orange Juice taldearen proposamenari heldu zioten. «Gure eragin handienak talde ingelesak ziren, baina

Strum & Thrum entzun ondoren, esango nuke talde askori REM gustatzen zitzaizela», A New Personalityko taldekide ohi Brent Rademakerren hitzetan.

Emakumeen presentzia

Azaleko potretarekin jarraituz, Danelectroa jotzen duen musikaria eta bateria emakumeak dira. Hardcore mugimenduan ez bezala, zeina nagusiki gizonek sortu eta sustatu zuten, jangle pop estiloko taldeotan emakume askok parte hartu zuten. «Ahalik eta emakume gehien sartzen saiatu ginen, eta onena izan zen ez genuela bestelako ahaleginik egin, emakumeak beti izan baitira eszena horren parte. Zure unibertsitateko rock-talde handi eta ergelak ez ziren horrelakoak, guztiak gizonezkoak baitziren. Eszena honetan hardcorean baino emakume gehiago zegoen», dio Mike Sniperrrek.

Emakumeen parte hartzeari buruz hardcore eszenan, Holiday taldeko Lynn Blakeyren berbak argigarriak dira: «Garai hartan emakumezko lagun asko nituen taldeetan. Adiskidetasun handia zegoen, baina hasieran ez genuen hori pentsatzen: ‘Hau zoragarria da, emakume gehiago ariko dira taldeetan jotzen, eta beharko lukete’, gogoetatzen nuen, baina ez zen horrelakorik gertatu. Harritzen nau hainbeste denbora igaro izanak ordezkaritza gehiago lortzeko. Hardcorea hain zen liskaratsua; banda asko gustatzen zitzaizkidan, baina oso matxista zen niretzat».

Bildumako emakume batzuk aipatzearen, eskak osatutako Salem 66 taldea; 28th Dayko Barbara Manning; The Cycloneseko Donna Esposito; edo lan bikoitzearen azal zoragarria betetzen duen argazkiko taldea, Riff Doctors. New Jerseyko laukoteak, bi neska eta bi mutil, bi doinuak single bakarra eta sei kantuko kasetea baino ez zituen argitaratu, 1983tik 1985era. Donna Esposito taldekidea, halaber, Cyclones taldean aritu zen 1981etik 1983ra; single bat eta EP bat plazaratu zituzten. *Strum & Thrum* konpilazioan Cyclonesen *I'm in Heaven* eta Riff Doctorsen *Say Goodbye* jaso dituzte; biak ala biak gitarra akustiko eta elektrikoekin eta emakumezko ahots goxoekin jantzitako pop harribitxi ezkutuak dira. Gainerako 26 abestiak maila berekoak dira, 2020ko bilduma interesgarrienera osatu arte.

Ezbairik gabe, disko arkeologiko lan aparta egin du Captured Tracks diskoetxeak *Excavations* seriea pizteko.

AMARA BERRI
Ikastetxe publikoa
Loiola - Urbietta - Salaberria - Morlans - Ferrerías
tel.: 943-45 85 50
zuzendaritza@amaraberri.eus
www.amaraberri.org



MAREN


Aurkezpen lanaren pilulak

Non: Donostiako Viktoria Eugenia antzokian.
Noiz: Larunbatean, 19:00etan.

Bere lehen iraupen luzeko lana aurkezten ari da Maren abeslaria (Gallarta, Bizkaia, 2002): *Margaritas y Lavanda*. 17

urte besterik ez dituen arren, entzuleen arreta bereganatu du doinu elektronikoak eta pop rock intimista bat uztartzen dituzten kantuen bitartez; konfinamendu garaian argitaratu zituen *Fotosíntesis* eta *Te invito a mi piscina (para matarte)* dira horren adibide. Aleka, kantuz kantu, ari da lan berria aurkezten, hain zuzen ere, eta *La estación espacial de Teruel* da ezagutarazi duen aurrerapen pieza berria; doinu dantzagariak testu zaindu eta kementsuekin uztartzen dituen abesti bat da.

Marenek 2018an kaleratu zuen bere lehen diskoa: *Alguien sin vergüenza*. Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz idatzitako bost kantu biltzen zituen lanak. Barzelonako 48 Volts estudioan grabatu zuen diskoa, John Caballesen gidaritzapean. Hura arduratu da lan berria ekoizteaz ere.



Tenpora 'Berrito asma nazazu'

Diskoetxea: Autoekoizpena

Ihinta Orbegozo

Hirugarren lan luzea argitaratu zuen Tenpora taldeak udazkenaren etorrerarekin batera, eta aurrekoaren ildo berbere-

tik doan disko bat da honako hau ere. Pop eta jazz doinuak nagusi, rock leunaren ukitu sotil batekin, melodia goxo eta ahots eziz inguraturik ageri zaizkigu *Berrito asma nazazu* hau osatzen duten zazpi abestiak. Grabaketa 2020ko urte hasieran burutu bazuten ere, argitaratzea garai zailetan egin zuten, eta, aurtengo uzta oparo honen erdian, agian ez du merezi duen sona izan. Inongo zalantzarik gabe, entzunaldi batzuk merezi dituen lan bat da, bolada ilun hauetan goxotasun eta argitasun pixka bat ekarri eta esperantza apur bat zabaltzeko, edo haien musikarekin murgildu eta inguruko gutzia ahazteko.



Sweeping Promises 'Hunger for a Way Out'

Diskoetxea: Feel It Records.

Julen Azpitarte

Lira Mondal eta Caulfield Sch-nug musikariek Boston hirian eratutako post-punk egi-

tasmoa da Sweeping Promises. Bi musikariek hamar urte inguruko ibilbidea egin dute elkarrekin jotzen hainbat taldetan. Bada, *Hunger for a Way Out* DIY filosofiari atxikitako proiektu berriaren estreinako lana da. Disko osoa idatzi, ekoitzi eta masterizatu du bikoteak; grabazioa mikro bakarreko teknika batekin egin omen da. Baterian, halaber, Spenser Gralla musikariaren laguntza izan du bikoteak. Horiak horrela, iaz entzun dudako txinpartatsuen da, indie-pop eta post-punk estiloen arteko uztarketa sutsutik sortutako hamar doinu biltzen baititu, DEVO eta Breeders fusionatuz.



BI AHOTSETARA Gorka Erostarbe

Iturriaren bueltan kantuan

Auzoa blues kolorez bestitu da, urdin gobil, urdin eder; gabon zahar gaua, leihotik beha. Elur bustia zirri-zarra. Rosaenaren parean Lehoien Iturria hutsik dago. Lagun min batek kontatu berri dit euskal herrietako zenbait auzotan bazela usadioa urte berriari oles iturri baten abaroan egiteko, kantuan egiteko ere. Nekez irudika nezake aztura ederragorik, eta are, musika

bizitzeko modu biziartzaleagorik, auzokideen konpainian eta iturriaren emariari erreparatuz; hutsik dago auzoko iturria, baina.

Musika urte estrainioa izan dut; apenas zuzenkorik, disko berrien entzunaldiak urri, aldizkari eta irratsaio espezializatuetatik urrun. Musikazale eta kultur kazetariaren jaka anplous hori erantzita, sehaska kantua, koplak eta jota zaharrak, eta trap pixka bat izan ditut barne akuilu doinuak.

Izan dut pop parametro estandaragoetan kontsumitzen dugunik entzuteko aukera urriren bat ere; disfrutatu ditut pianoz ondutako Joserra Senperenaren, Mikel Azpirozaren, Igor Arzuagaren, Hatxeren lanak... (Ibon Rg, Asier LT... indar berriz dator pianoa gure musika popularrera?). Behin eta berriro dastatu dit *Mirande* diskoa. J Martina iruditut zait urteko agerpena. Pettik eta

Rafa Ruedak euren ibilbideko diskorik finena obratu dute jada rock beteranotzat har ditzakegunean. Izaro eta Nogen gure kalitatezko mainstreamaren izen indartsuen bilakatu dira... Nazioartekoak ere gutxi entzun ditut; Sault proiektu misteriosua, Sufjan Stevens, Elle Belga...

Baina esan dut; kontsumoaren ohiko bideetatik aldentu zait azken bolada luzean musika, eta nago, hainbat eta hainbat kontu eta kantu eder galdu ditudan hein berean irabazi dudala musikaren beste emari bat...

Leihotik beha. Gaua blues dago. Elurra zirri-zarra. Kantuan ari dira ondoko etxebizitzan. Eszena ezinezko bat irudikatu dut: aurrez aipaturiko musikari horiek gutziak, eta gehiago, eta auzokideak, Lehoien Iturriaren bueltan kantatuz, urte berria agurtuz. Zernahi. Bluesa, sehaska kantua, koplak, jotak, trapa... Baina kantuan.

Ausardia klasikoa

Inaxio Esnaola Aranzadi

Lau hamarkadako historia bizia du heavy metalak Euskal Herrian. Angeles del Infierno gipuzkoarrak izan ziren aitzindariak, eta beraiek hasitakoari beste askok jarraitu zioten. Gaur egun, oraindik badira heavyaren doinu klasikoa eta zuzenak ausardiarekin defendatzen dituzten taldeak. Horien artean fidelenak Evil Seeds bizkaitarrak dira. *Theory of Fear* bigarren diskoarekin estiloaren indarguneak azpimarratu dituzte, beldurrik gabe.

Hamar urte luze pasatu dira estreinako lana plazaratu zutenetik, eta iragan urrunean geratu dira lehen pauso eta aro hura. Ahaztuta, nolabait. Izan ere, taldeko hiru kidek uztea erabaki zuten, desagertzeaz izan ziren. Asier Roma abeslariak eta orduko gitarra solistak eutsi zioten apustuari, eta errautsetatik birsortu behar izan zuten banda.

Bigarren aroan kokatu behar da 2016ko *From the Abyss* lan labur bezain bikaina. Gaur egun direra ulertzeko aurrekari egokiagoa da. Horrela ere, taldekide aldaketak izan zituzten, eta Roma bera da hasieratik jarraitzen duen bakarra. Evil Seedsen bereizgarria ere bada.

Agerikoak dira beraien nazio-

arteko erreferentzia zahar eta berririk, Ingalaterrako, Alemaniako eta AEBetako heavy metal eskolak dastatu daitezke beraien kantuetan. Bi izen: Judas Priest eta Accept. Noski, ez dira bakarrak, baina bai adierazgarrienak. Ahoztaren goi-erregistroa, gitarra zorrotzak eta egiturak sobera ezagunak dira. Mila bider jorratu denarekin belarriak zutitzea da gakoa, eta Evil Seeds gai da horretarako.

Beldurraren teoriak bederatzi pieza ditu, eta aipaturiko ezaugarriak partekatzen dituzte soinu ekoizpen profesionalarekin. Boxeolarien lekuan jarri dira lehen kolpea emateko (*King of the Ring*), eta entzulea K.O. bidez irabazteko. Indar erakustaldiak bata bestearen atzetik datoz, eta horren eredu latzena da *Stronger* lehen singlea. Apropos aukeratu zuten, eta diskoko ereserki gogoangarriena da. Baita hurrengoa ere: *Inside the Vipers' Nest*. Baxuak ezartzen duen erritmoa gorpuztean sentitzen da. Bideo-klip gisa aurkeztu zuten, merezi duen ikusgarritasuna emateko.

Lehen herena paregabea bada ere, tamalez, gainerakoa ez da maila berekoa. Heavy metal klasiko eta zuzenarekin zeresana emateko ereserkiak fabrikatu behar dira, eta hori oso zaila da. Evil Seeds hein batean lortu du bigarren diskoarekin, baina emaitza desorekatua da. Horrela ere, doinu hauen zale sutsuek asko gozatuko dute bizkaitarren errepertorioarekin.



Evil Seeds 'Theory of Fear'

Diskoetxea: Thundersteel Records.

50 urte
Petronor
energiak

ENERGIA AURREZTEKO
AHOLKUAK
Iturria: Energiaren Euskal
Erakundea

Ahal bada, saihestu bonbilla asko dituzten lanparak.




Eguraldia

euskalmet
euskal meteorologia agentzia



**Frontea,
eta eurria**


Eguna ostartekin hasiko dugu hegoaldean, eta behe hodei batzuekin isurialde atlantikoan, baina, arratsaldean, lainotu, eta euritara egingo du. Mendebaldeko eta hego-mendebaldeko haizea ibiliko da; eguerdi inguruan, kostaldean, ipar-mendebaldekoa. Tenperatura beroenetan ez da aldaketa handirik espero.



ITSASOA

Goizean, hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, 3ko indarrarekin, eta arratsaldean, ipar-mendebaldekoa. Itsaso kizkurra edo itsaskirria eragingo du. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 1,5 metro inguruko olatuak altxatuko ditu.

ISOBARA MAPA



EGUZKIA	SORTU	GORDE
	08:40	18:04

BIHAR ⬆️

Argitzera eta garbitzera

Eguna motel hasiko da, batez ere isurialde atlantikoan. Hodei ugari pilotuko da, eta baliteke euri pixka bat egitea. Arratsaldean, ordea, alertu, hodeitzeta saretu, eta ostarteak nagusituko dira. Haizeak hegoalde joko du, eta tenperaturarik beroenak pixka bat igoko dira.

ILARGIA	EGUNA
Ilgora	Urtarrilak 20, asteazkena
Ilbetea	Urtarrilak 28, osteguna
Ilbehera	Otsailak 4, osteguna
Ilberria	Otsailak 11, osteguna

ITSASALDIA ORDUA METROAK

Itsasbehera	00:54	0,91
Itsasgora	07:11	4,27
Itsasbehera	13:20	0,91
Itsasgora	19:32	3,87

HAMAICA

08:00: Kiliklon. **09:00:** Pandoraren kutxa. **09:30:** Txapela buruan. **10:00:** Km0 errezetak. **10:30:** Bizi musika. **11:30:** Hiri baratzea. **12:00:** 11 leiho. **13:00:** Etxeko sessions. **14:00:** Asteko kronika. **14:30:** Orain bertan. **15:00:** Km0 errezetak. **15:30:** Musika zuzenean. **16:00:** Kolpez kole. **17:30:** Hezurren memoria. **18:15:** Lotsagabe. **19:00:** Bizi musika. **20:00:** Doka kontzertua. **21:00:** 11 tokitan. **21:45:** Hezurren memoria. **22:30:** Txapela buruan. **23:00:** Kontzertua. **00:05:** Etxeko sessions.

ETB 1

08:00: Euskal Herritik. **08:40:** Iparaldearen arena. **09:10:** EITB Kulturra. **09:40:** Bizi berria. **09:50:** Egi bi-dean. **10:00:** Meza. **11:00:** Herri kirolak. **11:30:** Helmuga. **12:00:** Saskibaloia: Kutxabank Araski - IDK Gipuzkoa. **14:00:** Gaur egun. **14:50:** Eguraldia. **15:00:** Hitzetik hortzera. **15:55:** Herri kirolak. Urrezko aizkoloriak. **17:00:** ETB Kantxa, pilota. **20:00:** Gaur egun. **20:50:** Eguraldia. **21:00:** Barre libre. **22:20:** Baserria. **23:40:** Superkoparen bila. **00:25:** ETB Kantxa, pilota.

ETB 3

08:00: Barazki-kontuak etxean. **08:20:** Mya Go. **08:30:** Globo etxaldea. **08:45:** Dimitri. **08:55:** Munki eta Trunk. **09:05:** Txau-Txau, Txio eta Panda. **09:30:** Zuri zorionak. **09:35:** 3 ene kantak. **09:55:** Ikimiliklipa. **10:00:** Dora esploratzailea. **10:15:** Olivia. **10:35:** Maya erlea. **11:00:** Patri postaria. **11:15:** Kaixo Timmy. **11:35:** Yoko eta lagunak. **12:00:** Tib eta Tumtum. **12:20:** Kody Kapow. **12:45:** Doraemon. **13:35:** Jinglekids. **14:00:** Zuri zorionak. **14:10:** 3 Ene kantak. **14:20:** Ikimiliklipa. **14:25:** Aitor jagoleak. **14:50:** Roger. **15:10:** Gormiti. **15:30:** Sagu eta Pagu. **16:50:** Shaun arditxoa. **17:05:** Psammyren showa. **17:15:** Mutil neska txakur katu sagu gazta. **17:40:** Mike miragarria. **18:00:** Berealdiko espioiak. **18:20:** Martin mystery. **18:45:** Doraemon. **19:40:** Bagel & Becky show. **20:00:** Ene kantak dantzan. **20:20:** Pipi kaltzaluz. **20:35:** Mike miragarria. **21:00:** Mutil neska txakur katu sagu gazta. **21:20:** Doraemon. **22:15:** Rabbid inbasioa. **22:30:** Dragoi Bola. **23:15:** Volttron, kondairetako defendatzailea.

KANALDUDE

12:00: Harri salda. **19:00:** Harri salda.

Hollywood

10:25: Ni en sueños. **12:10:** El indomable Will Hunting. **14:10:** En el punto de mira. **15:45:** Rambo II. **17:40:** Rambo III. **19:40:** Rob Roy, la pasión de un rebelde. **22:00:** El hombre de acero.

AMC

11:55: Ricki. **13:40:** La conspiración del pánico. **15:30:** Jackie Brown. **18:05:** Scary movie. **19:30:** Scary movie 2. **20:50:** Scary movie 3. **22:10:** La sombra de la traición.



ETB 2

09:00: Palabra de ley. **09:30:** Una historia de Vasconia. **10:30:** Vascos por el mundo. **13:40:** Teknopolis. **14:10:** Atrápame si puedes finde. **14:58:** Teledi. **16:20:** Zinema. Asesinato en Toulouse. **20:20:** Zinema. Sin identidad. **20:11:** Momentos de Historias a Bocados. **20:10:** Historias a bocados. **21:00:** Teledi. **22:20:** El estado contra Pablo Ibar. **23:15:** 360°. **00:15:** Todos los apellidos vascos.

ETB 4

09:25: De lo bueno lo mejor. **11:10:** Del país de los vascos. **13:45:** Robin Food. **16:00:** Noche de Historia. **18:05:** Juego de cartas. **19:20:** De lo bueno lo mejor. **20:00:** Del país de los vascos. **21:15:** Atrápame si puedes finde. **22:00:** Zinema. La huida. 2012.

La 1

09:15: Viaje al centro de la tele. **11:15:** Españoles en el mundo. **13:05:** Como sapiens. **13:55:** TVEmos. **14:30:** Corazón. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Zinema. Amar sin prejuicios. **20:20:** Zinema. Los límites de la verdad. **20:13:** 19:00: Zinema. ¿En tu casa o en la mía? **20:14:** 20:30: Aquí la tierra. **21:00:** Albisteak. **22:05:** Zinema. El juez. 2014.

La 2

10:30: Meza. **11:30:** Pueblo de dios. **11:55:** Saber vivir. **12:55:** Zoom tendencias. **13:20:** Dokumentalak. **13:40:** Dokumentalak. **14:15:** La 2 express. **15:35:** Saber y ganar fin de semana. **16:20:** Grandes documentales. **18:50:** Wild Latam - America salvaje. **19:40:** El señor de los bosques. **20:10:** Rescate. **20:35:** El documental de La 2. **21:30:** Imprescindibles. **22:30:** Zinema. Selfie.

Antena 3

08:20: Los más... **11:35:** El desafío. **13:50:** La ruleta de la suerte. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Zinema. Nacido para el silencio. **20:18:** 17:45: Zinema. El novio perfecto. **20:13:** 19:20: Zinema. En manos de un desconocido. **20:17:** 21:00: Albisteak. **22:10:** Mi hija.

Tele 5

08:25: Got Talent España. **13:30:** Socialité. **15:00:** Albisteak. **15:40:** Kirolak. **15:50:** Eguraldia. **16:00:** Viva la vida. **21:00:** Albisteak. **22:00:** Deluxe.

La Sexta

10:05: Zapeando. **11:45:** Equipo de investigación. **14:00:** Albisteak. **15:30:** Liarli Pardo previo. **17:30:** Liarli Pardo. **20:00:** Albisteak. **22:30:** El objetivo. **23:40:** Zinema. Glimmer Man. 1996.

Cuatro

09:50: Fogones lejanos. **10:55:** Callejeros Viajeros. **14:00:** Cuatro al día. **15:00:** Kirolak. **15:20:** Eguraldia. **15:45:** Zinema. El último héroe. **20:19:** 18:00: Zinema. Taxi 5. **20:18:** 19:55: Cuatro al día. **21:30:** Cuarto milenio.

TF1

10:15: Auto moto. **11:05:** Téléfoot. **12:00:** Les 12 coups de midi. **12:50:** Petits plats en équilibre. **13:00:** Journal. **13:40:** Reportages découverte. **14:50:** Grands reportages. **16:10:** Les docs du week-end. **17:15:** Sept à huit life. **18:20:** Sept à huit. **20:00:** Journal. **20:40:** Habtons demain. **21:05:** Zinema. John Wick 2. **20:17:** 23:20: Zinema. Night run. 2015.

France 2

08:30: Les chemins de la foi. **11:00:** Meza. **12:05:** Tout le monde veut prendre sa place. **13:00:** Journal. **13:20:** 13h15, le dimanche... **15:10:** Vivement dimanche. **15:55:** Vivement dimanche prochain. **16:55:** Affaire conclue, tout le monde a quelque chose à vendre. **18:45:** Les enfants de la télé. **19:20:** Les enfants de la télé, la suite. **20:00:** Journal. **20:30:** 20h30, le dimanche. **21:05:** Zinema. L'empereur de Paris. 2018.

France 3

10:15: Parlement hebdo. **10:45:** Nous, les européens. **11:30:** Dimanche en politique dans votre région. **12:00:** Le 12/13. **12:10:** Dimanche en politique. **12:55:** Les nouveaux nomades. **13:35:** Zinema. La belle équipe. **19:36:** 15:20: Thalassa. **16:10:** Les nouveaux nomades. **17:15:** 8 chances de tout gagner. **17:55:** Le grand slam. **19:00:** Le 19/20. **20:05:** Stade 2. **21:05:** Les enquêtes de Morse.

Euskadi, auzolana

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra



EKITALDIAK

ARANGUREN Mari Pompas. Hau-
rentzako antzezlan.

● Gaur, 12:30etan, kultur etxean.

ARETXABALETA Mari eta gaileta
fabrika antzezlan. Eidabe taldea.

● Gaur, 17:00etan, Arkupen.

BERRIZ Travellin' Brothers.

● Gaur, 12:00etan, kultur etxean.

DONOSTIA Donostiako Orfeoia.

● Gaur, 19:00etan, Kursaal.

ELGOIBAR A. Ortega eta A. Unzu.

● Gaur, 12:30etan, Antzokian.

ELORRIO Kotondarrak antzezlan
haurrentzat. Anita Maravillas.

● Gaur, 16:00etan, Arriolan.

ERANDIO Konpromisoa antzezla-
na. Txalo Produktzioak.

● Gaur, 16:00etan, Josu Muruetan.

HONDARRIBIA Erradikalak ginen
antzezlan.

● Gaur, 19:00etan, Itsas Etxean.

MUNGIA Bertso jaialdia: M. Arza-
llus, A. Estiballes, I. Larrazabal La-
rra eta Xabi Paia.

● Gaur, 13:00etan, Andra Mari
elizako aterpean.

MUNGIA Belako.

● Gaur, 19:00etan, Olalde aretoan.

OIARTZUN Tomiris. Atx Teatroa.

● Gaur, 19:00etan, udal aretoan.

SANTURTZI Lur eta Amets. Hau-
rentzat.

● Gaur, 12:00etan, Serantes
aretoan.

Zinema

Araba

Gasteiz

FLORIDA, ikuslearen eguna; asteazkena.

23 paseos	17:10	19:15
Deseando amar		17:00
El linete dei dragón		12:00
El padre	17:15	19:15
El verano que vivimos		19:00
En guerra con mi abuelo		12:00
Hasta el cielo		18:55
La última gran estafa	12:00	17:10
Las crónicas de Fabulandia		12:00
Los Croods. Una nueva ...	12:00	17:15
Los Elfkins		12:00
Manual de la buena esposa		19:10
Mi amigo pony		11:30
Perfumes		19:15
Salvaje		19:30
Vacaciones contigo ... y tu mujer	17:20	

Wonder Woman 1984	11:30	16:40
GORBEIA ZINEMAK , ik. eguna; asteartea.		
El inconveniente		19:25
El pequeño vampiro	12:00	17:15
El verano que vivimos		19:00
Elfinak	12:00	16:45
En guerra con mi abuelo	12:00	17:20
Hasta el cielo		19:20
La última gran estafa	12:00	17:15
Las Brujas (de Road Dahl)	12:00	17:15
Las mil y una		19:00
Las niñas		19:20
Los Croods. Una nueva era	12:00	

Los Elfkins		17:30
Mi amigo pony	12:00	17:20
Saint Maud		19:30
Salvaje	12:00	17:05
Trolls 2: Gira Mundial	12:10	17:10
Wonder Woman 1984	11:30	18:25
YELMO BOULEVARD , ik. eguna; osteguna.		
El pequeño vampiro		16:15
El verano que vivimos		16:15
En guerra con mi abuelo		18:20
Hasta el cielo	16:00	18:30
La última gran estafa		19:00
Los Croods. Una nueva era	16:00	
	17:00	18:00
Los Elfkins	16:45	18:45
Salvaje	17:00	19:00
Wonder Woman 1984	16:00	18:10
Agurain , My Mexican Bretzel	19:00	
Amurri , Nuestros mejores años	19:00	

Bizkaia

Bilbo

COLISEO CINESA ZUBIARTE, Ez dago emandirik.

GOLEM ALHONDIGA

23 paseos	12:00	16:45	19:05
Deseando amar (JBA)	12:00	16:50	

19:10

El padre 12:10 16:50

El padre (JBA) 19:20

Elfinak 12:10 16:45

Hasta el cielo 18:55

Los Croods. Una nueva ... 12:00 17:00

Los Elfkins 12:20

Manual de la buena esposa 16:45

Perfumes 19:10

Vacaciones contigo ... y tu mujer 17:00

Wonder Woman 1984 18:25

ELORRIO, ik. eguna; asteazkena.

23 paseos	16:45	19:00
Deseando amar	17:00	19:15
El inconveniente	19:15	
El padre	17:00	19:00
Elfinak	17:00	19:00
Las mil y una	16:30	
Manual de la buena esposa	19:00	
Más allá de las palabras (JBA)	17:00	
Perfumes	19:00	
Vacaciones contigo ... y tu mujer	17:00	19:15



Los Croods: Una nueva era, Joel Crawforden filma, BERRIA

MULTICINES, ikuslearen eguna; astelehena.

23 paseos	16:45	19:00
Deseando amar	17:00	19:15
El inconveniente	19:15	
El padre	17:00	19:00
Elfinak	17:00	19:00
Las mil y una	16:30	
Manual de la buena esposa	19:00	
Más allá de las palabras (JBA)	17:00	
Perfumes	19:00	
Vacaciones contigo ... y tu mujer	17:00	19:15

Barakaldo

COLISEO CINESA MAX OCIO, Ez dago emandirik.

YELMO MEGAPARK

En guerra con mi abuelo	16:05	
Hasta el cielo	18:30	
La última gran estafa	16:25	
Los Croods. Una nueva era	16:00	
	17:00	18:00
Los Elfkins	17:30	19:15
Salvaje	17:10	19:10
Wonder Woman 1984	17:05	18:10

Basauri

SOCIAL ANTZOKIA

Manual de la buena esposa	19:00
Durango , Zugaza, Elfinak , 17:00	
Croods. Una nueva era	17:00
Elkins	17:00
Foto de familia	19:00
Manual de la buena esposa	19:00
Vacaciones contigo ... y tu mujer	19:00
Elorrio , Nuestros mejores años	19:00
Erna , Erna Antzokia, Mi amigo pony	17:00
Ni de coña	19:00
Gernika-Lumo , Lizeo Antzokia, Los Croods. Una nueva era	16:30

Getxo

LAUREN GETXO, ik. eguna; asteazkena.

El padre	16:30	19:10
Elfinak	18:00	
Hasta el cielo	18:50	
La última gran estafa	19:00	
Los Croods. Una nueva era	17:00	
Los Elfkins	17:00	
Manual de la buena ...	16:15	18:50
Salvaje	17:00	19:15
Vacaciones contigo ... y tu mujer	16:30	19:00

Igorre, Lasarte aretoa, **Dragoien gidaria**, 16:30, El Oroas, 18:45.

Leioa

YELMO PREMIUM ARTEA, El padre 16:00

En guerra con mi abuelo	16:30
Hasta el cielo	18:40
La última gran estafa	16:00
Los Croods. Una nueva era	16:10
	17:00
Los Elfkins	17:10
Salvaje	16:20
Wonder Woman 1984	17:20
Muskiz , Meatzari aretoa, Los Fíxies contra los Croods	17:00
Perfumes	19:00

Portugalete

DOCKBALLONTI

El inconveniente	12:30	16:05	19:25
El padre		19:15	
El pequeño vampiro	12:30	16:10	
Hasta el cielo		19:00	
La última gran estafa		16:30	
Las niñas		19:25	
Los Elfkins	12:30	16:30	17:45
Trolls 2	17:15	17:45	
Wonder Woman 1984	12:00	16:15	18:25

Santurtzi

SERANTES, ikuslearen eguna; asteazkena.

El padre	18:30
La última gran estafa	18:30
Salvaje	18:30
Zalla , Zalla antzokia, Mi amigo pony	16:30
La última gran estafa	19:00
Zornotza , Ipuin-herriko berriak, 12:00	
El inconveniente	19:00

Gipuzkoa

Donostia

ANTIGUO BERRI, ik. eguna; asteazkena.

El inconveniente	19:15	
El padre	16:45	19:15
El pequeño vampiro	17:00	
En guerra con mi abuelo	16:30	
Hasta el cielo	18:45	
La última gran estafa	19:00	
Los Croods. Una nueva era	17:15	
Los Elfkins	16:45	17:30
Niava en Benidorm		18:45
Vacaciones contigo ... y tu mujer	17:00	19:00
Wonder Woman 1984	18:25	
PRINCIPE , ikuslearen eguna; asteazkena.		
23 paseos	16:30	19:15
Akira		18:55
El padre	17:00	19:15
El verano que vivimos		18:55
Elfinak	16:45	17:15

En guerra con mi abuelo	18:45
Hasta el cielo	18:45
La última gran estafa	18:30
Los Croods. Una nueva ...	16:45
Manual de la buena ...	16:30
Mi amigo pony	16:45
Perfumes	17:00
Salvaje	17:15
TRUEBA , ikuslearen eguna; asteazkena.	
Deseando amar	16:45
Deseando amar (JBA)	16:45
Las mil y una	16:45
Martin Eden	18:45
Andoain , Bastero, Los Croods. Una nueva era	16:30
Hasta el cielo	19:00
Azkoitia , Zapatos rojos y los siete trolls	16:30
El inconveniente	19:00
Azpeltia , Madame Curie	19:00
Bessain , Los Croods. Una nueva era	16:45
La última gran estafa	19:00
Bergara , Seminarioa, Los Croods. Una nueva era	16:00
Perfumes	18:30

Eibar

KOLISEO, ikuslearen eguna; astelehena.

Deseando amar	16:00	19:00
Elfinak	16:00	16:00
Perfumes		19:00
Salvaje	16:00	19:00

Elgoibar, Herriko Antzokia, Rocca cambia el mundo

Errenteria

NIESSEN ZINEMAK

El padre	19:15
El pequeño vampiro	17:00
Elfinak	16:45
Hasta el cielo	16:45
La última gran estafa	19:00
Los Croods. Una nueva era	17:10
Los Elfkins	18:30
Salvaje	17:15
Wonder Woman 1984	17:30

Irun

OCINEMENDIBIL

En guerra con mi abuelo	19:30
Hasta el cielo	16:00
Los Croods. Una nueva era	12:00
Los Elfkins	15:50
Salvaje	12:15
Mi amigo pony	12:00
Salvaje	12:15
Trolls 2: Gira Mundial	12:15
Vacaciones contigo ... y tu mujer	12:00
	15:35
Wonder Woman 1984	17:30
Lazkao , Areria aretoa, Los Croods. Una nueva era	16:45
El año que dejamos de jugar	19:00
Legazpi , Labartegui, Hil kanpaiak , 19:00	
Onati , Herri antzokia, En guerra con mi abuelo	16:30
Ordizia , Herri antzokia, Terra Willy	16:45
El verano que vivimos	19:00
Tolosa , Leidor, En guerra con mi abuelo	16:00
Josep	19:00

Ursubil

CINESA URBIL, Ez dago emandirik.

Villabona, Gurea aretoa, El inconveniente

Zarautz, Modelo, El pequeño vampiro

16:45, La última gran estafa

19:00, Los Croods. Una nueva era

16:30, El inconveniente

19:00, Los Croods. Una nueva era

16:45, El inconveniente

19:00, Los Croods. Una nueva era

16:45, El inconveniente

19:00, Los Croods. Una nueva era

Nafarroa

Iruñea

GOLEM BAIONA, ikuslearen eguna; astelehena.

23 paseos	17:00	19:45
En guerra con mi abuelo	17:00	19:00
Hasta el cielo	17:15	20:00
Los Croods. Una nueva era	16:20	
Los Elfkins	16:30	18:30
Salvaje		20:25
Vacaciones contigo ... y tu mujer	17:15	20:20
Wonder Woman 1984		19:20

GOLEM LA MOREA, ikuslearen eguna; astelehena.

El inconveniente	20:25		
El pequeño vampiro	12:00		
El verano que vivimos	19:45		
Elfinak	12:15	16:30	18:30
En guerra con mi abuelo	12:00	17:15	
Eso que tu me das		20:40	
Hasta el cielo	12:00	18:00	
La última gran estafa	12:15	17:15	
Los Croods. Una nueva era	12:00	20:00	
	16:20	17:15	
Los Elfkins	12:15	16:30	
Manual de la buena esposa		20:00	
Saint Maud		20:20	
Salvaje		20:25	
Wonder Woman 1984	12:00	17:00	
	18:40	19:25	

GOLEM YAMAGUCHI, ikuslearen eguna; astelehena.

Deseando amar (JBA)	17:15	20:00
El inconveniente	17:30	20:00
El padre (JBA)		20:10
Manual de la buena esposa	17:15	19:45
Niava en Benidorm (JBA)		19:45
Perfumes		17:30
Altsasu , Iortia, Como perros y gatos la patrulla unida	17:00	19:30
El verano que vivimos	19:30	19:30

Lizarr

LOS LLANOS

Elfinak 17:00

Los Elfkins 17:00

Manual de la buena esposa 19:00

Salvaje 19:00

Vacaciones contigo ... y tu mujer 17:00 19:15

Tutera


OCINE

En guerra con mi abuelo	19:45
Hasta el cielo	17:40
La última gran estafa	16:20
Los Croods. Una nueva era	15:55
Salvaje	16:45
Los Elfkins	15:45
Salvaje	16:15
Wonder Woman 1984	18:30

Uharte

YELMO ITAROA, ikuslearen eguna; osteguna.

En guerra con mi abuelo	16:00	20:00
Hasta el cielo	17:05	19:30
La última gran estafa		19:45
Los Croods. Una nueva era	16:00	19:00
Los Elfkins	16:15	18:00
Salvaje	16:05	18:00
Wonder Woman 1984	16:10	18:10



BERRIAren Telegram kanala

Azken ordukoak · Albiste nabarmenduak · Gertakari garrantzitsuak

- ▶ Instalatu Telegram aplikazioa
- 🔍 Bilatu @berriaegunkaria
- 👤 Batu kanalera

Gaizkileak kantari

Lehen kontakizunak halaxe iritsi zitzaizkigun, belarrietatik. Ahoz aho. Mendez mende. *Kantatuz. Kontatuz.* Istorioak moldatuz, bertsoak sortuz. Memoriak huts egiten duen arte. Ahozkotanaren tradizioaren madarrikazioa hori litzateke. Edo bedeinkazioa.

Belaunaldiz belaunaldi kantatu ditugun abestietan ezkutatzen dira istorio ederrak, epikoak, laz-

garriak eta ilunak. Inoiz gertatu zait abesti bat kantatzen hastea eta ez erreparatzea kontatzen ari naizen horri; melodia horretan ezkutatuta zer ote dagoen jakin barik. Letrak errepikatu, hutsik dauden zakuak izango balira bezala. Bada, abesti horiek bizirik daude eta istorio bat ari dira erditzen.

Horren harira, ZuZeu Podcastek, Bikoiztaile Euskaldunen Elkartearekin elkarlanean, sortuta-

ko *Euskal Gaizkileak* serieaz hitz egin zidaten duela gutxi Twitterren. Ezagunak zaizkigun abestietan ezkutatzen diren Euskal Herriko gaizkileen narrazioak kontatzen dituzte. Zortzi kapitulu dira guztira, eta saio bakoitzean pertsona bati buruz dihardute, hari buruzko abestia ere agertuz.

Oro har, *True Crime* gisako film eta telesailak ikustea gogoko dut, eta entzuten ditut hiltzaileen istorioak erdigune dituzten irratsaioak. Esaterako, behin baino gehiagotan aipatu eta gomendatu dut Catalunya Radioko *Crims* irratsaioa. Alabaina, azken honekin alderatuz gero, *Euskal Gaizkileak* arras



PLAY ETA ENTZUN
Uxue Razkin

desberdina da. Lehenengo kazetaritza-ikerlan bati hurbiltzen zaio, hiltzailearen arrastokak eta poliziaen ikerketak dira kontakizunaren gakoak; esataria, zeremonia-maisu gisa. Bigarrenean, aldiz, gertaerak berri-tzen dituzte irakurketa dramatikoak eginez; ahots ugari narrazioari bizia ematen, ahoz-

kotasunaren tradizioa indartzen. Zoragarria, bene-benetan.

Idea bikaina zela iritzi nion lehenengo kapituluaren aditu bezain laster. Ba al dago benetako gertaerak oinarri dituzten narrazioak entzutea baino gauza hobea-rik? Hemendik aurrera *Beretereken kanthoria*, *Martin Larraalde* edo *Estudiante kondena-tua* herriro entzutean istorio horien protagonistak gogoan izango ditugu, zalantzarik gabe.

Amaitzeko, gomendio bat: podcasta entzun bitartean, ez ezazue besterik egin. *Play* sakatu eta, ahal baduzue, argiak itzali. Etor daitezela eleak belarrira, idon Homerok zioen bezala, «hitz hegalariaik», badakite bidea eta.

Jakes Goikoetxea

2019ko maiatzean iritsi zen Euskal Herrira Yasmine Khris Maansri (Marseille, Frantzia, 1996). Iruñera. Hilabete gutxian ikasi zuen euskara, eta astelehenetan hark aurkeztutako eta gidatutako programa bat ikusi ahal da Hamaika telebistan: *Nafar away*. Euskara hari gisa hartu, eta Nafarroa eta bertako jendea hobeto ezagutzeko ahalegina. Nafarroa ezagutzen ez duen baten begiradarekin. Lehenengo atalean, bihar, Erribera, 22:00etan.

2019an Euskal Herrira iritsi. Euskara azkar ikasi. Urtebetean B2 maila lortu, eta, bi urte igaro baino lehen, telebistan euskarazko programa bat aurkeztu. Jabetzen zara egin duzun ibilbideaz? Bai. Horrela entzunda, ni ere harritzen naiz.

Erronka handia al da?

Bai. Saio hau frogatzen du: erakusteko, alde batetik, gai naizela eta, bestetik, besteek ere euskara ikas dezaketela.

Euskararena erabateko murgiltzea izan zen. Programa hau ere murgiltze bat da Nafarroako geografian, soziologian...? Nafarroa ez duzula ezagutzen esan izan duzu.

Nafarroa ez dut ezagutzen. Etorri nintzenez, Iruñerrian geratu nintzen, bertatik kanpo zer dagoen jakin gabe. Saio honekin neuk eta ikusleek aukera dute Nafarroa aurkitzeko edo berrikusteko.

Nafar away. Hain urrun dago Nafarroa?

Neuk asmatutako izena da. Kezka nuen ingelesaren erabilergatik, baina uste dut nahasketa interesgarria dela. Gainera, programa Euskal Herri osoan ikus daiteke, eta jende askori urrun gera dakioke Nafarroa, ez niri bakarrik.



HAMAIKA TELEBISTA

«Begi berriekin ezagutu ahalko dugu Nafarroa»

Yasmine Khris Maansri • 'Nafar away' saioko aurkezlea

Nafarroa ezagutzen ez duenaren baina ezagutzeko jakin-mina duenaren begiradarekin erakutsiko du herrialdea Khris Maansri, Hamaika Telebistako 'Nafar away' programa berrian, astelehenetan.

Zure ezagutzak beste ikuspegi bat eman dio saioari?

Bai, begi berriekin ezagutu ahalko dugu Nafarroa. Nire ukitua ematen diot; jolasean aritzen gara nire ezjakintasunarekin ere.

Kontraste handiko lurraldea da.

Nortasun handiko lurralde bat eta gizarte bat da. Hori ere bada helburua: aurreiritziak apurtzea, ze-

ren Nafarroaren hegotik iparrera euskaraz eginen dugu eta topiko-etatik harago joanen gara. Nola? Galderak egiten, kuxkuxean ibiltzen, batzuetan hanka sartzen...

Zeren bila joan zarete? Taldeak, istorio bitxiak...

Istorio bitxiak, esango nuke. Harria euskara da, hizkuntza. Ikusiko dituzue toki bakoitzeko ezauga-

riak, hitz bereziak eta pertsonaiak. Denetarik aipatzen dugu: paisaia, gastronomia, kirola, hizkuntza... Guztia umorearekin. Gauza asko ikasiko ditugu, baina modu dibertigarrian.

Bazenuen eskarmentua kameraren aurrean. Ahotsa.info-n lan egin zenuen. Eroso sentitu zara?

Oso eroso egoten naiz kameraren

aurrean, gero eta lasaiago sentitzen naiz.

Jarraitzen duzu bestelako kazetari lanak egiten? El Salto-n...

Ez nuen kazetaritza ikasi, eta pixkana-pixkana ikasten ari naiz. Orain frantses ez idazten ari naiz, Mediabaskentzat. Enkarguzko lanak izaten dira. Euskaraz, ahal dudanean. Ez nago hain ohituta. **Ikasketaz eta lanbidez itzultzailea zara. Zer eratako testuak itzultzen dituzu?**

Denetarik: txostenak, testu judizialak, literarioak, publizitatea... Ahozko itzulpen gintza ere egiten dut, epaitegietan, esaterako.

Ezagun egin zinen euskara oso azkar ikasi zenuelako. Besteren miresmena nabari duzu?

Lehen bai, orain ez hainbeste. Eskerrak.

Zama bihurtu da?

Ez dut eredu izan nahi. Nire bidea egiten ari naiz, eta nire bideak beste norbaiti laguntzen badio, oso ongi, baina oso deseroso sentitzen naiz eredu gisa.

Zer sentitzen duzu euskararen kontrako jarrerak ikusten edo bizitzen dituzenean?


Ezjakintasuna dela. Jende itxia dela. Izugarria iruditzen zait.

Aljeriatik Frantziara joan ziren migratzaileen alaba zara. Zuk zeuk ere migratu egin duzu.

«Nongoa zara?» galderaz gogota egin zenuen iaiz, BERRIako Zubiak blogean. Erantzunik bai?

Betiko galdera da, eta uste dut ez dudala aurkituko erantzuna, ez baitago erantzun zehatzik. Hala ere, gai hori beti dago presente nire buruan. Dena den, nire baldintzak eta gurasoenak oso ezberdinak dira: gurasoek terrorismoaren garaian migratu zuten Aljeriatik Frantziara; nik, berriz, nahi dudalako, eta ez dut kontinentez aldatu, European jarraitzen dut.

Denbora pasak



HITZ GURUTZATUAK


Eszer-eskuin. 1. Letaginen atzean dauden hortzetako bakoitza. Udalerrietako agintari goren, alkate. 2. Isurkari bat irentsi. Esfera formako. 3. Leioako herritar. Pilotajokoan, pilotak paretaren eta lurraren arteko zokoan jotzen duela. 4. Mila eta berrogeita hamar, zenbaki erromatarren arabera. Antzerki lan edo film batean, antzezleek antzeztan dituzten zatiak. Bazkalondoko loaldi. 5. Euskadi, labor-labur adierazita. Intuizio. Arrisku edo larrialdian laguntza eskatzeko oihu. Bokala. 6. Frantzia hegoaldeko hiria. Emakume izena. 7. Adinean sartu, adin jakin batera heldu. Bizkaiko ibaia, urak Nerbio ibaira isurtzen dituela. 8. Gipuzkoako udalerria, Buruntzaldean. Da, niri. 9. Hidrogenoa balio du. Lehen bikoitia. Sobera, gehiegi. Alternatiba zen aspaldian ez dela. 10. Denbora tartea. Berbila, automobila. Herri hizkeran, eta. 11. Erregai mota. Semen, esperma. 12. Asturiasko herritar. Bertan etzateko prestatua dagoen altzaria. 13. Loia eragiten duten eritasunak. Haziak mamiz inguratuta dituzten fruituak.

Goitik behera. 1. Irismena, irispeidea. Hego, hegan egiteko organo. 2. Txileko artxipelagoa, erregina baten izena duena. Karta jokoan erabiltzen den hitza. 3. ... izan, gauza izan. Halabehar. 4. Norbait. Lizarrako merindadeko mendilerroa. Oinarritzko edari. 5. Nitrogenoa balio du. Alderantziz, begirada. Joaki da. Gaixo. 6. Leku desegokia. Nafarroako udalerria, Aezkoan. 7. Kazakhstango hiriburua. Argirik edo argitasunik gabeak. 8. Putzak, ufakoak. Sanako herritar. 9. Galdetzaila bat. Bizia galduta, bizitzeari utzi. Alderantziz, lortu aditzaren infinitibo. Kontsonantea. 10. Ez eme. Ikatzaren koloreko. Ezpainenatik ezterrira hedatzen den barrunbea. 11. Landareez mintzatuz, pipilak emanak. Edozein irin egosirik, bereziki esnetan, egiten den jateko ore arin. 12. Eguzkia. Abian jartzea, martxan jartzea. 13. Ziburuko auzoa edo kartiera. Arerioak, aurkariak.





AURREKO ERANTZUNAK


SUDOKU ERRAZA



SUDOKU EZ HORREN ERRAZA




KONTRAPASA



Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasatu ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Taula osatu ondoan, Rabindranath Tagore (Kalkuta, 1861 - Weimar, 1941) poeta, musikari eta artista indiarren gogoeta burutsu bat azalduko zaizu.

1. Karea egiteko gai	44	8	18	53	32	41	51
2. Areago	16	31	21	12	62	57	35
3. Gipuzkoako udalerria, Urola Kostan	19	29	20	54	4	48	34
4. Ez heldua eta ez zaharra	11	57	24	42	13	38	
5. Ondasunen multzo	58	60	7	30	50	1	
6. Bastart, bort	47	15	36	22	523	37	
7. Jostunen hatzen babesgarri	14	27	28	17	3	61	
8. Emakume izena	23	39	10	25	40	9	
9. Ezkutatua	26	49	2	55	43	6	
10. Min	45	33	63	46	5	59	



«Dena gelditu zen Gasteizen Martxoaren 3an; egunak historia markatu zuen»

Felix Razkin • Langilea eta itzultzailea

Hainbat borrokarekin «konprometitua» egon dela adierazi du Razkinek, hala nola euskalgintzarekin eta langile mugimendurekin. Lantegietan egin du lan; baita Osakidetzako euskara zerbitzuan ere.



Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria Gasteiz

Fraide izateko ikasketak egiten hasi zen Felix Razkin (Arbizu, Nafarroa, 1947), baina azkar utzi zuen bide hori, Gasteizko langile mugimenduan barneratzeko. Barru-barrutik bizi izan zuen 1976ko martxoaren 3ko sarraskia. Hala ere, betidanik izan du bidelagun euskalgintza ere. Besteak beste, Gasteizko lehenengotariko euskara eskolak sortu zituztenetako bat izan zen, eta derigorrezko hezkuntzan ere euskararen aldeko urratsak egin zituen. Osakidetzako euskara zerbitzuan aritu zen lanean azken urteetan, erretiratu zen arte.

Gasteizen bizi zara, baina arbi-zuara zara sortzez. Beriain mangleko herritarra, beraz.

Han igaro nuen haurtzarora, eta oroitzapen onak ditut. Guk garai horretan ez genekien erdaraz, eta dena egiten genuen euskaraz. Pentsa, baita apaizak ere. Euskalduna zen, eta sermoia euskaraz ematen zuen. Hainbat arazo izan zituen herritar batzuekin, eta salatu ere egin zuten.

Nolakoa zen euskararen egoera ordu hartan Nafarroan?

Nafarroako Gobernuan zeudenak askoz ere euskaltzaleagoak ziren lehen, Francoren garaian. Vianako Printzea erakundea ere sortu zuten, eta euskara ondare kultural izendatu zuten; mantendu eta zaindu beharra zegoela uste zuten. Herrira ere etorri ziren, eta diplomak banatu zizkiguten. 1957an, euskaraz egiteagatik. Demokraziaren garaioan, ordea, aurkako mugimenduak sortu

dira, eta euskarari gorrotoa diote hainbatek. Iruñean, esate baterako, laguntza ugari kendu dituzte, eta baita haurtzaindegietako euskarazko tokiak ere. Batzuek gure hizkuntza daukate arazo nagusitzat, eta beren bidetik kendu nahi dute; egoskorak dira lanbide horretan.

Hala ere, 10 urterekin Gipuzkoara joan zinen, Oñatira.

Ordu hartan prestigioa ematen zuen etxean apaiz bat egoteak. Nik osaba bat nuen agustinoetan, eta Arbizuko eskolara joan zen zitekeen pertsona egokia eta argia ikasketa horietarako, eta irakasleak erantzun zion bazela mutiko bat, baina ez zela eskolara joan.

Hori ni nintzen. Azkenean, gurasoekin hitz egin zuen osabak, eta Oñatin [Gipuzkoa] amaitu nuen.

Egun hartan, beraz, argia izan zinen.

Bai, bai. Hala ere, ez nintzen beste ikasleak baino argiagoa. Horren oinarrian istorio bat dago: Panpa [Argentina] non zegoen galdetu zigun behin irakasleak, eta nik erantzuna banekien, beste osaba bat han genuelako. Irakaslea herrituta gelditu zen, ea mukitsu batek haiek baino gehiago jakin behar zuen esan zien ikasle zaharrragoi. Lehen lerroan jarri ninduen, haiekin batera. Izan ere, ikasle zaharrenak aurrealdean eta gazteenak atzealdean jartzen ziren orduan.

Zer moduz egon zinen han?

Nahikoa lan izan nuen integrazten, eta, beraz, bizkortu, eta gaz-

telera ikasteari ekin nion buru-belarri. Badut anekdota bat ere. Euskaraz dena, nolabait, *a-z* bukatzen da: etxea, aulkia. Bada, hizki hori, erdaraz *-la* artikulua erabiliz ordezkatu nuen: *la burra, la padre, la madre...* Dena zen *a*.

Azkenean, abitua ere hartu zenuen.

Fraide izateko lehenengo pausoa izaten zen abitua hartzea; nobizioa. Horrela urtebete egin nuen, baina, azkenean, Gasteizera etorri ginen ikasketekin jarraitzea, 18 urte ingururekin.

Teologia ikastera, teorian...

Teorian, eta fraideek ere ordaindu ziguten bizilekua, baina ordurako bagenekien denok utziko genuela. 30 lagun inguru izango ginen, eta Eusebio Osa apaiza bidali zuten espedizioaren buru gu kontrolatzeko. Pertsona irekia zen,

apaiz izan nahi genuen ala ez. Nik langileen mundura egin nuen jauzi, eta Tximist, Michelin eta BH enpresetan aritu nintzen lanean.

Langile mugimenduan ere sartu zinen.

Ni topera konprometitzen nintzen; hortxe nengoen, borrokarako. Gure lorpenik handiena 1976ko martxoaren 3ko greban lortu genuena izan zen.

Sarraskiaren egunean, hain zuzen.

Hala da. Ordura arte ez zegoen inolako hitzarmenik. Sindikatu Bertikala zegoen, eta baziren ordezkari sindikalak ere, enprekin negoziazioak egiteko. Hala ere, Francoren asmakizun bat besterik ez zen, enpresek aukeratzeko baitzituzten ordezkariak. Beraz, hainbat enpresatoko langile konprometituok erabaki genuen lanean hastea, koordinatuta eta klandestinitatean. Helburu genuen denok hitzarmen berbera izatea, izan metalekoa edo beste arlo batekoa. Negoziatzaileak guk aukeratutakoak izatea ere eskatzen genuen, eta baita plataforma bat sortu ere. Enpresetan aurkeztu genuen gure proposamena, eta orduan hasi ziren ukazioak eta borrokak.

1976ko martxoaren 3a: bost hildako eta ehunka zauritu.

Egun hartan, dena gelditu zen Gasteizen; gure historia markatzen du egun horrek. Baziren aurreko greba batzuetako esperientziak ere, baina azkeneko horretan ikasleek ere grebara deitu zuten, eta dendariak itxi egin zituzten komertzioak. San Frantzisko elizan egin behar genuen arratsaldeko batzarra. Langileen ordezkariok aurrez biltzen ginen, zer esan behar genuen erabakitzeko. Jendea gure zain zegoela, ordea, Polizia eliza barrura sartzen hasi zen, eta gas potoak botatzen. Bertan zeudenak eraikinetik irten ahala, tiroka hasi ziren. Hartu genuen harriak, eta istiluak izan genituen Poliziarekin; zelai zabaleko gudu bat. Espainiako Estatuak

krisian jarri zuen gertakariak. Enpresa guztiak itxi zuten hiru egunez, eta hildakoen hileta egin genuen. Espainiako Gobernuarekin akordio bat lortu zen.

Zehazki, zer lortu zen?

Francok sortutako ordezkari sindikalen figura bertan behera uztea, eta sindikatua legeztatzea. Espainia osorako ekarri zuen aldaketa borroka horrek. Gure ordezkariak hautatzea genuen helburutzat, langileonak; hasieran, sindikaturik ez egotea ere planteatzen genuen. Ni neu oso asanblarioa naiz, eta ez naiz asko fidatzen sindikatuarekin. Langileek egin dute borroka, eta, nolabait, sindikatuak aprobetxatu egiten dute, beraiek goian jarrita. Hala ere, azkenean sindikatuak egotea erabaki zen, eta dezente desanimatu nintzen.

Beharrezkoa al da gertatutakoa ondo gogoan izatea? Memoria?

Zaramaga auzoan hil zituzten polizia bost lagun, eta beste hainbeste zauritu, baina gogoan izan behar da langileen borroka horretatik ere zer lortu zen, oraingo aurrerapen gehienak hortik sortu baitziren.

Desanimatu ostean, euskalgin-tzara jo zenuen. Bazenituen aurrerariak arlo horretan ere.

Gasteizera etorri ginenean hemen ez zen apenas euskaraz egiten, eta bi fronte nagusi izan genituen. Batetik, helduentzako euskara eskolak ematen hasi ginen. Hamar bat lagun aritu ginen jardun horretan, eta bakoitzak hamabi pertsona inguruko hiruna talde genituen. Gerora, ikusi genuen beharra beste lurraldeetan sortzen ari ziren mugimenduei ere ekiteko, eta horrela sortu genuen Gasteizko AEK, 1970eko hamarkadaren hasieran. Bestetik, ikastolen mugimendua ere martxan jarri genuen, eta horretan lagun izan genituen Gipuzkoatik eta Bizkaitik hona etorritako hainbat enpresari. Ikastola bat jarri genuen martxan, Olabide izango zena gerora, besteak beste,

Izaskun Arrue irakaslea lehen leerroan zela. Etxe txiki batean eman zituzten lehen eskolak.

Arabako Foru Aldundiarekin ere borrokan aritu zineten.

Euskararen alorrean aurrerapen gehien egin dituen lurraldea Araba izan da. 1970eko hamarkadaren inguruan, esaterako, baziren bi ikastetxe euskaraz irakasten zutenak: Durana eta Olabide. Orduan, legeak adierazten zuen euskaraz soilik guraso euskaldunak zituzten ikasleek ikasiko zutela, baina guk herritarrei beste aukera bat eman nahi genien, nahiz eta gurasoak erdaldunak izan. Hala, Gasteizko Toki Eder ikastola okupatzea erabaki genuen; diputazioak

eta barreagarria ere bada, bera aurrere nire ikasle izan baitzen euskara eskoletan. Ondoren, euskaltegietan aritu nintzen lanean, eta, Eusko Jaurlaritzako itzultzaile beka batekin urtebete egon ostean, beste eremu batzuetan aritu nintzen. Azkenik, Osakidetzako euskara zerbitzuko lan deialdi publiko batera aurkeztu nintzen, eta, lehenengoan izan ez bazen ere, azkenean, hartu egin ninduten. 2002an hasi nintzen, eta 60 urterekin ateratu nuen plaza.

Osasungintza publikoaren alorrean, hainbat aldiz salatu da euskararen egoera.

Nahikoa urrats egin dira bertan sartu nintzenetik. Esate baterako, euskara zerbitzuko martxan jarri genituen euskaraz ikasteko ikastaroak, eta uste dut jende euskaldundu zela. Euskara normalizatzeko dekretu bat ere egin genuen, eta Osakidetzak onartu egin zuen. Hala ere, ez dute kasurik egiten. Jarri genuen, adibidez, harrerako langileen %80k euskaraz arreta eskaintzeko gai izan behar zutela edozein zentrotan. Gertatzen dena da, ordea, hori ez dagoela gure esku, ospitaleak

erabakitzen baitu nor hautatu, eta, sarritan, irizpide hori ez da errespetatzen.

Langilea izan zarela, behintzat, ezin ukatu.

Bai, eta, 65 urterekin erretiratu ostean, hainbat gauzatan aritu izan naiz laguntzen, hala nola mintzalagun taldeetan. Orain, gehienak utziak ditut, baina badabilkigu zerbait buruan Pako Eizaguirrek eta biok. Fraideetan egon ginen batera, eta hamaika saltatan dago sartuta; hainbat ipuin ere idatzi ditut. Harreman hori mantendu dugu, eta baita beste askorekin ere. Badugu fraideetan egon ginenon Whatsapp talde bat ere; nork esango zigu guri...



Batzuek gure hizkuntza dute arazo nagusizat, eta beren bidetik kendu nahi dute; lan horretan egoskorrak dira»

«Istiluak izan genituen Poliziarekin Martxoaren 3an; zelai zabaleko guduak. Krisian jarri zuen Espainiako Estatuak»

«Osakidetzako euskara zerbitzuan nahikoa urrats egin dira sartu nintzenetik, baina erabakiak ez daude gure esku»

zioak eraiki berri zuen eraikin bat zen, eta han hasi ginen euskarazko eskolak eskaintzen, borondatez aritu ziren irakasle batzuekin. Diputazioak, azkenean, aukera hori eskaini ziguen, eta irakasleak ere kontratatu zituen.

Egindako presioak, beraz, me-rezi izan zuten.

Bai, eta uste dut diputazioak ere lan handia egin zuela. Sei ikastola egin zituen aldi berean, diputazioarenak zirenak eta, beraz, publikoak.

Erretiratu aurreko urteak, berriz, Osakidetzan egin zenituen.

Euskal Filologiako ikasketak egin nituen 21 urte nituela. Enrique Knorr izan zen irakasleetako bat,



RAUL BOGAJO/FOKUI

asko irakurria eta pedagogia berrien aldekoa, eta, hark gu kontrolatu baino gehiago, guk harekin ikasi egin genuen. Uzten zingun askatasuna ere zer bide hartu nahi genuen erabakitzeko, ea

Matrikula zabalik:
Urtarrilak 18-29



ikastolak
hezkuntza eraldatzen





Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegí' hil zenetik bederatzirte bete ziren ostegunean. Txillardegí Udal Liburutegia herri egitasmoak omenaldia egin dio Donostian, senitarteko eta lagunez inguratuta.

Loratu dadin txilarrak berriz

Enekoitz Telleria Sarriegi
Donostia

Ez da erraza izan. Ez da orain txilarrak, baina loratu ditugu hiru landare. Begira, ama, hemen daude». Besotik hartuta darama Joseba Alvarez semeak Jone Forkada ama. «Zeinen ederrak», dio Txillardegí zenaren emazteak. Zentzu bat du denak. Izanak eta izanak: txilarrak Txillardegiren omenaldian eta Txillardegí etxea zegoen toki berean. Halaxe dio Gaskonia (Txillardegí) plazan paratu duten panelak: «XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendeko hasieran Antigua auzoko erdigunean zegoen etxerik ederrena zen Txillardegí etxea, Gaskue-Iturria familiaren egoitza». Argazki zaharrek erakusten dute etxearen ederra eta lorategien bikaina. Ohar bat ere badago

Izena eta izana. Zentzu bat du denak: txilarrak Txillardegiren omenaldian eta Txillardegí etxea zegoen toki berean

egina: «Txillardegí ez zen etxerik. Alboan eraikitako beste etxe bat izan zuen sorleku eta bizitoki bere gaztaroan, baina maiz ibiltzen zen jolasean Txillardegí etxeko lorategietan». Atzodanik, badaude hiru landare berri, loratu dadin txilarrak berriz.

«Maite dugulako». Nekez topa liteke arrazoi bat soilagoa eta indartsuagoa omenaldi baterako. Txillardegí Udal Liburutegia herri egitasmoak antolatuta egin zuten atzo, joan den ostegunean bete baitziren bederatzirte Txillardegí hil zenetik. Senitartekoak eta lagunak. Eguzkiaren epeletan, eta aitortza faltaren ospeletan.

«Aitortza instituzionala, aitortza publikoa», aldarrikatu dute. Bederatzirte aritu dira «eztaren aurrean» Txillardegik merezi duen aitortza lantzen eta sustatzen. Herri egitasmoaren eskaria argia da: inoren izenik ez duen Donostiako udal liburutegi zentralari Txillardegí liburutegia izena jartzeko. Heriotzaren hamargarren urteurrena dator, eta jarria dute aurtengorako erronka: udal liburutegiari Txillardegiren izena jartzeko «nahikoa adostasun» lortzea. «Sukalde lan handia eskatuko duena, eta berehalakoan lantzen hasiko gara».

Dani Gofiñ hartu zuen hitza atzoko omenaldian Txillardegí Udal Liburutegia herri egitasmoaren izenean. Garbi esan zuen: «Ez dugu amaierarik ez duen egitasmo bat izan nahi. Beraz, hamargarren urtean, behingoz, gure helburua lortzeko urtea izatea nahi dugu». Txillardegí hil eta gutxira Donostiako eta inguruetako hamazazpi idazlek

★ ATZOKOZ AURRERA



Txillardegiren horma irudia eta haren senitartekoak, atzo, Donostian egindako omenaldian. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU



Hiru txilarrak landare, landatu berriak. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

egindako eskariari ezetza eman ondotik sortu zen herri egitasmoa. Haien asmoa da eskari hori egin zuten idazleekin harremanetan jartzea lehenengo, eta, ondoren, «geroztik loratu diren idazle berriekin, edota euskalgintzako eta euskal kulturgintzako beste eragileekin».

Txillardegiren betaurrekoak

Txillardegik bere hormako irudirik zelatzen du dena, irribarre goxo batekin. Unai eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak haren betaurrekoak ipinita egin dute arieta. Gaur egunera ekarri dute, eta egoera ezberdinetan jarri. Izan medikuaren kontsultan, izan euskara batuari buruzko eztabaida eta txokokerietan, izan turismoak itotako eta prezioek puztutako Donostian. Dena laburbiltzen du Beñat Gaztelumendiren bertsuaren amaierak: «Ezetz euskara lehentasunen artean azkena gelditu, Txillardegiren betaurrekoak ipiniko bagenitu».